

HAUR HEZKUNTZARAKO IKASTETXE CURRICULUM PROIEKTUAK (0-3 urte)

BILDUMA: "CURRICULUM-MATERIALAK"
COLECCIÓN "MATERIALES CURRICULARES"

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

10

HAUR HEZKUNTZARAKO IKASTETXE CURRICULUM PROIEKTUAK (0-3 urte)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

Haur Hezkuntzarako ikastetxe curriculum proiektuak (0-3). – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003
p. ; cm. – (Bilduma “Curriculum-materialak”. Haur eta lehen hezkuntza = Colección “Materiales curriculares”. Educación infantil y primaria ; 10)
ISBN 84-457-1985-8
1. Haur Hezkuntza - Euskadi - Programazioa. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Bilduma.
373.212.14(460.15)

BILDUMA: “CURRICULUM - MATERIALAK”. HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
COLECCIÓN MATERIALES CURRICULARES. EDUCACIÓN INFANTIL Y PRIMARIA

10. HAUR HEZKUNTZARAKO IKASTETXE CURRICULUM PROIEKTUAK (0-3)

Zarauzko Udal Haur Eskola (97-98)

Koordinatzailea:

MENDIZABAL, Mikel

Egileak:

URKIA, Marian

COIRA, Patxi

RAMIREZ, Ane

SISTIAGA, Maite

PORTULARRUME, Sorkunde

GOÑI, Amaia

PAYUETA, Yolanda

MENDIZABAL, Idurre

MENDOZA, Mirian

MAKAZAGA, Rakek

ARREGI, Mertxe

URBIETA, Iraide

ERRASTI, Beatriz

Oiartzungo Iturburu Udal Haur Eskola (97-98)

Koordinatzailea:

MADARIAGA IRAGORRI, Izaskun

Egileak:

ZUMETA MUTUBERRIA, Mari Jose

LOPEZ ALKORTA, Idoia

IRIGOIEN ITURAIN, Joakina

UGALDEBERE SARASUA, Rexu

IZAGIRRE LARRAÑAGA, Koro

COUSILLAS ARAMENDI, Iosune

GARAÑO GOÑI, Ainhoa

Irungo Udal Haur Eskola (97-98)

Koordinatzailea:

IRUNGO UDALA

Egileak:

BERISTAIN RUIZ, Arritokieta

AIZPURU IRUIN, Izaskun

ECEIZBARRENA LARREA, Lourdes

GALARRAGA CEBERIO, Cristina

LEKUONA ARAMBURU, Pilar

LOIDI ARRIETA, Junkal

PALOMANES GUERRERO, M^l Carmen

PERUTXENA ZUGASTI, Mertxe

SANTAMARIA MURUA, Elena

Hezkuntza Sailak Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko (0-3 urteera bitarteko neska-mutilentzat hartuko dituzten udal jabegoko haur eskoletako eskaintza zabaltzeko) udalei hezkuntza-proiektuak aurkezteko egindako deialdietan (Agindua 1997ko ekainaren 18koa, EHAA 1997ko uztailaren 9koa) parte hartutakoen artean honako material curricular hauek aukeratuak izan dira. Egileek Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan gelarako material bezala erabiltzeko baimena lutzaten dute edizio honetarako.

Argitaldia:	1.ª, 2003ko maiatza
Ale kopurua:	500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria.Gasteiz
Argitaldiaren arduraduna:	Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea Asturias 9, 3º - 48015 BILBAO
Fotokonposizioa:	ITXAROPENA, S.A.
Inprimaketa:	ITXAROPENA, S.A. Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz
ISBN:	84-457-1985-8
L.G.:	SS 717/03

AURKEZPENA

Txosten honetan biltzen diren dokumentuak ikastetxe desberdinetako irakasle taldekideek egin dituzte. Zehazki, Gipuzkoako hiru udal haur eskoletako irakasle talde batzuk egindakoa denez, ezaugarri desberdinak dituzten hiru dokumentuz osaturik dago.

Hiru dokumentu hauek udal haur eskolek Hezkuntza Sailak udalei zuzendutako deialdi batean parte hartzeko egin zituzten. Deialdi honetan parte hartzeko, udalek zero eta hiru urte bitarteko umeentzat zabaldutako udal haur eskoletako proiektuak aurkeztu zituzten.

Txostenean lehenengo ziklorako Hezkuntza Proiektuak eta Curriculum Proiektuak aurkitzen dira. Zarautz eta Oiartzungo dokumentuetan helburuak eta edukiak adinaren arabera sailkatuta daude, zenbait koadro eta zerrenda biltzen direla. Irungo proiektuan erabaki zehatz ugari agertzen dira metodologia eta antolaketari buruz.

Haur eta Lehen Hezkuntzari buruzko curriculum eta eguneroko lana antolatzeko zenbait tresna eta adibide aurkitzen dira lan honetan.

ZARAUZKO HAUR ESKOLAKO CURRICULUM PROIEKTUA

1. 1997/1998 IKASTURTERAKO IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA . . .	13
1.1. Proiektuaren justifikazioa	13
1.2. Familien baldintzak	13
1.3. Proiektuaren lurralde eremua	14
1.4. Haur eskolako ume kopurua	14
1.4.1. Ume kopurua adinka	14
2. 1996/1997 IKASTURTERAKO IKASTETXEAREN IKASKETA PROIEKTUA	15
2.1. Zikloaren helburu orokorrak	15
2.2. Esperientzia-esparruak: ikaskuntzaren edukiak	16
2.3. Zikloa ebaluatzeko irizpideak	28
2.4. Haurren ebaluaketa	28
2.5. Metodología	30
2.6. Aniztasunari erantzutea	30
2.7. Hizkuntza tratamendua	30
2.8. Familiarekiko harremanak	31
2.8.1. Indibidualak	31
2.8.2. Taldekoak	31
2.9. Zerbitzuak eta giza bitartekoak, zein baliabide materialak	32
2.10. Egutegia eta ordutegia	32
2.10.1. Ordutegia	32
2.10.2. Egutegia	33

ITURBURU HAUR ESKOLAKO CURRICULUM PROIEKTUA


1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA	37
1.1. Oiartzungo kokapen sozio-ekonomikoa	37
1.2. Oiartzungo biztanlegoa	38
1.3. Eskaintzaren hedapena	38
1.4. Iturbururen izaera	38
1.5. Haur taldeak	40
1.5.1. Taldeko arduradunak: irakasle banaketa	40
1.5.2. Ekintza orduen sailkapena	40

2. CURRICULUM PROIEKTUA	41
2.1. Helburuak	41
2.1.1. Ikastetxeko helburu nagusia	41
2.1.2. Lehenengo ziklo bukaerako helburuak	41
2.2. Garapen arloak	41
2.3. Esperientzi eremuak. Ikas edukiak	42
2.4. Talde bakoitzean kontutan ditugun ezaugarriak	48
2.5. Ebaluazioa	49
2.6. Metodologi irizpideak	49
2.6.1. Adinez adin	50
2.7. Gurasoekin elkarlanean ihardutea	50
3. ZERBITZUAK, PERTSONAK ETA BALIABIDE MATERIALAK	51
3.1. Espazioak: banaketa eta materialak	52
3.1.1. 0-1 urtekoen gela	52
3.1.2. 1-2 urtekoen gela	52
3.1.3. 2-3 urtekoen gela	53
3.1.4. Sukaldea	54
3.1.5. Kanpoko espazioak	54

IRUNGO HAUR ESKOLAKO CURRICULUM PROIEKTUA

1. HAUR ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA	57
1.1. IHPa justifikatzen duten beharrak	57
1.2. Familien kultur, gizarte- eta ekonomia-baldintzak	59
1.3. Proiektuaren esparrua	60
1.4. Ikasleen guztizko kopurua	60
1.4.1. Neska-mutilen kopurua adinen eta taldekatze-irizpideen arabera	60
1.4.1.1. Taldeen banaketa, mailak eta ratioak	61
1.4.1.2. Jarraitasuna	62
2. CURRICULUM PROIEKTUA	65
2.1. Helburuak idazteko irizpideak	66
2.2. Esperientzia-eremuak:	66
2.2.1. Identitatea eta autonomia pertsonala	66
2.2.1.1. Eremurako sarrera	66
2.2.1.2. I. eremuko helburu orokorrak 0-3 ziklorako	67
2.2.1.3. I. eremuko 1, 2, 3 eta 4 multzoetarako sarrera	68
2.2.1.4. Edukiak multzoka	69
2.2.2. Komunikazioa eta adierazpena	77
2.2.2.1. Eremurako sarrera	77
2.2.2.2. III. eremuko helburu orokorrak 0-3 ziklorako	79
2.2.2.3. Estrategia komunikatibo-adierazkorrak	80
2.2.2.4. Edukiak multzoka	98
2.3. Hezkuntza-eskuhartzeak:	104
2.3.1. Egokitzealdia.	104
2.3.1.1. Tenporalizazioa	105
2.3.2. Jolasa	112
2.3.2.1. Jolas askea edo / eta jolas sinbolikoa	113
2.3.2.2. Jolas gidatua	120
2.3.2.3. Jolas heuristikoa	121
2.3.2.4. Bat-bateko jolasa	123
2.3.3. Kultur eta gizarte-gertakariei lotutako jarduerak	124
2.3.4. Elikadura	127
2.3.4.1. Sarrera	127

2.3.4.2. Alderdi fisikoa	128
2.3.4.3. Alderdi soziala	129
2.3.4.4. Alderdi psikologikoa	130
2.3.4.5. “Jangelako” jarduera	131
2.3.4.6. Bazkariak: antolamendua	132
2.3.5. Jarduera/atseden erritmoetara egokitzea eta ohiko jarduera orokorra	138
2.3.6. Gorputz-zaintza eta –ongizatea	140
2.3.6.1. Gorputza zaintzeko eta garbitzeko jarraibideak eta ohiturak	141
2.3.6.2. Gorputzaren zaintzari, bere ekozpenei eta gorputzaren gozamenari ematen diegun garrantzia	144
2.3.7. Historia pertsonala	145
2.3.7.1. Nola garatuko dugu jarduera?	145
2.3.7.2. Historia / album horren erabilera	146
2.4. Ebaluaziorako irizpideak	147
2.4.1. Ikasleak	148
2.4.1.1. Banaka	148
2.4.1.2. Taldeka	149
2.4.2. Zentroa eta hezkuntza taldea	151
2.4.3. Hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua	152
2.5. Metodologia	153
2.6. Hizkuntz tratamendua	153
2.7. Aniztasunaren tratamendua	155
2.8. Gurasoekiko harremanak	156
3. HAUR-ESKOLAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	159
3.1. Aholkularitza psikopedagogikoa	159
3.2. Familien prestakuntza	159
3.3. Jangela	159
3.4. Egutegia	160
3.4.1. Ikasleak	160
3.4.2. Langileak	160
3.4.3. Funtzionamendu-ordutegia	160
3.5. Espazioaren, denboraren eta baliabideen egitura	163
3.6. Espazioa – Jarduera: Helduekiko/berdinekiko harremanak	165



ZARAUZKO UDALAREN
HAUR HEZKUNTZA PROIEKTUA

1. 1997/98 IKASTURTERAKO IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

1.1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Zarauzko herriak haur hezkuntzako lehen ziklorako proiektu bat garatzeko arrazoi ugari egon daitezke:

- Ez dago beste ikastetxerik 0-3 osoari hezkuntza tratamendua ematen dionik, gureak adin horretako haur kopuruaren %20ari baino gehiagori erantzuten diolarik.
- Hezkuntzarako eskubidea giza izaerako eskubide bat dugu. Haur guztiek dute eskubide hori, eta hezkuntzarako aukera bera izan behar dute.
- Haurren giza garapenari, fisikoari, intelektualari eta afektiboari laguntzeko beharra.
- Gizarte elebiduna edo eleanitza helburutzat hartuz, jaiotzetik euskararen ezagupena eta erabilera suspertzeko beharra.

1.2. FAMILIAREN BALDINTZAK

Urtero izaten ditugu behar bereziak dituzten haurrak/familiak, eta gure asmo eta arauen arabera horiei lehentasuna ematen diegu. Dena den, ia ehun haur ditugu gure eskolan eta gutxi batzuk baino ez dira egoera horretan aurkitzen direnak.

Gure ikastetxera haurra ekartzen duten familiek errenta aitortenaren arabera ordaintzen dute kuota, giza laguntza behar dutenek izan ezik.

Hemengo familia baten errentaren aitortenaren oinarri zergagarria 3.700.000 pezetatakoa da batezbeste.

Ezin dugu esan orohar gizarte, ekonomia eta kultur egoera ahul baten aurrean dauden familiak ditugunik, naiz eta salbuespenik badagoen.

Hala ere, aurreko puntuan aipatu heziketa eskubide hori bermatzeko beharrezkotzat jotzen dugu epe ertainean familien kuotak jaisten joatea dohaintasunera ailegatuz erdi epe batera.

1.3. PROIEKTUAREN LURRALDE EREMUA

Beti ere lehentasuna dute herriko haurrek eta horiei zuzenduta doa haur eskola, naiz eta leku egonez gero inguruko herritako haurrek ere hartzen ditugun.

1.4. HAUR ESKOLAKO UME KOPURUA

Aurtengo ikasturterako (1997-98) 98 ikaspostu eskaintzen ditu Zarauzko udal haur eskolak, horietatik 96 okupatuta ditugularik eta 2 libre.

1.4.1. UME KOPURUA ADINKA

Haurrak taldetan banatzeko gure irizpideak zeintzuk diren esan behar dugu lehenik eta behin:

- Adina.
- Hizkuntza.
- Sexua.

Hiru aldagai horiek hartzen ditugu kontuan eta horietatik adina da gehien baldintzatzen duena. Horren arabera ditugu ratioak, hizkuntza eta sexua kontuan izaten baditugu ere taldeak orekatuak gertatzeko. Dena den, ikasturtea planifikatzean honela jokatzeko badugu ere, bajak suertatzen badira, horien lekua betetzean (sehaskak, katuka, zaharrak) adina baino ez da kontuan izaten, hizkuntza eta sexu aldetik zertxobait desorekatu daitekeelarik.

1997-98 ikasturteko taldeak honako hauek ditugu:

TALDEA	JAIOTZE DATA	HAUR KOPURUA	HEZITZAILE KOPURUA	ETXEKO HIZKUNTZA				SEXUA	
				Eusk.	Gazt.	Eusk./Gazt.	Besteak	Mutila	Neska
Sehaskak	1997 urtarrila - iraila	19	3	13	1	5	—	14	5
<i>Katuka 1</i>	1996 iraila - abendua	8	1 (laguntza du)	4	4	—	—	7	1
<i>Katuka 2</i>	1996 urtarrila - urria	15	2	10	3	2	—	8	7
<i>Katuka 3</i>	1996 urtarrila - urria	15	2	11	1	2	Eusk./frants.	7	8
<i>Zaharrak 1</i>	1995 urtarrila - urria	15 (1 libre)	1	9	2	3	—	4	10
<i>Zaharrak 2</i>	1995 urtarrila - urria	15 (1 libre)	1	7	3	3	Eusk./Katal.	7	7
<i>Zaharrak 3</i>	1995 azaroa - abendua	12 (1 libre)	1	7	1	2	Alemana	6	5

2. 1996/97 IKASTURTERAKO IKASTETXEAREN IKASKETA PROIEKTUA

2.1. ZIKLOAREN HELBURU OROKORRAK

- Norberaren gorputza aurkitzea, ezagutzea eta kontrolatzea, bere buruari eta nortasun sexualari buruzko irudi positibo bat eraikiz, beren ekintza nahiz adierazpenezko gaitasun eta mugaz ohartuz, eta oinarrizko osasun nahiz ongizate ohiturak hartzen joan.
- Autonomia bereganatzen joan eguneroko ihardueretan, segurtasun afektibo naiz emozionala lortzen joan, eta ekimenerako gaitasuna nahiz norberarekiko konfidantza garatzen joan.
- Gero eta eremu zabalago batean eraikitzen joan harreman sozialak, entzuteko jarrera bereganatzen joan, eta beren interes, ikuspuntu eta ekarpenak besteekin lotzen ikasten joan.
- Helduekin eta beren lagunekin harremanak izatea, afektuzko adierazpenak elkarbanatuz, aniztasuna errespetatuz, eta laguntza nahiz elkarlaneaneko jarrerak garatuz.
- Inguru hurbila jakinminezko eta ardurazko jarreraz bahatu eta aztertu, inguru hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietate esanguratsuenak identifikatu, eta haien artean sortzen diren erlazioetariko batzuk antzeman.
- Beren inguruko zenbait kultur adierazpen ezagutzen joan, eta haiekiko errespetu, interes eta parte hartzeko jarrerak garatu.
- Bizi, ezagutu edo irudikatu duten errealitatearen alderdi ezberdinak errepresentatzen eta gogoratzen hasi.
- Hitzezko lengoia ohizko komunikazio egoeretara egokituz erabiltzea.
- Beren adierazpenezko ahalmenak aberastu eta zabaltzeko, eskura dituzten baliabideen birtutez; beren adinari dagozkion adierazpen artistiko ezberdinak ezagutzea eta haietaz jabetzea.

2.2. ESPERIENZIA-ESPARRUAK: IKASKUNTZAREN EDUKIAK

Hiru esperientzi eremuak kontuan izanik, hona hemen bakoitzari dagozkion helburu eta edukiak:

1.-Nortasuna eta autonomia pertsonala:

1.1. GORPUTZA ETA NORBERAREN NORTASUNA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Bere buruaren irudi egoki eta positibo bat edukitzea, bere ezaugarri eta nolakotasun pertsonalak antzemanenez.</p> <p>2. Beste pertsonen ezaugarri eta nolakotasuna onartzea.</p> <p>3. Norberaren sentimendu, emozio eta beharrak antzeman eta besteei adieraztea, besteenak antzeman eta errespetatzea.</p> <p>4. Gorputz eskema identifikatzea eta osotasunean naiz zatika kokatzea.</p> <p>5. Eguneroko bizitzan sortzen diren sentazio eta pertzepzioak kanporatzea eta horietaz jabetzea.</p>	<p>1. Bere buruarekin ziur eta gustura senti dadila.</p> <p>2. Besteen nortasun eta ezaugarri desberdinak onar ditzala.</p> <p>3. Oinarrizko beharrek sortutako atsegin eta ezatseginezko sentazioen balorazioa.</p>	<p>1. Eguneroko ohiturak, komuna, jangela, sies-ta.</p> <p>2. Eguneroko aktibitate didaktikoak.</p> <p>3. Gorputz eskema landu.</p> <p>4. Zentzuak lantzeko material eta aktibitate desberdinak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Testura desberdinak ikutu eta erabili. – Zapore desberdinak dastatu. 	<p>1. Giza gorputza:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gorputz zatiak: kanpoko eta oinarrizko denak. – Gorputzaren ezaugarri diferentzialak: lodia, mehea, luzea, motza, ilehoria, beltzarana, neska, mutila, arrazak, handia, txikia. – Giza gorputzaren irudia: aurpegia, eskuak, oinak, gorputza osotasunean. <p>2. Sentazio eta pertzepzioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Dastamena: hotza, beroa, goxoa, mikatza. – Usaimena: usai desberdinak nabarmendu. – Ikusmena: oinarrizko koloreak, objektu, animalia eta pertsonen ezaugarriak nabarmendu. – Ukimena: hotza, beroa, leuna, latza, bustia, lehorra.

1.2. JOLASA ETA MUGIMENDUA			
<i>Helburuak</i>	<i>Edukiak</i>		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Tonu egoki bat lortu. Joko arautu eta libreetan parte hartzea.</p> <p>2. Manipulazio-trebetasunen koordinazioa eta kontrola lortu.</p> <p>3. Eguneroko bizitzan eta adierazpen grafikoarekin zerikusia duten zereginetan beharrezkoa den ikusmenezko eta eskuzko koordinazioa aplikatzea, objektuak gero eta zehazpen handiagoz erabili eta aztertzeko.</p> <p>4. Espazio, erritmo eta denborazko nozioak finkatu.</p> <p>5. Norberaren lateralitatearen aurkikuntza eta piskanakako finkapena.</p>	<p>1. Konfidantzaz jokatu norberaren posibilitate motrizetan eta autoestimuaurrean.</p> <p>2. Ekintza eta trebetasun berriak ikasteko interesa izan.</p> <p>3. Bere posibilitate motrizak baloratu.</p> <p>4. Talde jokoen oinarriko erregelak onartzeko jarrera izan dezala.</p>	<p>1. Jolasetan, gorputzaren mugimen gaitasunak esploratu.</p> <p>2. Tonu egokia garatzeko ekintzak egin.</p> <p>3. Gorputzaren kontrola eta koordinazioa globala eta zatikakoa landu eta garatu.</p> <p>4. Norberaren lateralizazioa finkatzen laguntzen duten jolas egoeak sortu.</p> <p>5. Espazio, erritmo eta denborazko nozioak finkatzen laguntzen dituzten mugimenduak.</p> <p>6. Joko arautu eta libreak.</p> <p>7. Zirkuituak egin.</p> <p>8. Irteerak.</p> <p>9. Mahaiko lanak: puzzleak, gometsak, margoak ...</p> <p>10. Mugimen jokoak: trizikloak, korrika, baloiarekin ...</p> <p>11. Eguneroko ohiturak</p>	<p>1. Giza gorputza eta mugimendua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Sentsazio eta pertzepzio propiozeptiboak: indarrarekin-indarrik gabe heldu. – Lateralizazioa: alde bat-beste alde. – Orientazioa espazioan: aurrean-atzean, goian-behean, barruan-kanpoan, gertu-urruti, han-hemenhor, azpian-gaiean. – Orientazioa denboran: lehen-orain-gero, atzo-gaur-bihar, eguna-gaua, azkar-mantso. <p>2. Oinarriko trebetasun motrizak eta koordinazioak: korrika, salto, igo, jaitsi, bota, utzi, ostikatu, bueltaka aritu.</p> <p>3. Jolas herrikoi eta tradizionalak: korroan, zubiri-zubiri, abestiak.</p>

1.3. AUTONOMIA EGUNEROKO BIZITZAN			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Piskanaka bere ahalmen eta mugak ezagutzeta, egoki baloratzea eta berauen arabera jokatzea.</p> <p>2. Eguneroko bizitzako zereginak betetzeko eta jolaserako eta halaber sentimendu eta emozioak adierazteko ere, gorputzaren koordinazio eta kontrol dinamikoa eskuratzea.</p> <p>3. Eguneroko bizitzako zeregin eta arazoak konpontzeko gai izatea.</p> <p>4. Eguneroko iharduera inguruan garbitasuna gordetzen laguntzea eta parte hartzea.</p> <p>5. Loaldi, atsedena, elikadura eta esfinterrren kontrolaren erritmoak erregulatzea.</p> <p>6. Arrisku egoerak antzematea.</p>	<p>1. Otorduetan, joan etorrietan, atsedena, atsedena eta higiean ezarritako jokabide arauak onartzeko jarrera.</p> <p>2. Gaixotasun eta istripu txikietan pertsona helduek hartzen dituzten neurrien aurrean lasaitasun eta lankidetzaren jarrera.</p> <p>3. Gaixotasun eta higiean behar den egoeretan familiakoek eta beste pertsona helduek eskaintzen duten laguntza eta babesaren onarpena.</p> <p>4. Hezkuntza premia bereziak dituzten lagunekiko errespetua eta laguntza.</p>	<p>1. Eskuak garbitu eta lehortu, mukiak kendu, ipurdia garbitu edo laguntza eskatu.</p> <p>2. Elikadura eta atsedena, atsedena zerikusirik duten ohiturak landu eta tresnak piskanaka erabili.</p> <p>3. Eskuak eta aurpegia garbitu bazkaldu aurretik eta ondoren.</p> <p>4. Bere kabuz komuna erabili.</p> <p>5. Mina hartzen dutenean adierazi eta laguntza onartu.</p> <p>6. Paperak zakarrontzira bota.</p> <p>7. Jangelako tresnak (baberroa, yogur poteak) behar bezala erabili.</p> <p>8. Jardineko hondarra zuloatik ez atera.</p> <p>9. Jardinean pixa ez egin.</p>	<p>1. Norberaren osasuna eta zaintza:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ongizate pertsonalari dagokion higiean eta garbitasuna (gorputza, arropak...). – Janariak eta elikadura ohiturak: janari motak, janari onak eta kaltegarriak, gehiegi edo gutxiegi jatea, jatorduak. – Gaixotasuna: gorputz oinazea (buruko mina, tripakoa). – Osasunarentzat onuragarriak diren ekintzak: Loai, elikadura, dieta, atsedena. <p>2. Inguruaren zaintza eta ongizate pertsonala:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ikastetxeko garbitasuna: gelakoa, komunak, pasilakoa, jangela – Ingurune materiala: jardina, auzoa, parkea.

2. Ingurune fisiko eta soziala:

2.1. FAMILIA ETA ESKOLA INGURUA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Eguneroko jardueretan taldeko haur eta helduak kontuan hartzea.</p> <p>2. Bere inguruko taldeen jarreraren ohitura eta arauen ezagutza (familia, gela, eskola, lagunak...).</p> <p>3. Eguneroko espazioetan autonomiaz orientatu eta jokatzeko. Denbora eta espazioaren antolatari dagozkion oinarriko terminoak egoki erabiltzea (etxea, eskola, atzo, gaur, bihar).</p> <p>4. Jokabide autonomoaren estrategiak erabiltzea, talde desberdinetara egokituta: familia, eskola, lagunartea...</p> <p>5. Famili eta eskola inguruko eguneroko ihardueren prestaketa eta garapenean partaidetza eta lankidetzak.</p> <p>6. Etxebizitzako eta eskolako espazioetan orientatzea, eta egoitzen erabilpen autonomo eta egokia.</p> <p>7. Famili eta eskola inguruan eguneroko iharduerarekiko denborazko orientabidea lortzea.</p> <p>8. Eskolaren ezaugarriak ikasi: pisu bat, etxe osoa, patioa, jardina...</p> <p>9. Eskolaren banaketa, erabilpen eta funtzioak: gelak, jangela, sukaldaria, gela bereziak...</p> <p>10. Inguru horietako ohizko objektu natural eta artifizialak zeintzuk diren ikasi.</p> <p>11. Segurtasun neurriak, osasuna eta higieena leku hauetan nolakoak diren ikasi.</p>	<p>1. Famili eta eskola bizitzan parte hartzeko interesa, afektu, ekimen eta lankidetzak jarrera izan.</p> <p>2. Norberaren eskubide eta iritzien defentsa eta besteenak errespetatzea.</p> <p>3. Eguneroko elkarbizitzarako talde mailan dauden arauak baloratu eta errespetatzea.</p> <p>4. Erresponzabilitate txikiak onartzeko eta bertetzeko interesa.</p> <p>5. Eskola eta famili inguruko kideen sexu, rol ezaugarri pertsonal, eta abarren aniztasunarekiko errespetua.</p> <p>6. Espazio eta objektuen errespetu eta zaintza eta jarrera positiboa.</p>	<p>1. Famili eta eskola inguruan bizi izandako esperientzi edo gertaeren oriotzapena landu.</p> <p>2. Objektuen behaketa eta sailkapena, beren ezaugarri eta erabilpenaren eta eguneroko bizitzan duten kokapenen arabera egin.</p> <p>3. Famili eta eskola inguruko espazio eta objektuen garbiketa eta kontserbazioan parte hartu.</p> <p>4. Haur bakoitzaren argazki albumaren bidez familia ezagutu.</p> <p>5. Gela bakoitzeko lagunen izenak egunerok esan.</p> <p>6. Eguneroko erritmoa jarraituz, argazkiak, marrazkiak, ipuinak erabili.</p> <p>7. Ikastetxeko maila desberdinetara bisitak egin.</p>	<p>1. Familia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kideak: gurasoak, anai-arrebak, aitona-amonak, izeba-osabak... - Kideen arteko harremanak - Egitura familiar desberdinak - Familiako kideen betebeharrak eta funtzioak - Jokabiderako jarraipideak eta elkarbizitzaren oinarriko arauak. <p>2. Eskola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskolako kideak: lagunak, hezitzaileak, sukaldaria, garbitzaileak..., norberaren taldeko haurrak, lagun minak. - Eskolako kideen funtzio eta betebeharrak. <p>3. Etxebizitza eta eskola eraikina</p> <ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitza mota desberdinak: pisua, etxea, herriko etxea, baserria... - Etxeko espazio desberdinak eta beren funtzioak - Etxearen ezaugarri eta lekua: kalea, plaza, zenbakia.

2. 2. INGURUA ETA GIZARTE BIZITZA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Eguneroko espazioetan autonomiaz orientatu eta jokatzeko. Denbora eta espazioaren antolatari dagozkion oinarriko terminoak egoki erabiltzea (kalea, auzoa).</p> <p>2. Bere inguru fisiko eta soziala ezagutu</p> <p>3. Bere bizitzaren antolaketak modurik arruntak ezagutzeko (goizean eskola- arratsaldean pasiatu, egunez esnagaez lo, ostirala jai bezpera, oporrak).</p> <p>4. Inguru fisikoaren ezaugarriak eta inguru horretan dauden bizitza formen artean erlazio batzuk ezartzea.</p> <p>5. Inguruko festa, tradizioa eta ohiturak ezagutu eta bertan parte hartzea, kultur adierazpen gisa baloratuz.</p> <p>6. Inguru sozio-kulturaleko elementuekiko sentitzen diren sententziak eta emozioak antzematea.</p> <p>7. Bere inguru sozio-kulturalean bizi izandako esperientzi edo gertaerak gogoan edukitzea.</p> <p>8. Ikastetxeko maila guztietako partaideak ezagutu.</p> <p>9. Bere inguruko segurtasun neurriak, osasuna eta higieena nolakoak diren ikasi.</p>	<p>1. Inguruaren ezaugarriak ezagutu eta aztertzea jakinmina eta interesa.</p> <p>2. Inguruko garbitasun eta kontserbaziorako laguntza emateko interesa izan.</p> <p>3. Inguruan dauden istripu arriskuez piskanaka ohartzea.</p> <p>4. Komunitatearen hizkuntza, ohiturak, folklorea eta beste kulturaren errespetua eta interesa izan.</p> <p>5. Inguru sozialeko sexu, lanbide, ezaugarri pertsonal, etab. desberdinekiko errespetua eta jarrera ez diskriminatzailea.</p>	<p>1. Auzo edo herriko elementuak eta bertan ematen diren ohizko egoera edo gertaeren behaketa egin.</p> <p>2. Jokabide autonomoaren estrategiak erabili inguruko ohizko egoera eta ihardunei dagokienez.</p> <p>3. Inguruan egokiak eta desegokiak diren jokabideen arteko bereizketak egin.</p> <p>4. Auzoko espazio eta objektuen kontserbazioan parte hartu.</p> <p>5. Haur bakoitzaren argazki albumaren bidez familia ezagutu.</p> <p>6. Haurren bila etortzen diren pertsonak izendatuz ezagutu.</p> <p>7. Gela bakoitzeko lagunen izenak egunero esan.</p> <p>8. Ikastetxeko mailatara bisitak egin.</p> <p>9. Eguneroko erritmoa jarraituz, argazkiak, marrazkiak, ipuinak erabili.</p> <p>10. Inguruko objektu eta animaliak behatu</p> <p>11. Auzora, baserrira, mendira, inguruko eskoletara, etab. irteerak egin.</p> <p>12. Tokien edertasuna adieraziz, gure jarrearekin bere kontserbaziorako behar diren gauzak azaldu.</p> <p>13. Bertako kantak, olerkiak, ipuinak, erabili.</p> <p>14. Lanbide desberdinak ikusi. Garraio desberdinak ikusi.</p> <p>15. Irteeretan zirkulaziorako arauak erabili.</p> <p>16. Festak egin: Danborrada, Sta. Agueda, Inauteriak...</p> <p>17. Astegunak, ostirala, jaiegunak aipatu, erreplikatu.</p>	<p>1. Eskolako ezaugarriak: gelak, patioa, jardina, sukaldea, jangela...</p> <p>2. Inguru horietako ohizko objektu natural eta artifizialak.</p> <p>3. Auzoko ezaugarriak: espazioa, elementuak eta funtzioak.</p> <p>4. Bizitoki motak: landakoa, hirikoa, itsasaldekkoa, mendikoa.</p> <p>5. Pertsonak egiten dituzten lan desberdinak. Non. Tresnak.</p> <p>6. Garraioak: gurdia, traktorea, kamioia, autobusa, taxia, trenak, itsasontzia, hegazkina, bizikleta</p> <p>7. Kontsumo zerbitzuak: farmazia, jantzi denda, zapata denda...</p> <p>8. Segurtasun eta osasun zerbitzuak: ospitalea, suhiltzaileen parkea, medikua, erizaina, suhiltzailea...</p> <p>9. Zirkulazio arauak: Espaloitik ez jaitsi, Zebra marrik pasatu, Bidea pasatu baino lehen begiratu...</p> <p>10. Aisia eta kultura zerbitzuak: Antzokia, zinema, liburutegia, zirkua, polikiroldegia...</p> <p>11. Folklorea eta ohiturak: Bizi garen tokiko gauza adierazgarriak, antzinako eta oraingo kultur adierazpenak.</p> <p>12. Komunikabide desberdinak: TB, egunkaria, irratia.</p> <p>13. Denboraren forma sozialak: Astegunak, jaiegunak, oporrak, festak.</p>

2.3. INGURU NATURALA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Eguneroko espazioetan autonomiaz orientatu eta jokatzeko. Denbora eta espazioaren antolaketari dagozkion oinarriko terminoak egoki erabiltzea (kalea, auzoa).</p> <p>2. Bere inguru fisiko eta soziala ezagutu.</p> <p>3. Bere bizitzaren antolaketak modurik arruntak ezagutzeko (goizean eskola- arratsaldean pasiatu, egunez esnaguz lo, ostirala jai bezpera, oporrak).</p> <p>4. Inguru fisikoaren ezaugarriak eta inguru horretan dauden bizitzaren formen artean erlazio batzuk ezartzea.</p> <p>5. Inguruko festa, tradizioa eta ohiturak ezagutu eta bertan parte hartzea, kultur adierazpen gisa baloratuz.</p> <p>6. Inguru sozio-kulturalen elementuekiko sentitzen diren sententzio eta emozioak antzematea.</p> <p>7. Bere inguru sozio-kulturalean bizi izandako esperientzia edo gertaerak gogoan edukitzea.</p> <p>8. Ikastetxeko maila guztietako partaideak ezagutu.</p> <p>9. Bere inguruko segurtasun neurriak, osasuna eta higiena nola ikasi.</p>	<p>1. Inguru naturala eta giza bizitzarentzat bere kalitateak duen garrantzia baloratzea, bereganako errespetua eta ardura jarrerak erakutsiz, ahal duen neurrian eskuhartuz.</p> <p>2. Inguruaren elementuak dituzten aldaketak behatzea, hauetan eragina duten faktore batzuk ezagutzeko.</p> <p>3. Inguru naturaleko elementuekiko sentitzen diren sententzio eta emozioak antzematea.</p> <p>4. Inguru natural garbi bat mantentzean parte hartzea.</p>	<p>1. Paisaia naturaleko elementu desberdinen eta inguruko landare eta animali batzuen ezaugarri eta jokabidearen behaketa (zer jaten duten, nola ibiltzen diren...) egin.</p> <p>2. Irudi desberdinen bidez, zuzenean ikus ez daitezkeen paisaiak, animaliak edo landareak behatu.</p> <p>3. Etxabere eta animali basati batzuen arteko desberdintasunak behatu.</p> <p>4. Landare edo animali txiki bat nola hasten den behatu eta hauek zaindu.</p> <p>5. Animalia, landare eta pertsonen arteko harreman mota desberdinak aztertu.</p> <p>6. Ipuinak kontatu eta haietaz baliatu.</p> <p>7. Filminak ikusi.</p> <p>8. Irudi eta argazki desberdinak erabili.</p> <p>9. Etxeko albuma erabili.</p> <p>10. Irteerak egin.</p> <p>11. Zerbait landatu.</p> <p>12. Gelako landareei ura bota.</p> <p>13. Animalia bat ekarri.</p>	<p>1. Izaki bizidunak: animalia eta landareak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ezaugarri orokorrak: zer jaten duten, nola ibiltzen diren, nolakoak diren... – Ingurunekeo animalia eta landareak uretan, lurtean airean... ibiltzen direnak. – Landareak eta zuhaitzak. – Norberaren inguruko animalia eta landareak. <p>2. Gizakiarentzat balioa duten beste kontzeptuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Elikadurarekin erlazioatuta. – Harremanekin erlazioatuta <p>3. Paisaia naturala:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bertako elementuak: lurra, zuhaitzak, ura, haizea... – Mota desberdinak: mendia, itsasoa, oihana...

3. Komunikazio eta errepresentazioa:

3.1. AHOZKO MINTZAIRA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Sentimendu, nahi eta ideiak adieraztea ahozko mintzairaren bidez, piskanaka ohizko komunikazio, testuinguru eta egoera desberdinetara eta solaskide desberdinetara egokituz.</p> <p>2. Beste neska-mutilek eta pertsona helduek adierazten dizkioten mezuak eta mugak ulertzea, ahozko mintzaira besteekiko harremanerako bide gisa baloratuz.</p> <p>3. Kultur tradiziozko testu batzuk ulertu, ikasi eta birsortu.</p> <p>4. Idatzizko mintzairarako interesa eduki.</p> <p>5. Eguneroko egoeretan pertsona helduen eta beste neska-mutilen asmo komunikatiboak ulertzea.</p> <p>6. Ipuin eta esperientziei buruzko eta kultur tradiziozko testu batzuen deskribapen eta kontaketak ulertzea.</p> <p>7. 2Hko hitzen esanahia eta hizkuntz eta hizkuntzaz kanpoko esamoldeak ulertzea testuinguruaren arabera.</p> <p>8. Informazio, behar, emozio eta nahiei dagozkien ahozko mezuak besteentzat ulergarriak izateko moduan adieraztea.</p> <p>9. Mintzaira idatzia komunikazio bide bezala hartzea.</p> <p>10. Kronologikoki sekuentziatuak dauden irudien ulermena, ordenazioa: argazkiak, istorioak, diapositibak...</p>	<p>1. Ahozko mintzaira sentimenduak, ideiak eta interesak adierazteko eta besteenak ezagutzeko tresnatzat hartu.</p> <p>2. Ahozko komunikazioaren mota desberdinetako egoera eta formetan (narratioak, azalpenak, deskribapenak, taldeko elkarrizketak...) parte hartzeko ekimena eta interesa.</p> <p>3. Norberaren hizkuntz produkzioak hobetu eta aberasteko ahalegina.</p> <p>4. Besteen azalpenak entzun eta taldeko eta besteen arteko elkarrizketetan errespetua.</p> <p>5. Kultur tradizioaren testuei dagokienez arreta izatea.</p> <p>6. 2Hko mezuak ulertzeko jarrera positiboa.</p> <p>7. Mintzaira idatzia komunikazio eta informazioarako bide bezala baloratu.</p> <p>8. Helduek irakurritako ipuin bat entzun eta begiratzeak eragiten duen atsegina.</p>	<p>1. Ipuin kontaketak, Filminak, Txotxongilok, Elkarrizketak, Abestiak, Aho korapiloak, Esaerak erabili.</p> <p>2. Eguneroko bizitzan inplikaturako eta dauden eta ez dauden objektu, pertsona eta gertaeren deskribapena.</p> <p>3. Mota desberdinetako esaldiak erabili, ahozkeria eta egituraketa hobetzen joanez.</p> <p>4. Ipuin eta eguneroko bizitzaren gertaerak, gogora ekarri eta jasotakoak kontatu.</p> <p>5. Elkarrizketei hasiera eman eta jarraitu, bai pertsona bakar batekin eta bai gehiagorekin, hizkuntz harreman hauetan dauden arauak erabiliz: arreta jarri, txandak itxaron...</p> <p>6. Besteekiko harremanetan sozialki ezarrirako moduen erabilpen egokia: agurra, eskerriak eman, gauzak eskatu eta eskaini...</p> <p>7. Kultur tradiziozko testu batzuk errepikatu, birsortu (ahokorapiloak, korro abestiak, zozketa egiteko abestiak).</p>	<p>1. Ahozko mintzaira beste pertsonetikiko komunikazio tresna gisa erabili daitekeen zerbitu da.</p> <p>2. Elkarrizketa, narrazioa, azalpena eta bukaera emateko kulturalki ezarritako formak.</p> <p>3. Kultur tradizioaren ahozko testuak: abestiak, esandako eta kontatutako bertsoak, ipuinak, poesiak, etab.</p>

3.1. AHOZKO MINTZAIRA (jarraipena)			
<i>Helburuak</i>	<i>Edukiak</i>		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>11. Forma idatziak eta beste adierazpen grafikoaren (marrazkiak...) artean bereizketa.</p> <p>12. Neska-mutilen eguneroko inguruari dagozkion hitz idatzi oso esanguratsuak antzematea.</p> <p>13. Hitz idatzi desberdien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak hautematea.</p>	<p>9. Liburuak beren interesa duten tresna baliagarri gisa zaintzea eta autonomiaz erabiltzeko nahia.</p>	<p>8. Mintzaira idatziaren euskarri desberdinak (ipuinak, liburuak...) erabili.</p> <p>9. Idazmenerako tresna lagungarri desberdinekin jokatu (papera, klariona, arbela...).</p> <p>10. Testu idatziekin batera doazen irudi, argazki eta abarren manipulazio eta interpretazioa, batzuen eta besteen artean erlazio esanguratsuak ezarri.</p>	

3.2. MUSIKA ADIERAZPENEA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Gorputzaren hots posibilitateak eta inguruaren hotsak ezagutu, bereiztu eta sailkatzea. 2. Oinarrizko kontrasteak bereiztea (luzeamotza, bortitza-goza) eta beste ahots, hots, zurrumurruak antzeman eta imitatzea. 3. Abesti herrikoi eta beste musika obrak antzeman eta bereiztea. 4. Gorputzaren, soinuden objektuen eta musika instrumentuen hots bereizgarriak ikertuz soinu eta erritmo sinpleak sortzea. 5. Sentimenduak ahots tonuaren modulazioaren bidez adieraztea. 6. Mugimendua-hotsa, hitza-hotsa koordinatzea, joko, abesti, errima eta ipuinen bidez. 7. Erritmo, isiltasun, errima, abesti eta dantzetan bat-batekotasuna eta imitazioa lortzea. 8. Abesti erraz batzuk kantatu erritmo eta melodiari jarraiki. 9. Taldeko abestietan parte hartzea, eta antolatzen dituzten keinu, hots eta abarreko adierazpenak errespetatzea. 10. Dantza errazetan parte hartzea, ekimenez eta mugimenduak koordinatuz. 11. Norberaren eta besteen musika bidezko produkzioez ohartzeta. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kantua, dantza eta musika jotzearekin gozatzeta. 2. Hautatutako entzundietan jarrera lasai eta adikorra eta kanta berriak entzuteko prest egotea. 3. Bere kultur giroko folklorea eta beste musika adierazpenekiko atsegintasuna. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahots, hots, soinuak: sortu, imitatu, identifikatu. 2. Festa ezberdinetako kanta kantatu. 3. Txaranga kanta kantatu. 4. Musika tresnak erabili eta sortzen diren doinuez hitz egin. 5. Gorputzarekin hotsak sortu. 6. Objektu ezberdinekin hotsak sortu. 7. Ingurune hotsak antzeman, identifikatu, imitatu. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Musikaren elementuak: hots-isilunea, musika, abestia, erritmoa (azkarrago-lasaiago). 2. Soinuaren nolakotasunak: iraupena, ozentasuna. 3. Gorputzaren, objektu soinudunen eta musika instrumentuen hotsberezitasunak. 4. Folklore abestiak, haur abestiak, kanta garrikideak, dantza herrikoiak.

3.3. GORPUTZ ADIERAZPENEA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Norberaren eta besteen gorputz bidezko produkzioez ohartzea.</p> <p>2. Errepresentazio eta adierazpen forma desberdinak erabiltzea egoera desberdinak adierazteko.</p> <p>3. Errepresentazio eta adierazpenerako forma desberdinen teknika eta oinarriko baliabideak erabiltzea bere komunikazio-aukerak zabaltzeko.</p> <p>4. Hizkuntz mezuetako eta hizkuntza bidezkoak ez diren seinaleetako arauak erabiltzea komunikazio egoera desberdinetan, bere mezuen esanahia indartzeko eta jasotzen dituen zentzua emateko.</p> <p>5. Hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiltzea (aurpegiko espresioa, keinuak...).</p> <p>6. Informazio, behar, emozio, eta nahiei dagozkien gorputzezko mezuak besteentzat ulergarriak izateko moduan adieraztea.</p>	<p>1. Gorputzaren bidez adieraztearen atsegina eta interesa.</p> <p>2. Jolas dinamikak berak sortzen dituen errepresentazioetan parte hartzeko ekimena.</p> <p>3. Materialak bildu eta txukun jartzerakoan elkar laguntzea.</p> <p>4. Gorputz adierazpenerako ihardueretan ekoizpen pertsonalarekiko zaletasuna.</p> <p>5. Iharduera motrizetan, segurtasuna eta konfiantza.</p> <p>6. Objektu, espazio eta denboraren erabilpenari, lagunei eta beraien ekoizpenei buruz elkarrekin ezartzen diren arauak errespetatzea.</p> <p>7. Antzerki emanaldietan adi egon eta atsegin hartzea.</p>	<p>1. Espazio, objektu eta lagunei dagokienez, mugimenduzko aukerak ikertu.</p> <p>2. Objektuak norberaren adierazpen eta komunikaziorako bitarteko gisa erabili.</p> <p>3. Egoeren imitazioa eta identifikazio jokoak egin.</p> <p>4. Joko sinbolikoaren dinamikatik sortutako egoera eta istorio sinpleen errepresentazioa egin.</p> <p>5. Abestia, ipuinak antzeztu eta dramatizatu.</p> <p>6. Joko sinbolikoa: libre eta proposatutakoa.</p> <p>7. Mimikaz adierazi zerbait erraza eta hurrek asmatu eta imitatu (animaliak, ekintzak, objektuak...).</p> <p>8. Aurpegiarekin emozio ezberdinak adierazi.</p>	<p>1. Sentimenduak, emozioak eta beharrak adierazi baita komunikatzeko gorputzak dituen aukerak ere.</p> <p>2. Gorputzaren kontrola: iharduera, mugimendua, arnasketa, atsedena, lasaikuntza.</p> <p>3. Hitzekoak ez diren elkarrizketak hasi eta mantentzeko forma desberdinak (keinuak, mugimenduak, aurpegikerak, sentimendu, emozio eta beharrak azaltzeko).</p>

3.4. PLASTIKA ETA IKUSMENEZKO ADIERAZPENA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Errepresentazio eta adierazpen forma desberdinak erabiltzea egoera desberdinak adierazteko.</p> <p>2. Lanak bakoitzak bere ideien arabera sortzea eta egitea, eta besteak obserbatu eta imitatze-ko gaitasuna izatea.</p> <p>3. Objektuen kolore, forma, posizio eta erlazioen oinarrizko pertzepzioa eta bereizketa egitea.</p> <p>4. Oinarrizko koloreen bereizketa lortzea.</p> <p>5. Goraizeak erabiltzen ikastea.</p>	<p>1. Erabiltzen den materialarekiko interesa izatea, ukitu eta manipulatzea.</p> <p>2. Norberaren plastikako lanekin atsegin izatea.</p> <p>3. Besteen plastika lanak baloratu eta errespetatzea.</p> <p>4. Proposatzen zaizkien oinarri-oinarrizko teknikak arabiltzeko jarrerara ona izatea.</p> <p>5. Erabiltzen den materiala garbitu, zaindu eta bere tokian utzi behar dela baloratzea eta ahal den neurrian horretan laguntzea.</p> <p>6. Lan amankomunak egitean besteekin elkarlanean ari direnaz konturatzea.</p>	<p>1. Plastikazko lanetan erabiltzen diren material eta tresnen azterketa eta erabilpena (argizariak, tenperak, buztina, ura, hirina...).</p> <p>2. Bizipenak, fantasiak eta desioak plastikazko lanez adierazi.</p> <p>3. Plastikazko lanetan giza irudia identifikatzea bere atal desberdinak bereiztuz.</p> <p>4. Bere inguruan aurki daitezkeen irudi mota ezberdinen interpretazioa egin.</p> <p>5. Margoak erabili: argizarizkoak, egurrezkoak, tizak, errotuladoreak.</p> <p>6. Plastilina eta buztina eskuekin, makila, espatula eta abarrekin erabili, lehortzen utzi, margotu...</p> <p>7. Pintura eskuekin erabili, nahasi, koloreak sortu.</p> <p>8. Collageak egin.</p> <p>9. Guraizeekin papera moztu.</p> <p>10. Paper desberdinak erabili, forma desberdinak egin.</p> <p>11. Txotxongilo sinpleak egin (haurrek ahal duten ekarpena egin dezatela).</p>	<p>1. Sentimendu, interes eta bizipena komunikatzeko era desberdinak.</p> <p>2. Objektuen ezaugarri eta nolakotasunak: forma, kolore, materiala, neurria. Beraien arteko berdintasun ala desberdintasun.</p> <p>3. Material, tresna eta euskarri desberdinak.</p>

3.5. MATEMATIKAZKO MINTZAIRA			
Helburuak	Edukiak		
	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p>1. Matematika erreprezentazio formaren posibilidadateak maila egokian erabiltzea inguruko objektu eta egoera batzuk eta bere ezaugarri eta berezitasunak aurkitzeko.</p> <p>2. Objektuak bildumetan biltzea beren antzekotasun eta ezberdintasunen arabera.</p> <p>3. Bilduma bati dagozkion eta ez dagozkion elementuak ahoz adieraztea.</p> <p>4. Ezaugarri jakin baten arabera sailkatzea objektuak: multzokatzea</p> <p>5. Zenbakien izenak ezaugutzea eta hamar artekoak esatea.</p> <p>6. Gauza bat eta gauza asko bereiztea.</p> <p>7. Eragiketa errazak (kendu, erantsi, banatu) erabiltzea arazoak konpontzeko: Batek bi kotxe baditu, bat besteari ematea.</p> <p>8. Objektuen kokapena eta mugimendua egitea norberarekiko, eta alderantziz.</p> <p>9. Hori adierazteko gaitasuna lortzea.</p>	<p>1. Objektuak aztertu eta sailkatzeko zaletasuna izan.</p> <p>2. Objektuen arteko harremanei buruz dakitenaz jarduera desberdinak sortu edo antolatzeke zaletasuna.</p> <p>3. Eguneroko jolas ekintza eta arazoetan kopurua eta ezaugarriak zein probetxugarri diren ohartzea.</p> <p>4. Zenbait objekturen ezaugarriak ezagutzeke jakinmina.</p> <p>5. Denborarekiko interesa izan.</p> <p>6. Egoera edo objektuen deskribapena egitean gero eta zehaztasun handiagoz egiteko interesa.</p>	<p>1. Konparaketak egin (baina, handiago, txikiago...).</p> <p>2. Eguneroko zenbait laren iraupenean denborazko unitateak erabili, eta zenbait iharduera denboran kokatu.</p> <p>3. Urtebetetzetan gauzak banatu.</p> <p>4. Zerrenda pasatuz, identifikatu eta zenbatu.</p> <p>5. Materiala jaso dagozkion lekuan eta dagozkion moduan.</p> <p>6. Lagunei, objektu edo jolas eta lanetarako materiala banatu.</p> <p>7. Ezaugarri desberdinetako bildumak eta multzokatzeak egin.</p> <p>8. Objektu eta pertsonen ezaugarriez ohartarazi: Hitz egitean, ipuinetan, irudietan, materialean..., beraiek ere egin dezaten animatu.</p> <p>9. Jolas desberdinetan objektuak edo beraiek espazioan mugitu eta horretaz ohartarazi: keinu bidezko abestiak, jolas tradizioanalak, pilotarekin, motrizitate ariketan...</p> <p>10. Eguneroko ekintzetan erabiltzen ditugun espazio eta denbora desberdinak nabarmendu.</p>	<p>1. Denborazkoak: Eguna, ordua; eguna, gaua; goiza, arratsaldea; asteguna, jaieguna; azkar-mantso.</p> <p>2. Objektu eta bildumen propietate eta erlazioak: kolore, tamaina, materiala, forma.</p> <p>3. Oinarritzko kuantifikatzaileak: asko-gutxi, bat-hainbat, dena-ezer, gehiago-gutxiago.</p> <p>4. Zenbakiak: izenak.</p> <p>5. Oinarritzko neurria: luze-motza.</p> <p>6. Neurri unitate natural eta arbitrarioak: eskuurrats, soka.</p> <p>7. Forma lanak: zirkulu, karratu, laukizuzen, triangelu.</p> <p>8. Formak eta gorputzak espazioan: goi-behe, gain-azpi, barne-kanpo, aurrean-atzean, urrun-hurbil, itxita-irekita.</p>

2.3. ZIKLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazioa, hezkuntza prozesuaren zati bat bezala hartzen dugu. Etengabea, integratua eta indibidualizatua izanen da.

Honako aspektu hauek ebaluatuko dira:

- *Helburua*: OCD naiz IHPrekiko egokitzapena.
- *Edukiak*: Planteaturiko helburuekiko naiz haurren heldutasun, gaitasun eta ezagupeneko egokitzapena.
- *Irakaskuntza-ikaskuntzazko egoera eta jarduerak*: Programazioak.
- *Ikasgela eta beste hezkuntza espazioetako giroa eta harremanak*: Hezitzaile eta haurren arteko harremanak, taldeko elkarrekintzak, espazioaren antolakuntza.
- *Giza baliabideak eta bitarteko materialak*: Lortutako erabilpen eta errentagarritasuna, haurren garapen-ezaugarriekiko egokitzapena eta beren ekarpen didaktikoa.
- *Hezitzaileen funtzionamendua*: Lan metodoak, iharduera planak eta koordinazioa.
- *Espazioen funtzionaltasuna, denboren arrazionaltasuna eta antolaketa orokorrean parte hartzen duten beste elementuak*.
- *Haurren prozesuak baloratzeko erabiltzen den ebaluaketa sistema, eta irakas jardunaren ebaluaketa sistema bera*.

2.4. HAURREN EBALUAKETA

1. NORTASUNA ETA AUTONOMIA PERTSONALA	
<i>Blokeak</i>	<i>Indikadoreak</i>
Gorputza eta norberaren nortasuna	<ul style="list-style-type: none"> – Gorputz eskema menderatzen du. – Gorputzaren ezaugarri diferentzialak ezagutzen eta antzematen ditu: ilehoria, beltzarana, mutila, neska. – Sentzazio eta pertzepzio desberdinak identifikatzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Dastamena: hotza, beroa, goxoa, mikatza. • Usaimena: usai desberdinak. • Ikusmena: oinarritzko koloreak, objektu animal eta pertsonen ezaugarriak. • Ukimena: leuna, latza, bustia, lehorra.
Jolasa eta mugimendua	<ul style="list-style-type: none"> – Jokoetan parte hartzen du. – Ekintza berritan parte hartzeko prest dago. – Jokoko arauak ezagutu eta errespetatzen ditu. – Korrika, salto, igo, jaitsi, ostikatu, bueltaka aritzeko gai da. – Denboran orientatzen da: lehen-orain, gero-atzo-bihar, eguna-gaua, azkar-mantso. – Espazioan orientatzen da: aurrean-atzean, goian-behean, barruan-kanpoan, gertu-urruti, han-hemen-hor, azpian-gainean.
Autonomia eguneroko bizitzan	<ul style="list-style-type: none"> – Eskuak garbitu eta lehortzen ditu. – Komunera bere kabuz joaten da. – Arazo txiki baten aurrean irtenbidea aurkitzen du. – Bakarrik eta txukun bazkaltzen du. – Arropa errazak jantzi-erantzi egiteko gai da. – Ondoeza edo mina duenean esaten du, laguntza onartzen du.
Osasuna eta ongizatea	<ul style="list-style-type: none"> – Ez ditu gauzak lurretik hartu eta ahora eramaten. – Paperak zakar ontzira botatzen ditu. – Bazkal aurretik eta ondoren eskuak garbitzen ditu. – Pixa eta kaka behar den lekuan egiten du. – Siesta garaiko atsedena onartzen du. – Elikagai desberdinak probatzeko jarrera ona azaltzen du – Kanean, gurutzatzeko nahiz bertan ibiltzeko jarraitu behar diren neurriak ezagutzen ditu.

2. INGURUNE FISIKO ETA SOZIALA	
<i>Blokeak</i>	<i>Indikadoreak</i>
Familia eta eskola ingurua	<ul style="list-style-type: none"> – Familiakoen senidetasuna ezagutzen du: aita-ama, anai-arrebak, aiton-amonak, izeba-osabak. – Bere gelako lagunen bila etortzen diren pertsonak ezagutzen ditu. – Eskolako kideak ezagutzen ditu: lagunak (bere mailakoak-txikiagoak), hezitzaileak (berea-besteenak), Sukaldaria, garbitzailea, zuzendaria. – Eskolako gela desberdinak eta beraien erabilera ezagutzen du: plastika, psikomotritzitatea, jangela, filminak... – Etxebizitza mota desberdinak ezagutu eta beraien ezaugarriak bereizten ditu: baserria, kaleko etxea...
Ingurua eta gizarte bizitza	<ul style="list-style-type: none"> – Ikastetxean lantzen diren kultur adierazpenak ezagutzen ditu: herriko festak... – Pertsonak dituzten hainbat lanbide ezagutzen ditu (medikua, hezitzailea, nekazaria, dendaria... – Astegunak jaiegunetatik bereizten ditu. – Auzoa eta bertako ezaugarriak ezagutzen ditu. – Garraio mota desberdinak ezagutzen ditu: autoa, autobusa, tren, motorra, hegazkina...
Inguru naturala	<ul style="list-style-type: none"> – Animalia desberdinen (txakurra, katua, zaldia, ardia, oiloa, ahatea...) ezaugarriak ezagutzen ditu (nolakoak diren, zer jaten duten, nola ibiltzen diren...). – Landareak nola hasten diren ezagutzen du. – Lurra, hondarra, harria, bereizten ditu.

3. KOMUNIKAZIOA ETA ERREPRESENTAZIOA	
<i>Blokeak</i>	<i>Indikadoreak</i>
Hitzezko mintzagaia	<ul style="list-style-type: none"> – Ahozko mintzaira erabiltzen du, bere sentimendu etab. adierazteko. – Hizkuntz produkzio nahikoa du besteekin komunikatzeko. – Euskara H2 dutenek, ulertzen dute ematen zaizkien mezuak. – Landutako hainbat abesti sinple ezagutu eta kantatzen ditu. – Izenordeak erabili eta esaldi egokiak osatzen ditu. – Zerbait kontatzerakoan, badu entzuteko jarrera.
Musika adierazpena	<ul style="list-style-type: none"> – Musikako hainbat elementu ezagutzen ditu: hots-isilunea, erritmo lasai-azkarra, altu-baju... – Tresna desberdin batzuen soinua ezagutu eta desberdintzen du: danborra, txindata, panderoa, turuta... – Kanta herrikoiak ezagutzen ditu.
Gorputz adierazpena eta komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> – Sentimenduak, emozioak etab. adierazteko gorputzak dituen aukerak ezagutzen ditu (adierazpena...) eta erabiltzen ditu. – Antzezlan sinpleak egiten ditu. – Jolas sinbolikoa erabiltzen du.
Plastika eta ikusmenezko adierazpena	<ul style="list-style-type: none"> – Buztina, plastilina, masa, tenperak, etab. ezagutzen ditu, beraien kalitateen desberdintasunaz jabetzen da eta duten erabilera desberdina eza – Bere produkzioa egiten du material horiek erabiliz.
Matematikazko mintzaira	<ul style="list-style-type: none"> – Neurri desberdinak (luze-motz, lodi-mehe...) bereizten ditu. – Hainbat forma ezagutzen ditu: borobil, karratu. – Formak eta gorputzak espazioan: goi-behe, gain-azpi, barne-kanpo, aurrean-atzean, urrun-hurbil, itxita-irekita, ezagutzen ditu. – Oinarrizko koantifikatzaile batzuk ezagutzen ditu: asko-gutxi, 1-2-3, dena-ezer, bat-hainbat, gehiago-gutxiago.

2.5. METODOLOGIA

Orokorrean, metodologia aktiboa erabiliko dugu, haurrak parte zuzena hartuz alegia, bere ekintza eta esperientzien bidez ikasiz.

Aktibitate mota desberdinak emango dira: Banakakoak, talde txikitan eta talde handitan.

Materialaren erabilpenak prozesu bat jarraituko du: Lehenengo erabilpen librea izango da gehien bat, haurrak ikertu, ezagutu dezan. Ondoren pautak batzuk ere jarraituko dira eduki desberdinak landuz.

Iharduera guztiak zenbait baldintzapean landu beharko ditugu:

- Haurren ohitura eta erritmoak.
- Gela amankomunen erabileraren antolaketa.
- Haurren behar fisiologikoak, interesak...

Edukiak, haurren garapen ebolutiboa errespetatuz sekuentzializatuko dira.

Gure irakas iharduera gauzatzeko tresnarik baliagarriena, ikasturtean zehar modu globalizatzaile batean hartuz landuko ditugun unitate didaktiko desberdinak izango dira.

2.6. ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

Haurren aniztasun soziokulturalari, sexualari edo psikologikoari trataera integratzaile bat emango diogu:

- Aniztasun hori errespetatuz eta bultzatuz.
- Ezberdintasun hori neska-mutilengan zenbait gaitasun eta trebetasun garatzeko erabiliz.

Haurren partehartze aktiboa bultzatu, desberdintasunak adieraziz eta errespetatuz; sexu diskriminaziorik ez sortu, estereotipoak baztertu, hizkuntza erabiltzeko era zaindu, beharrezkoak diren curriculum egokitzapen indibidualak egin etab. izango da gure egin beharra.

2.7. HIZKUNTZ TRATAMENDUA

Gure ikastetxean euskara da eguneroko irakaskuntza-ikaskuntzarako egoera bideratzeko erabiltzen dugun hizkuntza.

Kontuan izanda gure haurren adinak (0-3), orohar ez dugu arazorik izaten. Dena den, ez dugu ahaztu behar H1 euskara ez duten haurrak ere baditugula, eta horiek hau eskolara etortzean duten adinaren arabera, modu desberdin batean erantzungo diotela erabateko murgiltze honi.

H1 euskara bakarrik ez duten haurren familiei inkestatxo bat pasatzen diegu lehen aldiz haur eskolara etortzean. Horren helburua, lengoaiaren jabetze prozesuan haurraren eragina izan dezaketen aldagaiak ahalik eta ondoen ezagutzea da. Datu horiek izan eta gero erabaki dezakegu haur bat ohizko murgiltze prozesua jarraitzeko gauza izango den, curriculum egokitzapen bat beharko duen...

Lehen aldiz haur eskolara etortzen diren 2 urteko haur erdaldunei “euskarako txokoa” deitzen dugun errefortzu berezi bat eskaintzen diegu 2. hiruhilekotik aurrera.

Txoko horretaz hezitzaile bat arduratzen da, eta bertan talde murriztu batean lan egiten da. Astean lau egunetan funtzionatzen du eta ordu erdiko saioak dira.

Haurrentzat esangurantsuak suertatzen diren ipuin etab. lantzen dira euskaraz, erabiltzen diren formak etab. kontrolatuz.

2.8. FAMILIAREKIKO HARREMANAK

Heziketa prozesu osoan garrantzitsua bada familia eta eskolaren arteko harremana, adin honetan derrigorrezkoa bilakatzen da.

Ez dugu ahaztu behar haur hauen heziketan familiak eta eskolak elkarlanean jardun behar dutela, hori lortzeko bide bakarra komunikazio on bat delarik.

Elkarren arteko harremanak bi motatakoak izango dira:

- Indibidualak.
- Taldekoak.

2.8.1. INDIBIDUALAK

Eguneroko harremanak eta komunikazioak (haurra ekarri-eramatekoan) protagonismoa bereganatzen badute ere, beste modu batzuk aurreikusi eta planifikatzen ditugu.

Lehen harremana, haurra eskolan hasi baino lehenagokoa dugu, non elkar ezagutzen garen, bakoitzaren haur taldearen xehetasunak azaldu eta haurraren ezaugarri pertsonalen berri ere izaten dugun.

Ikasturtean zehar ere haurraren garapenari buruz hitz egiteko banakako elkarrizketak izango ditugu, horien beharra geuk gurasoei adieraziz edo beraiek eskatuz.

Ikasturte amaieran, urteko gorabehera guztiak azaldu eta haurra nola joan den azaltzeko aukera izango dugu berriro.

2.8.2. TALDEKOAK

Ikasturtea hasi baino lehenago (uztailean) mailaka bilduko gara ikastetxearen funtzionamendua nolakoa den eta abar azaltzeko.

Abenduan, mailaka bilduko gara gurasoekin. Bilera horren helburua zera da:

- Moldaera prozesua nola joan den azaldu (zailtasunak, ezaugarriak...).
- Ikasturtean zehar, haur taldeari eskainiko zaion curriculum-aren berri eman.

2.9. ZERBITZUAK ETA GIZA BITARTEKOAK, ZEIN BALIABIDE MATERIALAK

Zarauzko udal haur eskolak honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- *Jangela*: Sukaldaria bertan dugu eta menu guztiak hemen elaboratzen ditugu.
- *Osasun zerbitzua*: Ikastetxeari orohar zuzendua, ez haur bakoitzari (bakoitzak badu bere pediatria). Mediki bat arduratzen da prebentzio gisa hartu behar diren neurriak seinaltatzen. Instalazioen higie baldintzak eta abarrekoak kontrolatzen ditu eta jangelako menuak gainbegiratu ere; hau da, osasun arauak ezartzen eta sortu daitezkeen arazo partikularrei erantzuten die.
- *Guraso eskola*: Aurreko ikasturtean jarri zen martxan, aurten ere jarraitzeko asmoarekin.

2.10. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

2.10.1. ORDUTEGIA

Ikastetxearen ordutegia goizeko 7:30etatik arratsaldeko 5etara da (praktikan 4:30etan ixten badugu ere).

- Sarrerak 7:30etatik 9:30ak bitartean egin daitezke, tarte hori sehasketan goizeko 10ak arte luzatzen delarik.
- Irteerak 11:30tan, 13etan edo 15etatik aurrera egin daitezke (bazkal aurretik, bazkal ondoren edo siesta ondoren).

2.10.2. EGUTEGIA

1997-98 ikasturterako honako hau dugu eskola-egutegia:

IRAILA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AZAROA

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	

ABENDUA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URTARRILA

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

OTSAILA

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28		

MARTXOA

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

APIRILA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	31	

EKAINA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

UZTAILA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		



Itxita



Irekita



Ikastetxea irekita egongo da, ezinbestekoa dutenentzat bakarrik. Beharrezkoa den eta ordezkapenez osaturiko pertsonal minimo batekin funtzionatuko du.



ITURBURU HAUR ESKOLAKO CURRICULUM PROIEKTUA

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Udal haur-eskola sortu zenean, (1977ko Azaroan) herrian zegoen hutsune sentitu bati erantzun asmoz hasi zuen bere ibilbidea, hau da, langile familiei laguntza eskaintzeko eta era berean haurrei sozializatzeko eta heziketarako esparru berriak eskaintzeko.

Ordutik honantza Iturburuko proiektua egoerari egokitzen joan da. Alde batetik, herri mailan sorturiko espektatibak areagotu egin du haur-eskolaren beharra. Badago haur-eskolaren aldeko jarrera bat, bai heziketa kalitatearengatik, baita euskalduntze prozesuari ematen zaion laguntzagatik ere, urteroko eskaeretan isladatzen dena.


Gizarte mailan eragina izan du, baita ere, 2 urteko haurren eskolatzearen joerak, eskaera berriak sortu direlarik horren inguruan.

1.1. OIARTZUNGO KOKAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

Oiartzun, Donosti aldean kokaturik aurkitzen da, Lezo, Pasaia eta Errenteriarekin batera *zonalde deprimitutako area gisa azaltzen delarik* (EHAA-1996ko Abenduak 23ko 1.eranskina).

OARSOALDEA, S.A. dela medio Industria berrindatzeko plan berezian sartua dago Jaur-laritzaren laguntzarekin. Honez gain badago baita ere eskualdea arlo guztietan indartzeko asmoa, enpleguaren arloan, hiri berriztapenean, turismoan, irakaskuntzan, euskararen arloan, etab. Hainbat ekintza amankomunean ematen ari dira aurrera, horren lekuko, besteak beste, Oarsoaldean planteaturiko Hizkuntz Normalizaziorako Estrategien Plana, tartean ikastetxe guztiak sartuak gaudelarik.

1.2. OIARTZUNGO BIZTANLEGOA



Ikus daitekeenez Oiartzungo biztanlegoa gorantz egiten ari da. Bailarako industriaren asentamendu garrantzitsua gertatzen ari da bertan eta 1981. urteaz geroztik eraikuntzaren hedapena ere maila berdinean ari da gertatzen. Etorकिनен kopuru handi bat bikote gazteez osatua dago.

Udalak garatutako “Barne Berrikuntzarako Eraketa Berezia” 2000. Urterako biztanlegoak izango duen hazkuntzaren ondorioz, 10.000 biztanlera iritsiko dela aurreikusten da.

Egoera guzti honek ekarriko digu piskanaka gure baliabideak ere gehitzen joatea haur-heziketaren alorrean.

1.3. ESKAINTZAREN HEDAPENA. PROIEKTU BERRIA

97/98 ikasturtean *proiektu berri bati emango zaio sarrera esperientzi modura. Bi urteko talde bat sortuko da* egun erdiz egongo dena bainan eguneroko ihardueretan adin berdineko beste haurrekin integratuko dena. Horretarako aldaketa batzuk egin behar izan ditugu, ordutegiaren inguruan, aktibitate banaketaren inguruan eta baita irakasle kopuruaren inguruan ere.

Proiektu hau beste ikastetxeekin elkarlanean sortu da. Haur-hezkuntzako 1. Ziklo osoari erantzutearen komenigarritasuna dago alde batetik eta bestetik, berriz, eskaintza publikoa gehitzen joateko premia.

1.4. ITURBURUREN IZAERA

Iturburuk planteatzen duen erantzukizun pedagogikoan kontutan hartzen ditu alderdi psikologiko, pedagogiko, sozial eta ekonomikoak ere. Bere lan ardatza haurren heziketa izanik, guraso eta orohar inguru sozialak planteatzen dituen beharrak hartzen ditu kontutan, ondorengo puntuetan azaltzen den moduan:

- *Haurraren heziketa*. Edozein kontsiderazioren gainera dagoena. Haurra da Haur-eskolako ardatza, helbururik nagusiena haurraren garapen osoa ahalbidetzea baita. Bertako ekintza funtsezkoena, beraz, pedagogikoa dela esan beharra dago.
- Haurraren heziketa *herriko kulturaren txertatzen da*: hizkuntza, ohiturak, tradizioak etab.
 - *Euskara* da Haur-eskolan erabiltzen den hizkuntza bakarra, modu honetan, gure hizkuntza mantentzeaz gain, familia erdaldunetako haurrak euskara ikastea lortzea da beste helburua. Ondorioz, euskaldunak ez direnei, euskal komunitatean integratzeko laguntza eskaintzen die Haur-eskolak.
 - *Eskola integratzailea* bideratuz, oinarrian du baita ere aniztasuna kontutan hartzea eta haurrak hezkuntzazikiotasunean hezitzea.
 - Herriak duen *nekazal tradizioa* haurraren txertatzearekin konprometitua dago baita ere hezkuntza proiektua.
- Haurraren heziketa *familiako heziketatik gertu* planteatzen da, haurrari bizitzeko espazio egoki eta orekatsu bat eskaintzen zaiolarik.
- *Haurraren eguneroko behar guztiak integratzen* dira: jolasa, harremanak, atsedena, elikadura... guzti horri antolaketa berezi batek erantzuten diolarik.
- *Langile familei* laguntza eskaintzea da beste helburuetariko bat. Beraien beharretara hobeto moldatzearen, eskolako zerbitzu ordutegia zabala da eta zabaltasun honen barruan egokitzen da haurrarentzat komenigarri den ordutegia.
- Herrian 0-3 bitarteko *haurren eskolatzeko hutsuneari* erantzutea eta *Erakunde Publikoak konprometitzea* erantzukizun honetan ere Iturburu Haur-Eskolak beregain hartzen duen beste eginbeharra da.
- Haur hezkuntzaren *ardura* Hezkuntza Administrazioaren eskuetan dagoela ulertzen dugu, horregatik haur hezkuntzaren eskaintza mantendu eta zabaltzeko hitzarmenak berekin egitera zuzenduko dira.
- Aurreko atalean esandakoak ez du kentzen *Eskola Komunitateak* bere gain hartu beharreko *ardura*, gestio, eredu pedagogikoa erabakitzea eta orohar Haur-eskolaren funtzionamenduari dagokion iharduera autonomo guztiarena.
- Iturburu Udal Haur-eskolak haur hezkuntzaren dohaintasuna defendatzen du, modu honetan bakarrik ziurta baitaiteke haur guztiek hezkuntzarako duten eskubideari erantzutea.
- Haur-eskolen proiektu orokorraren mamitzearekin konprometitua dago Iturburu Haur-Eskola, horretarako *Haur-Eskoletako Koordinakundearen lana* egiten duelarik.

Erabaki hauek isladatzen dituzten ekintzak dira Iturburuko proiektuak justifikatzen duen funtzionamendu era. Hara nola:

- Eguneroko iharduera pedagogikoa.
- Ebaluazio iharduerak.
- Gurasoekiko harremanak.
- Beste ikastetxeekin harremanak.

- Beste erakundeekin harremanak.
- Irakasleen prestakuntza.
- Barne funtzionamenduko koordinaketa.

1.5. HAUR TALDEAK

97/98 ikasturtean matrikulatutako *haurrak 40 dira*. Ihaz baino 8 haur gehiagori eman zaio sarrera, aurreko atalean aipaturiko proiektu berria dela eta.

Heziketa proiektua lau taldetan banaturik antolatzen da:

- Seasketako bi talde elkar koordinaturik (5 hurrekoak).
- Ertainak (10 haur).
- Haundiak (20 haur).

1.5.1. TALDETAKO ARDURADUNAK: IRAKASLE BANAKETA

Seaskak (1) ... Mari Jose.
Seaskak (2) ... Ainhoa eta Izaskun.
Ertainak Josune eta Idoia.
Handiak Rexu eta Koro.

Haurrak elkartzeko irizpidea adinarena da, taldeak urte berdinean jaiotakoek osatzen dituztelarik.

Seasketako bi taldeak “ertainetara” pasatzerakoan batu egiten dira.

Haurren garapenaren arabera, gelaren moldaketa, kalearen erabilpena, jostailuen aukeraketa eta gainontzeko bitarteko guztiek, haur taldearen une ebolutiboari erantzungo diote

1.5.2. EKINTZA ORDUEN SAILKAPENA

- 9ak bitartean haurren sarrerak eta lanketa. Haurrak bi taldetan banatzen dira: seaskak/arrastakakoak eta ertainak/haundiak.
- 9etan lau taldeen banaketa.
- 11ak bitartean taldetako lanketa berezia gela eta kaleko ihardueretan.
- 11/11,30etan bazkariak.
- 12,30/13etan siestak.
- 3/3,30etan merienda.
- 5ak bitartean lanketa/irteerak.

2. CURRICULUM PROIEKTUA

2.1. HELBURUAK

2.1.1. IKASTETXEKO HELBURU NAGUSIA

Iturburu Udal Haur-eskolaren eginkizun eta helburu nagusia Orik 3 urte bitarteko haurren heziketa eta garapen integrala lortzea da, beraz, nahiz eta bere antolamenduan zenbait zerbitzu eskaini (guraso gehienek ordutegira moldatzea adibidez) ikasturteroko antolamenduaren mamia haur ttiki horien heziketari erantzutea da. Haurraren ordutegia ez da beraz, haur-eskolako ordutegiaren berdina izango.

Haur bakoitzaren ordutegia erabakitzeke puntu horiek hartuko dira kontutan: Gurasoen beharrak, haurraren oreka emozionala eta haur-eskolako antolamendua iharduera pedagogikoari dagokionez.

2.1.2. LEHENENGO ZIKLO BUKAERAKO HELBURUAK

- Haurraren segurtasuna eta irudi positiboa landu, gero eta iharduera autonomoago eta bere buruarekiko konfidantzazkoaz balia dadin.
- Haurrak bere gorputza aurkitu, ezagutu eta kontrolatzen joatea, bere gaitasun eta trebetasunekin batera.
- Haurraren mundutik kanpo dagoen errealitatea aurkitzeko jakinmina piztu eta bere gaitasunen arabera, errealitate hori bere bizitzan ordenatzen eta ulertzen lagundu.
- Harreman sozialen esparrua zabaltu, elkarrenganako onarpen, konfidantza eta maitasunezko harreman markoa landuz. Era berean haurrari lagundu bere harremanezko estrategiak eraikitzen.
- Komunikazio/adierazpen bitartekoak garatu eta euskararen jabetza eta erabilera lortu testuinguru zabal batetan.

2.2. GARAPEN ARLOAK

Iharduera pedagogikoa haurraren garapen osoa lantzerantz zuzendua dago; hara nola:

- bere nortasun eta oreka pertsonala,
- bere sentimen eta mugimen gaitasunak,
- bere adimen edo inteligentzia,
- bere hizkuntza eta komunikatzeko gaitasunak,
- eta orohar gizarte harremanetarako trebetasunak.

2.3. ESPERIENZI EREMUA. IKAS EDUKIAK

1. Esperientzi eremua: nortasuna eta autonomia pertsonala:

1.1. JARRERAK, BALIOAK ETA ARAUAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Giro lasaiatz atsegina sentitzea. 2. Behar fisikoen erantzuna modu atseginez sentitzea. 3. Elikagai berrien piskanako onarpena. 4. Iharduerarekiko ekimena. 5. Mugimendu autonomoaren balorazioa. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sentimendu ezberdinak bizi eta adierazteko lasaitasuna. 2. Ariketa fisikoa eta arrisku kontrolatua maitatzea. 3. Autonomi hastapenetan (desplazamendua...) atsegintasuna. 4. Bakarrik jan eta gisako lehen portiera autonomoen zaletasuna eta gozamina. 5. Zailtasunak gainditzeko nahia. 6. Lankidetzaz jarrera. 7. Garbitasun arauen onarpena. 8. Esfintereen kontrolaren aurrean lankidetzaz jarrera 9. Esfintereen kontrolarekin atsegina sentitzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Norberaren mugak onartzeko jarrera. 2. Autonomia errazteko ohiturak erabiltzearen nahia. 3. Eskakizun autonomoak gainditzeko jarrera. 4. Higienea eta garbitasuna atseginitzea. 5. Besteen nahiak kontutan hartzeko jarrera. 6. Sentimendu ezberdinak bizi eta adierazteko lasaitasuna.

1.2. PROZEDURAK: GAITASUNAK, ESTRATEGIAK ETA OHITURAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Irakaslearen presentziaren ziurtasuna. 2. Larritasun ebolutiboetan laguntza. 3. Segurtasuna eta atsedenditako beharren erantzukizuna. 4. Elikadra eta atseginaldietako ordutegien piskanako erregulazioa. 5. Autonomi hastapenen onarpena. 6. Gorputz zentzumenen bizipenak. 7. Jolasa eta mugimendu beharrei erantzuna. 8. Gorputzaren menperaketa progresiboari arreta jarri eta ahalbidetzea. 9. Gorputzaren menperaketa progresiboari arreta jarri eta ahalbidetzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gorputz zetzumeen oharmenak. 2. Gorputz atalen oharmena. 3. Gorputz atalen bereizketa. 4. Gorputz ahalmenen oharmena. 5. Oreka eta erritmo lanketa. 6. Motrizitate zehatzaren hastapenen ahalbidetzea. 7. Autonomi emozioaletako hastapenez baliatuz, jokabide autonomoa ahalbidetzeko, behar den laguntza. 8. Iniziatibarekiko errespetoa ematea eta berau ahalbidetzea. 9. Aurrerapenen balorapen eta bultzada. 10. Autoafirmazioaren ondorioko ekintzak, kulpabilizatorik gabeko esperientzi bihurketak. 11. Gatazketatik irtetzeko laguntza hezigarriak. 12. Esfintereen kontrolaren lorpena 13. Sexu ezberdinen oharmena. 14. Jateko diren eta ez diren arteko bereizketa. 15. Arrisku egoeren lehen oharmenak. 16. Garbitasun arauen ezagupena. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gorputz atalen erabilpen diskriminatua. 2. Aurrerapenen balorapen eta bultzada. 3. Autoafirmazioaren ondoriokoekin kulpabilizatorik gabeko esperientzi bihurketak. 4. Gatazketatik irtetzeko laguntza hezigarriak. 5. Motrizitate zehatzean aurreratzeko trebetasun eskuraketa. 6. Egueroko behar tikiak (jan, jantzi, komuneratu...) bakarrik egiteko gaitasunen lanketa. 7. Sexu identifikazioaren lorpena. 8. Osasuntsuak diren eta ez diren arteko bereizketa. 9. Arrisku egoerak antzematea. 10. Osasunari lotutako arauen barneraketa. 11. Elikatzeko beharrezko tresnez baliatzea. 12. Gatazkak elaboratu eta bideratzeko laguntza. 13. Autokontrola ihardueren (txandak, itxarote guneak...) sistematizazioa.

1.3. KONTZEPTUAK: LEHEN INFORMAZIOAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Egokitzapena. 2. Segurtasuna. 3. Emozioak. 4. Osasuna. 5. Gorputza, ezagutza, kontrola, koordinaketa. 6. Jolasa. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Autoafirmazioa. 2. Autoestimazioa. 3. Autoirudia. 4. Oreka eta koordinaketa. 5. Lateralitatea, tendentzia. 6. Autonomia: <ul style="list-style-type: none"> – Ohiturak – Trebetasunak – Esfintereak 7. Gatazkak. 8. Arauak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Autokontrola. 2. Gorputz eskema. 3. Segmentuen kontrola. 4. Autokontrola.

2. *Esperientzi eremua: ingurune fisiko eta soziala:*

2.1. JARRERAK, BALIOAK ETA ARAUAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eguneroko espazioarekiko bizipen atseginak. 2. Guraso estola arteko harremanen konfidantza eta partehartze jarraia. 3. Inguruko gertaera eta egoerarekiko interesa. 4. Manipulazioaren atsegintasuna. 5. Inguru naturaleko bizipenen atsegintasuna. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eguneroko espazioa gaintzeko nahia eta jakinmina. 2. Elkarbizitzako ondorioaren poza. 3. Aurkikuntzen ondoriozko poza. 4. Esperimentazioko atsegintasuna eta jakinmina. 5. Inguruan gertatzen denarekiko jakinmina. 6. Inguruan mugitzeko arriskuen aurreko zuhertasuna. 7. Inguruak eskaintzen dizkigunez, (landare, fruitu...) gozatzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Elkarbizitzako arauen onarpena.

2.2. PROZEDURAK: GAITASUNAK, ESTRATEGIAK ETA OHITURAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eguneroko espazioarekiko segurtasun bizipenak 2. Guraso-hezitzaile-haurra, harreman zuzenak. 3. Irakasle-haurra, elkarrekintza iharduerak. 4. Piskanaka talde sentimenduaren sormenak. 5. Haurra/hurrekin elkar-bizitza iharduerak. 6. Propietate ezberdineko materiales bizipena. 7. Inguruan gertatzen denarekiko arreta pizteak. 8. Herri ohiturekiko lehen harremanak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eguneroko espazioa gainditu eta berreen bilaketa 2. Haurra/hurrekin elkarbizitza iharduerak. 3. Haurra beste irakasleekin elkarbizitza iharduerak. 4. Haurra besteen gurasoekin elkar-ezagutza iharduerak. 5. Talde bateko partaide izatearen jorrraketa. 6. Haurra beste irakasleekin elkarbizitza. 7. Haurrak beste gurasoekin elkarrezagutza iharduerak. 8. Elkarbizitzako estrategien lehen ezagupenak. 9. Sentsazio eta pertzepzioak sortarazten dituzten ondorioak antzematea. 10. Propietate batzuen oharmena. 11. Funtzio batzuen oharmena. 12. Esperimentazioko lehen urratsen erabilpena. 13. Inguruan gertatzen denarekiko oharmena eta arreta. 13. Ingurua errespetatzeko lehen oharmenak lortzea. 14. Auzoko inguru naturalarekiko bizipen sensorialak: eguraldia, abereak, landareak, etab. 16. Bizipen oharmena lortzea. 17. Auzoko personen ezagupen iharduerak. 18. Herri ohiturekiko parte hartzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskola espazioarekiko orientazio eta jokabide autonomia. 2. Irakasle-haurra-haurrak elkarrekintza iharduerak. 3. Elkarbizitzako estrategien erabilpena. 4. Ohitura eta arauen erabilpena. 5. Material ezberdinen esperimenzio iharduerak. 6. Herri ohiturekiko lehen harremanak. 7. Eguneroko espazioa gainditu eta berrien bilakera. 8. Ingurua errespetatzeko ohituren erabilpena. 9. Bizipenen oroimenean lortzea. 10. Auzoko espazioa gainditu eta berrien bilakera. 11. Garaian garaiko gertaeren ezagutza. 12. Gizaki bizidunen ohituren ezagutza. 13. Inguruko piskanakako ezagutza topografikoa. 14. Inguruko elementuekin esperimenzio iharduerak. 15. Auzoko bizilagunekin harreman iharduerak. 16. Herri ohiturekiko lankidetzaren mailako ekintzetan. 17. Gizarte antolaketako hainbat lanbideren ezagupena. 18. Urruneko errealitate berriekin harremanetan jartzea (besteazozak, hiria, beste abere motak, garrario kolektiboak).

2.3. KONTZEPTUAK: LEHEN INFORMAZIOAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Familia- Gurasoak. 2. Irakaslea: atxikimendua. 3. Eskolako espazioa: gela. 4. Materialaren erabilpena. 5. Taldea: bizipena. 6. Herri ohiturak: folklore bizipena. 7. Inguru naturala: haizea, abereak, eureka, zelaiak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Senideak. 2. Irakasleak + beste partaideak. 3. Beste gelak, identifikazio eta orientazioa. 4. Materialaren ezagupena. 5. Taldea, elkarbizitza. 6. Folklore eta ohituren ezagupena. 7. Inguru soziala: bizipen eta lehen harremanak. 8. Inguru soziala: bizipen eta lehen harremanak. 9. Inguru naturala: ezagupena + oinarrizko orientabidea. 10. Inguru naturala: arriskuak. 11. Inguru naturaleko elementu bizidun eta bizigabeak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kideen senitartekoak. 2. Eskola guztia, identifikazioa eta orientazioa. 3. Taldea, elkarrekintza. 4. Folklore eta ohituren partehartzea. 5. Antolaketa soziala. 6. Inguru naturaleko bizidunen ezaugarri eta ohiturak. 7. Baserritako elementuen ezaugarriak. 8. Ibilaldiak, orientazio, arriskuak, ohiturak.

3. Esperientzia eremua: komunikazioa eta errepresentazioa:

3.1. JARRERAK, BALIOAK ETA ARAUAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Komunikazioaren poza. 2. Arreta jartzearen balorazioa. 3. Haurra eta irakaslearen arteko so-lasaldi atsegintasuna. 4. Musitaren entzuketaren aurreko jarrera lasaia. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Besteei entzuteko jarrera. 2. Galderei erantzuteko interesa. 3. Ikus-ipuinez gozatzea. 4. Irudi munduaren balorazioa elkar hizketa eta hiztegi sormenean. 5. Gorputzez adierazteko gogoia. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Harremanetan parte hartzeko in-teresa. 2. Ipuien kontaktak entzun eta par-te hartzeko interesa eta gozame-na. 3. Adierazpen plastikoarekin atse-gin hartzea. 4. Sormenaren eta ekimenaren balo-razioa. 5. Kontzeptu munduak sorteen duen jakinmina.

3.2. PROZEDURAK: GAITASUNAK, ESTRATEGIAK ETA OHITURAK		
0-1	1-2	2-3
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskaerei erantzuna ematea. 2. Adierazpen modu ezberdinen erabilpena. 3. Adierazpen komunikazioei erantzuna. 4. Komunikazioko lehen urratsak (arreta, itxarote guneak...) lanke-ta. 5. Ahosketei hizkuntza balioa ematea. 6. Bakarkako harremanei arreta. 7. Imitazioazko eskaeren erantzuna (txalo, agur...). 8. Abestiak entzutea. 9. Mota desberdinetako musika entzutea. 10. Musika, erritmo bizipenak. 11. Komunikazioa. 12. Oinarrizko portaerak: arreta... 13. Oinarrizko ahalmenak: ahotsa... 14. Adierazpena. 15. Musika eta abestiak. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Inguru ezagunari dagokion hiztegia piskanaka gehitzea. 2. Haurriari entzun eta adierazteko aukera eskaintza. 3. Piskanaka ulermena gehitu eta hiztegia zabaltzea. 4. Adierazpeneko materialen lehen erabilpena. 5. Abestiak keinuen bitartez jarraitzea. 6. Musikaren aurrean keinuzko erantzunak. 7. Ozentasuna eta isiltasuna biziteko ekitaldiak. 8. Erritmo eta hotsen eraiketa, gorputz, objektu ea musika tresnekin. 9. Aho-hizkuntzaren adierazpen eta komunikazio tresna. 10. Ipuinak, irudiak. 11. Haur abestiak. 12. Musika: erritmoa, soinua. 13. Gorputz adierazpena, keinuak... 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza keinuz eta doinu ezberdinez aberastea. 2. Elkarrizketa, deskribapenak eta istorio laburren kontaktetaz baliatzea. 3. Adierazpenek materialen ikerketa eta erabilpena. 4. Abestiak ikasi eta abestea. 5. Erritmo ezberdinekiko erantzun egokia. 6. Soinuaren luzera bizitzeko ekitaldiak. 7. Objektuen propietateen (forma, testura...) piskanakako asimilazioa. 8. Zenbakien erabilpenaz jabetzeko hastapenak. 9. Kolore bereizketa. 10. Objektuen arteko erlazioak ulertzen hastea. 11. Denborazko lehen kontzeptuen ulermena. 12. Kontaketa, azalpenak eta elkarrizketak. 13. Abesti herrikoiak 14. Musika, ozentasuna, intentsitatea, luzera... 15. Adierazpen plastikoa. 16. Adierazpen matematikoa: kontzeptuak, espazio orientabide errazak...

2.4. TALDE BAKOITZEAN KONTUTAN DITUGUN EZAUGARRIAK

- 3-9 hilabete: *Emotibitatearen lehentasuna.*
 - Erantzun puntualaren beharra.
 - Zentzumen eta komunikazioaren esnatzea.
 - Oralitatearen aldia.
 - *Zailtasun bereziak:*
 - Titikentze/janari aldaketa.
 - 8 hilabetetako larritasuna.
 - Arrotzen beldurra.
- 9-18 hilabete: *Atxikimendu irudiaren ezarketa.*
 - Desplazamendua.
 - Komunikazio arloan hitzaren sorrera.
 - Imitazioa.
 - Haurra ekintzaren subjektu.
 - *Zailtasun bereziak:*
 - Arrotzen beldurra.
 - Atxikimendu irudia galtzeko beldurra.
 - Hortz ateratze prozesua.
- 18-24 hilabete: *Ni-aren aurkikuntza. Autoafirmazioa.*
 - Ezkortasun garaia.
 - Errepresentazioa.
 - Hizkuntza.
 - Imitazio gogoratua.
 - Ekintza.
 - Analitatearen aldia.
 - Esfintereen kontrola.
 - *Zailtasun bereziak:*
 - Mugak.
 - Gizarte eskakizunen onarpena.
 - Anbibalentzia.
 - Taldearen sarrera.
 - Ezpak.
- 24-36 hilabete: *Autonomia.*
 - Hizkuntza komunikazio tresna
 - Gorputz kontrol haundia.
 - Motrizitate zehatza.
 - Joko sinbolikoa.
 - Talde joko.
 - Arrazonamendua.
 - Inguruaren etengabeko aurkikuntza.
 - Genitalitatearen aldia.
 - Sexu identifikazioa.
 - *Zailtasun bereziak:*
 - Autoafirmazioa.
 - Independentzi krisia. Kasketak.
 - Ezpak.

2.5. EBALUAZIOA

Ebaluazioa sistematizatua dago haur-eskolan. Haur bakoitzari jarraipen indibiduala egiten zaio bere garapen alderdi guztiak kontutan hartzen direlarik.

Ebaluaziorako baliabide nagusia behaketa da, portaerak, aurrerapen edo zailtasunak, eta orohar gorabehera guztiak erregistratzen joaten garelarik. Behaketatik lortzen dugunari guraso-engandik jasotzen ditugun informazioak eranstean zaizkio.

Interpretazioak beste irakasleekin kontrajartzen dira, modu honetan subjektibitateak kontrolatzen saiatzen garelarik. Honetaz gain gurasoekin ere komentatzen dira, aldian aldiko informazio trukaketetan.

Ebaluazioaren helburua haurraren garapenerako laguntza-tresna izatea da, jarraipen iraunkorra eginik, heziketarako ebaluazioa izan dadin.

Egiten dugun ebaluazioaren zehaztasunak *Jakingarriak* aldizkarian (29. zenbakia) argitaratu genituen 1995.eko martxoan, “Behaketa, ebaluaketa eta kontatzeko batzu” artikuluan.

2.6. METODOLOGI IRIZPIDEAK

Iturburu Udal Haur-eskolan, *haurraren globaltasuna* hartzen da kontutan. Horregatik haurraren bizitzari zentzu integratzailea eskuratuko dion iharduera mota planifikatzen da, baldintza hauek kontutan hartuta:

- Irakaslearekiko atxikimendu emozionala ziurtatzea.
- Jostaketari lehentasuna ematea.
- Iharduera libreari denbora gehiena eskaintzea.
- Behar fisikoak (jatea, lo egitea, garbitzea...) aurraren hezitzaileak betetzea.

Irakasle berdinen jarraipena: adin hauetan afektibitateak duen garrantzia kontutan harturik eta haurraren garapenean hausturarik gerta ez dadin, irakasle berdinen jarraipena ezinbestekotzat jotzen dugu; beraz, seasketan hasten diren irakasleetatik batek bederen, hiru urteko prozesu guztia eramango du talde berdinarekin.

Helburu garrantzizko bat izanik haurra bere familia ez den gune sozial berri bateko partaide sentitzea, Haur-eskolaren baitan dago, alde batetik, haurraren egokitzapen on bat bideratzea eta bestetik baita ere, eskola komunitate osoaren elkartze moduak bermatzea eta inguru sozialaren ezagutza zuzena ahalbidetzea. Bere lan planifikazioan leku egingo dio:

- Haur bakoitzaren egokitzapen prozesoa errespetatu eta jarraipen indibiduala egiteari.
- Haur-eskolako haur guztiak elkar ezagutzeari.
- Irakasle eta orohar haur-eskolako lankide guztiekin harremanak ezar ahal izateari.
- Beste haurren gurasoekin harremanetan jarri ahal izateari.
- Auzokideak ezagutu eta beraiekin harreman ezartzea ahalbidetzeari.

Eguneroko bizipenaz baliatu (jolas iharduerak, elikatze, higiena eta atsedeen iharduerak barne), guztiari balio hezigarria emanaz.

Esperientzi biziak eta errealak egitea. Gure zentroa nekazal inguruan kokatuta dagoenez, inguruaren aprobetxamenduak heziketarako eskaintzen dizkigun baliabide guztiak hartzen ditugu kontutan. Honen arabera haurren heziketa biziagoa eta aberatsagoa gerta dadin, gela barruan egiten diren ariketei baino garrantzi haundiagoa ematen diegu ingurutik jasotzen ditugun esperientziei. Ondorioz, irteera guztiak gure proiektu eta lan diseinuan txertatuta aurkitzen dira.

Honetaz “Aprovechamiento curricular del entorno” artikulua argitaratu genuen *In-fan-cia* aldizkarian, 1995.eko uztaila-abuztuan.

Irteeretan planteatzen ditugun helburu orokorrak hauek dira:

- Haurren heziketari, naturarekin harreman hestuan hasiera eman, duen dimentsio osoan natura aurkitu eta bizituz.
- Giro natural, kontestualizatu eta integratzaile batean ezagutza jaso, bakoitzari garapena bere interesetatik eta heldutasun mailatik abiatuz ahalbidetuko zaiolarik.
- Esperientziak aberastea era aurrerakor batean, bai kopuruan baita aniztasunean ere.
- Harreman sozialen esparrua zabaltzea haurrari, auzokideen harremanetatik abiatu eta ingurua gainditzen duen beste errealitateak ezagutzera iritsiz.

2.6.1. ADINEZ ADIN

- *3-9 hilabete: Desplazatzeko autonomiarik gabekoak.* Osasunarekin eta ongizatearekin zerikusirik duten iharduerak.
- *9-18 hilabete: Taldean garraiatu ahal direnak.* Aurrekoaz gain, zentzumenen esperientziazioa eta oinarrizko mugimen eta mintzaira iharduerak.
- *18-24 hilabete: Desplazatzeko autonomia dutenak.* Motrizitatea finkatzearekin, hurbileko ingurunea aurkitu eta dituen ezaugarri eta propietateak identifiktzearekin, harreman sozialei hasiera ematearekin, hiri-portaerari buruzko ohitura eta araei sarrera ematearekin, eta mintzaira, inteligentzia, sinbolismo eta kontzeptualizaioaren garapenarekin zerikusia duten iharduera motak.
- *24-36 hilabete:* Aurrekoen esperientziak zabaldu eta auzotik irtenda inguru berri bat deskubritzearekin zerikusirik duten iharduerak.

2.7. GURASOekin ELKARLANEAN JARDUTEA

Heziketa-lana gurasoekin mantentzen den harreman eta kolaborazioan oinarritzen da, be-raiekin konpartitzen dugu eguneroko iharduera. Iturburuan jasotzen duen heziketa benetan orekatsua gerta dakion haurrari, ezinbestekotzat jotzen dugu gurasoekiko harremana eta elkarre-kintza: Elkarrizketak, eguneroko informe idatziak, bilerak etab., antolamendu orokorraren barruan kontenplatu dira.

Honetaz gain gurasoek badute eskola antolamenduan parte hartzeko bideak, hara nola, Asanblada eta Eskola Kontseilua.

Gurasoekiko lankidetzaz honetaz artikuluko pare bat argitaratuta ditugu *In-fan-cia* aldizkarian. 1991.eko iraila-urrian “El cuaderno diario. Una experiencia de relación con padres en la escuela infantil” eta 1996.eko iraila-urrian “Familia-escuela: una responsabilidad compartida”.

3. ZERBITZUAK, PERTSONAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Baliabide pertsonalak

- Irakasle-tutoreak: 6,5.
- Zuzendari-administrariak: 0,5.
- Sukaldariak: 1.
- Garbitzaileak: 1.

Eraikuntza

Eraikuntzaren egitura, baserri antzekoa da. 1975 arte auzoko eskola izana, 1977az geroztik Haur-eskolara egokitua, orduz geroztik egingizun horretarako bakarrik erabili delarik.

- Azalera: erabiltzen den azalera, guztira 343,5 m²koa da, hiru solairutan banaturik.
- Banaketa:
 - Beheko solairua:
 - 2-3 urtekoen gela (komuna barne),
 - bulego/bilkura gela,
 - jolas lekua,
 - material gela.
 - 1. solairua:
 - sukaldea,
 - 0-1urtekoen iharduera gelak (2),
 - urtekoen logela,
 - 1-2 urtekoen gela,
 - haurren komuna,
 - irakasleen komuna.
- Oharrak:
 - Gela guztiek dute higienerako espazio egokiak: Ur hotza nahiz beroa duten garbiketa guneak, haurrak aldatzeko lekuak, etab.
 - Urte bitarteko lotarako gela berezia.
 - Otorduak eta loaldiak talde bakoitzak bere gelan egiten ditu.

3.1. ESPAZIOAK: BANAKETA ETA MATERIALAK

3.1.1. 0-1 URTEKOEN GELA

Haur horien jarduerarako hiru gela erabiltzen dira:

— Seaskekin ornitutako logela

— Mugitzen ez direnen jarduera gela:

- hamakak, koltxonetak, burukiak...,
- jostailu sentsorialak,
- garbitasun/higiene gunea.

— Katukarien gela:

- altuera ezberdineko bitartekoak: barra, koltxonetak, mahaia...,
- jostailu sentsorialak,
- mugimen iharduerako jostailuak: arrastreak, pilotak, gurdiak,
- esplorazio/esperientziak egiteko jostailuak kubo, uztai, turutak, mugimendu moduluak,
- hizkuntzarako ipuinak, irudiak etab.

Espazioaren antolaketa aldetik:

- garbitasun/higiene espazioa,
- sartu/aterean ibiltzeko txokoa,
- lasaitasun txokoa (ispilua, koltxonetak, burukiak),
- bazkaltzeko txokoa: mahaia, aulkiak.

Oharrak:

- beharrezko moldaketak egin ondoren, espazio ber-bera erabiltzen da haurren loalditarako.

3.1.2. 1-2 URTEKOEN GELA

Gelako espazioaren antolaketa:

- Etxearen txokoa.
- Iharduerako txokoa.
- Iharduera mugikorra eta. zarranbiloa, mahaiak eta aulkiak.
- arbitasun/higiene txokoa.

Oharrak:

- Beharrezko moldaketak egin ondoren, espazio berbera erabiltzen da haurren loalditarako.

Materiala:

- Hizkuntzarako:
 - Ipuinak,

- Muralak,
- Laminak.

— Zentzu/motrizitaterako:

- Joko heuristikoa bideratzeko materiala:
 - Pilotak,
 - mailuak,
 - buztina, plastilina, gometsak, margoak,
 - mahai, aulki,
 - zarranbiloa,
 - kajak, arrastreak.
- Joko logiko eta eraikuntzarakoak:
 - Esplorazio/aurkikuntza egiteko material ez zehaztua (joko heuristikokoa),
 - egur takoak, legoak, ...
 - enkajeak, lotoak.
- Joko sinbolikorako:
 - Panpinak,
 - kotxeak,
 - telefonoak,
 - sukaldeko ontziak,
 - jantziak.
- Musika eta erritmorako:
 - Kasetea,
 - xilofonoak,
 - turutak,
 - danborrak.

3.1.3. 2-3 URTEKOEN GELA

Espazio antolaketa:

— Txokoak:

- Etxea eta panpinen txokoa.
- Sukaldearen txokoa.
- Ipuin/hizkuntzaren txokoa.
- Adierazpen plastikoaren txokoa.

— Bestelakoak:

- Jarduera librearen gunea.
- Garbitasun gunea.
- Komuna.

Oharra: Behar diren moldaketak egin ondoren, espazio ber-bera erabiltzen da haurren lolditarako.

Materiala:

— Joko sinbolikorako:

- Etxea, panpinak eta arropak.
- Sukaldea, ontziak.
- Botikina.
- Mozorrotzeko materialak.
- Telefonoa, kotxeak, etab.

— Adierazpenerako:

- Arbela,
- plastikarako materiala,
- buztina, plastilina...,
- musika/dinamikarako materiala,
- txotxongiloa,
- ipuinak.

— Joko logiko eta eraikuntzarakoak:

- Enkaje/puzzle,
- lotoak,
- bloke logikoak,
- legoak, Nopper, egur takoak...

— Mugimen iharduerarako:

- Txirrista,
- aulkiak, mahaiak...,
- guraize, puntzoiak...,
- ensartatzeko bolak,
- gometsa, itsaskia...

3.1.4. SUKALDEA

Haur-Eskolako otordu guztiak bertan prestatzen dira.

3.1.5. KANPOKO ESPAZIOA

Kanpoko espazioak 44 m² ditu. Espazioaren urritasuna auzoaren erabilerarekin konpentsatzen da. Nekazal inguruko erdigune txiki batean baitago kokatua Haur-Eskola.



**IRUNGO HAUR ESKOLAKO
CURRICULUM PROIEKTUA**

1. HAUR ESKOLAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Udal Haurtzaindegiaren Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua eta etorkizunerako Antolamendurako eta Funtzionamendurako Araudia prestatzen hasi garenez, lehen urrats gisa komenigarria iruditu zaigu zentroa definitzen eta egituratzen duten nondik norako eta alderdi nagusiak jasotzea Jardueren Hezkuntza Proiektuan. Abiapuntutzat hartu ditugu Zerbitzuko zuzendariak 1993ko ekainean egin zuen eta orain arte landu den orientabidea eta lan-mota pedagogikoa laburtzen dituen txostena, baita, jakina, joan zen 1996/97 ikasturteko Jardueren Hezkuntza Proiektua ere.

Hezkuntza proiektu bat prestatzeko orduan, ohartu behar dugu zentroa osatzen duten estamentu guztien arteko artikulazioa beharrezkoa dela eta ez duela guztia hezkuntza-taldeak egin behar. Gaur egun gure zentroak ez du gurasoen partehartze definitu eta egonkorrik eta hori dela eta, alderdi hori izango da jada aipatutako Antolamendurako eta Funtzionamendurako Araudiaren funtsezko elementuetariko bat.

Haurtzaindegia udal-zentroa denez, badu berezitasun bat: bai kudeaketari, bai funtzionamenduari dagokienean, udal-organoen laguntza eta kontrola izango du, eta, batez ere, Hezkuntza, Kultura, Kirol, eta Gaztedia Atalarena, atal horren barruan baitago haurtzaindegia.

1.1. IHPA JUSTIFIKATZEN DUTEN BEHARRAK

LOGSE Legea aintzat hartuta, 0-3 urteen arteko aldia hezkuntzako alditzat jotzen denez, alderdi guztiei dagokienez, Haurtzaindegia Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxeekin partekatu behar da. Helburu horrek lehentasuna izan behar duen, eta, horrenbestez, 1997/98 ikasturterako Jardueren Hezkuntza Proiektu honetan oinarriak ezartzen dira, alderdi pedagogikoari nahiz barne-antolamenduari dagozkionak.

Zentroaren helburu nagusia hezkuntza-sarearen lehen maila izatea da. Maila horretan haurra espazio propio, pribilegiatu eta egoki batean egongo da harmonian eta askatasunean heltzeko, garatzeko eta gizarteratzeko. Gizakiarentzat bere egituratze psikologikoaren eta pertsonalaren eta gizaki orekatu, aske eta zoriontsu baten etorkizunaren oinarriak finkatzeko lehenengo urte horiek duten garrantzi ikaragarria dugu abiapuntutzat.

Gizakion bizitzan ezinbesteko baldintza da: jaioberriak eta haurrak ezin dira helduen maitasuna, laguntza eta zaintza jaso gabe bizi, eta hor ikusten da bizitzako lehenengo urte horietan

sortutako harremanak behar-beharrezkoak, oso garrantzitsuak, ezinbestekoak eta ordezkariak direla. Horien kalitatearen eta egokitasunaren araberakoa izango da, neurri handi batean, haurrak gero zoriontsu, aske eta orekatu izatea. Garai horretan hutsuneak eta ase gabeko beharrik egonez gero, oso arazo larriak sor daitezke gero. Beraz, adi egon behar dugu beti eta, zerbait ikusiz gero, lehenbailehen zuzendu eta konpondu. Bestela, arazoetako batzuk konponezinak izango dira aurrera begira, edo, gutxienez, zailak gainditzeko. Ez dugu hori inoiz ahaztu behar.

Hola-hala, patologia edo/eta gabeziaren bat ekar dezaketen arazoak saihestu behar ditugu. Aitzitik, eboluzio positiboa eragingo duen lana egin behar dugu. Aukerak, erreferentziak, estimulu garrantzitsuak eskaintzen ahaleginduko gara, hutsuneak betetzen eta desberdintasunak orekatzen.

Lehen haurtzaroen kalitatezko arreta eta hezkuntza eskaintzea, horixe izango da nagusiki Irungo Udal Haurtzaindegia betebeharra.

Ez dugu ahaztu behar haur hori izaki soziala dela. Hori dela eta, ezingo ditugu bere familiariko eta gizarteko eremuak alde batera utzi. Horrenbestez, gurasoak (edo horien ordezkariak) beti izango dira eredu eta euskarri izateko ezinbesteko pertsonak. zentroak horiei lagundu behar die, hain zuzen ere, eta horiek osagarri izan behar du. Alabaina inoiz ez ditu horiek ordeztuko, baztertuko edo protagonismoa kenduko.

Gainera, haurrak bere inguruko gizartean integratuta bizitzeko aukera izan behar du eta gizaki aktibo, kritikoa, autonomo eta sortzailea izatea ahalbidetuko dioten jarrerak eta gaitasunak garatu behar ditu.

Horiek horrela, honakoak izango dira zentroaren helburuak:

— Aipatutako esparruetan ondoren adierazitako taldeen interesak, beharrak eta eskubideak aintzat hartuko dituen hezkuntza-esparru bat sortzea:

- *Haurrenak*. Esparruak:
 - Afektibitatea, gizartea.
 - Ezagutza, adierazpena eta sormena.
 - Espazioak, sortzeko, elkarbanatzeko eta jolasteko lekuak.
 - Desberdintasunen integrazioa eta konpentsazioa.
- *Gurasoenak eta familienak*
 - Lan-esparrua:
 1. Emakumearen integrazioa ahalbidetzea.
 2. Senar-emazteek lan egitea ahalbidetzea.
 - Gizarte-esparrua:
 1. Familiaren egitura aldatu izanak sortutako premiak osatzea.
 2. Jarduteko bideak eta ereduak eskaintzea.
 3. Gurasoak prestatzea.
- *Komunitatearenak*:
 - Desberdintasunak konpentsatzeko.
 - Kultur eta gizarte-balioak transmititzeko.
 - *Euskara* berreskuratzeko eta normalizatzeko.

— Behar eta interes horien erantzun orekatuak bilatzea, haurren eskubideak kalte gabe, izan ere, eskubide horiek babestea izango da irizpide nagusia.

- Hezkuntzako sare publikoan parte hartzea 0-6 urte arteko haurren etapa eskainiz hiriko haur-hezkuntzako ikastetxe publikoekin batera egindako egitasmoan.
- Heziketa-taldearen etengabeko prestakuntza, hezkuntza-etapa honetan sortzen diren premiei eta beharrei erantzuteko bide bakarra baita.

1.2. FAMILIEN KULTUR, GIZARTE- ETA EKONOMIA- BALDINTZAK

Gure zentrorra datozen haurrak maila sozioekonomikoen abaniko zabal bateko (eremu marginaletako, langile-mailetako, erdiko mailetako, erdi-goiko mailetako) kide dira eta hainbat kultura eta etniatakoak dira (nahikoa ohikoa izaten da Irunen jendea aldi batean bizitzea, baita emigranteak eta gutxiengo etnikoak bertan finkatzea ere). Hori dela eta gure ikasleek osatutako taldea heterogeneoa da eta aniztasun-erreferentzia aberatsak ditu.

Zentrorra etortzen diren hirurogeita hamar ikasleak hirurogeita lau familiatakoak dira. Horietako lauk bi anai-arreba bidaltzen dituzte haurtzaindegira eta beste batek hiru.

Egoera ekonomikoari dagokionez, bederatzi familiak urtean milioi bat pezeta baino gutxiagoko diru-sarrerara dutela aitortu zuten. Bost familiak milioi eta milioi eta erdi arteko diru-sarrerak dituztela eta hamahiru familiak bi milioi eta bi milioi eta erdi artean jaso zutela adierazi zuten. Bestalde, hamabost familiak adierazi zuten bi milioi eta erdi eta hiru milioi arteko diru-sarrerak zituztela. Azkenik, hogeita bi familiak hiru milioi pezeta baino gehiagoko diru-sarrerak dituzte. Zerbitzuko prezio publikoetan hori denez zati maximoa, ez ditugu bereizi zenbaterako hori baino diru-sarrera handiagoak.

Gizarte-ezaugarriei dagokienez, azpimarratzekoa da zazpi familia guraso bakarrekoak direla. Bestalde, lan-egoerari erreparatuz gero, berrogeita zortzi familian biek lan egiten dutela gehi dezakegu. Horien artekoak ditugu aipatutako guraso bakarreko familiak, izan ere, horietan heldu bakarrak egiten du lan. Hamahiru familian bietako batek bakarrik egiten du lan. Guraso horien arteko bost langabezian daude, eta gainerako zortziek ez dirudi printzipioz behintzat lan-munduan sartzeko asmorik dutenik. Azkenik, hiru familian, biak –edo bat, bakarra den kasuan– daude lanik gabe.

Bestalde, aipatzekoa da ez dela gurasoen ikasketa-mailaren inguruko daturik erregistratu eta, hori dela eta, baldintza kulturali dagokienean garrantzitsutzat jo den datu bakarra familiako euskararen presentzia eta erabilera izan da. Datu horien arabera, hirurogeita hamar ikasleetatik hamar euskaldunak dira, hemeretzi elebidunak, hogeita zazpik oinarrizko euskara maila dute eta beren ama-hizkuntza gaztelania da; hamalau gaztelaniaz bakarrik mintzatzen dira. Dena dela, datu horiek adin bakoitzean hurrek duten gaitasunaren arabera ulertu behar dira. Adibidez, bi urte baino gutxiago dituen haur batek oso noizean behin bakarrik esango ditu aditzak, aitzitik, mezuak ulertu eta horiei erantzun ahal izango die.

Hirurogeita lau familietatik zazpik haurrari euskaraz bakarrik hitz egiten diote, hogeita bik bi hizkuntzetan, zazpik mezuren bat igortzen diete euskaraz eta hogeita zortzik gaztelaniaz bakarrik hitz egiten diete seme-alabei.

1.3. PROIEKTUAREN ESPARRUA

Irungo Udal Haurtzaindegia Uztapide Bertsolariaren kaleko 1. zenbakian egoitza duen zentroa dugu eta Haur Hezkuntzako zikloa, 0-3 urte artekoa ematen du 1.986-1987 ikasturteaz geroztik, hau da, ireki zenetik.

Haurtzaindegia Irungo Udalaren menpekoa da, izan ere, ireki zenetik 1992ko abendua bitartean Osasun eta Ongizate Sailari atxiki zitzaion. 1993ko urtarriletik aurrera Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gaztedia Sailari atxiki zitzaion. Horrenbestez, titulartzat administrazio publikoa duen zentroa da.

Haurtzaindegiaren lurralde-esparrua Irun udalerriarekin bat dator, izan ere, hori da udal zentro bakarra eta gure udalerrian Haur Hezkuntzako lehen zikloa osorik eskaintzen duen zentro publiko bakarra. Hori dela eta, bertan sartzea eskatzen duten haur guztiak hartzen ditu, beti ere dagokion mailan plazarik bada. Gehienezko ikasleen kopurua hirurogeita hamar izango da (dena dela, kopuru hori hirurogeita hamabira arte zabal daiteke).

Horrenbestez, kultur, gizarte- eta ekonomia-baldintzak 55.094 biztanle dituen eta azken bost urteetan %3.56ko igoera positiboa izan duen hiri bati dagozkionak dira. 1996ko abenduan Irungo langabezia-tasa %16,12koa zen INEMen datuen arabera. Garai berean Gipuzkoako Lurralde Historikoko tasa %12,57koa zen eta EAEkoa %13,51koa. Langabetu-talderik zabalena emakumeena da, langabetuen %59 baitira eta beren langabezia-tasa %26koa da. Halaber, biztanleriaren erdia baino gehiago dira eskola graduaturik ez dutenak. Bertako jaiotza-kopurua urteko 450 haurren ingurukoa izan da azken bost urteetan. Gainera, joera kopuru hori gainditzekoa izan da.

Biztanleriaren baldintza horiek kontuan izanik, haurtzaindegian sartzeko irizpideak ezar-terakoan nahiz Udalaren Osoko Bilkurak urtero onartutako prezio publikoak finkatzerakoan, egoerarik txarrenetan dauden familien aldeko diskriminazio positiborako aldagaiak hartu dira aintzat. Hori dela eta, prezioak diru-sarreraren arabera ezarri dira, eta ildo horretatik, doan ere izan daiteke. Halaber, sartzeko erraztasunak emango zaizkie egoera ekonomiko txarrenetan dauden ikasleei, batez ere, guraso bakarreko familietakoei.

97/98 ikasturterako prezio publikoei dagokienez, azpimarratzekoa da Udalak zentroaren hezkuntza-izaera dela eta zatiak egokitzeko egin duen ahalegina, gisa horretan udalerriko biztanle guztiei sarbidea ahalbidetuz.

1.4. IKASLEAK

Eskolak 70 ikasle hartzen ditu.

1.4.1. NESKA-MUTILEN KOPURUA ADINEN ETA TALDEKATZE-IRIZPIDEEN ARABERA

Ezarri diren helburuak lortu nahi izateak lorpen hori ahalbidetuko duen zentroaren antolamendu-egitura planteatzea eskatzen du.

Hori dela eta, ikasleen banaketak, ezarritako mailek, ratioek, profesionalek, funtzionamendu-ordutegiak, egutegiak, koordinazio-modalitateak, eraikinak, bulegoek eta abarrek lortu asmo dugun hezkuntzari eusteko habeak eta aldamiok osatuko dituzte.

1.4.1.1. Taldeen banaketa, mailak eta ratioak

Adin hauetan (0-3 urte) hilabete gutxi batzuetan alde handiak eta garrantzitsuak izaten dira, eta guretzat oinarritzko printzipioa izango da hori gogoan izatea. Izan ere, adin horietan aldi laburretan lorpen handiak egiten dira, eta, hori dela eta, ez dugu (0-1) - (1-2) - (2-3) banaketa gure egingo.

Hamabi hilabeteko aldeak handiegiak dira hezkuntza-eskuhartze egokiak egiteko. Hori dela eta, taldeak 4 edo/eta 7 hilabeteko aldeekin ezarriko dira.

Erreferentzia-adin gisa hurrek irailean dutena hartuko dugu eta, horrenbestez, banaketa honakoa izango da:

MAILAK	NESKA-MUTILEN KOPURUA	ADINA (HILABETEAK)	GELAREN IZENA	HEZITZAILEEN KOPURUA
	<i>gelako</i>	<i>irailean</i>		<i>gelako</i>
Sehaskakoak	10	3rik 10era	Sehaskakoak	2
	8	11tik 15era	Txikiak 1	1
Txikiak				
	8	16tik 20ra	Txikiak 2	1
Erdikoak	12	21etik 24ra	Txikiak 3	1
	16	24 baino gehiago	Handiak A	1
Handiak				
	16	24 baino gehiago	Handiak B	1
Integrazioa	?	?	?	1

Ez dago integrazio-gelarik —hori begi-bistakoa da adina kontuan izanik—, baina bada hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrei arreta eskaintzeko aukera. Gelan eta egoki irizten den mailan integratuko dira, adinaren eta kasuaren azterketaren eta diagnostikoaren arabera. Integratzeko haurren bat baldin bada, integratuko den gelako haurren kopurua murriztu egingo da, haur bat gutxiago izango da eta.

Horrenbestez, hiru *maila* ezarriko ditugu, hainbat jarduera, jarduteko modu eta material-mota koordinatu eta elkarbanatuko dituztenak. Horrek —mailako— erreferentzia-pertsona bat baino gehiago izatea ahalbidetuko du. Bada, honakook izango dira maila horiek:

- Sehaskakoak.
- Txikiak.
- Handiak.

Txikien 3. gela nagusiki *handien A eta B* geekin koordinatuko da, baina beste alderdi bazuei dagokienean *txikien 2.* taldearekin koordinatuko da, izan ere, maila hau beste bien arteko zubi dela uste dugu. Hala eta guztiz ere, dituen ezaugarriak kontuan izanik talde eta maila definitu gisa antolatzea egoki dela iritzi dugu.

Banaketa horrek honako aukera hauek eskaintzen ditu:

- Arreta eskaintzea eta banakako harremana eta haurren premien eta gaitasunen arabera-koa ahalbidetzea.
- Hezkuntza-eskuhartze egokiak ahalbidetuko dituzten ratio batzuk determinatzea.
- Haurrek benetan dituzten erritmoen, aukeren, premien eta gaitasunen arabera-ko hezkuntza-jarduerak eta -eskuhartzeak programatzea.
- Hezkuntza-arreta eta -ekintza erraztuko dituzten gertaera ebolutibo garrantzitsuak eta nabarmenak aintzat hartzea.

Sehaskakoen mailari dagokionez, badirudi egokia dela bi hezitzaile izatea. Hona hemen horren arrazoiak:

- Adin horietan (3-10 hilabete) ez-ohikoak diren pertsonen aldaketek banakako harreman egokiak eragozten dituzte. Hori dela eta, ahal den neurrian aldaketa horiek saihestu egin behar dira.
- Helduaren presentzia beharrezkoa da segurtasuna eskaintzen duen erreferentzia gisa.
- Talde honek, begi-bistako arrazoiak direla eta, ez du ordutegien erritmo uniformerik (atsedena, jarduera, otordua eta abar). Horrek gela berean hainbat eremu izatea eskatzen du: jolasteko, garbitzeko, atsedenerako gunea eta jangela.

Bi hezitzaile izateko aukerak honako ondorio hauek ditu:

- Ordutegiei dagokienez, 2 pertsonaren artean 8-8:30etik 16-16:30era langile-aldaketarik egin gabe moldatzeko adinako arreta eskain dezakete. Hori dela eta, talde horren arreta egun guztian zehar ia bi pertsona horien kargu bakarrik egongo da.
- Jarduera edo erabiltzen den espazioa edozein izanik ere, presentzia eta zaintza ziurtatuta daude.
- Hainbat egoera aurreikusiz (gaixotasunengatiko baja, baimenak, oporrak), taldearen koordinatuak eta erritmoak antolatuko dituen pertsona ezagun baten presentzia ziurtatzen da.
- Ondorengo ikasturteei begira, taldea adinaren eta heldutasun-mailen arabera bi mailatan banatzea ahalbidetzen du, izan ere, gisa horretan, maila horietako bakoitzak erreferentziako pertsona ezagun bat eta berekin afektibitate-loturak dituena izango du. Hori dela eta, aldaketa ez da oso handia izango.

1.4.1.2. Jarraitasuna

Lehen ere adierazi dugun gisan, mailak eta taldeak banatzeko erreferentzia gisa erabiltzen den adina haurrek irailean dutena izan ohi da.

Hurtzaindegira lehen aldiz doazen haur guztiek ikasturte osoan zehar (iraila-uztaila) beren adinaren arabera dagokien taldea eta maila izango dute.

- Neska-mutilen kopuru bera.

- Taldea osatuko duten neska-mutilak berak izango dira, pisuzko arrazoiren batengatik ez bada behintzat.
- Tutore bera.
- Gela bera.

Hurrengo ikasturtetan zentroan jarraitzen badu, jarraitasuna bermatzeko irizpideari jarraiki, neska-mutilek maila eta gela aldatuko dute baina:

- Tutore bera izango dute.
- Talde bera izango dute, nahiz eta taldea zertxobait alda daitekeen ikasle berrien etorrera dela eta.

Haur bat edozein mailatan sartu ahal izango da zentroan lehen aldiz, beti ere plaza libreak dauden neurrian.

Geletan dagoen neska-mutilen kopuruari erreparatuz gero, adina handitu ahala geletako kopurua handituz doala ikus dezakegu. Horrek ikasmaita guztietan ikasleak gehitzea ahalbidetzen du. Gisa horretan, gurasoei beren seme-alabak Haur Hezkuntzan zein adinetan hasiko diren erabakitzeke aukera eskaintzen zaie.

2. CURRICULUM-PROIEKTUA

Gure zentroan curriculum-proiektua pixkanaka-pixkanaka landu dugu.

Hasiera batean I. Eremua (identitatea eta autonomia pertsonala) deitu dugunari heldu diogu. Oraingoz eremu hori amaitutzat jo dugu –nahiz eta beti ere hausnar daitekeen eta aldaketak egi-teko aukera dagoen–. Lanari ekiteko eremu hori aukeratu dugu, gai horrek, gure ustez, lan guz-tiari batasuna ematen diolako aztergai ditugun adinetan, eta harremana eta garapena lortzen di-tuelako beste bi eremuen artean.

Garatu dugun bakarra ez den arren, hori bakarrik aurkeztuko dugu, izan ere, besteak lantzen ari gara, batez ere komunikazioari eta adierazpenari dagokiena, une honetan lan-taldean sakon aztertzen ari garena.

Oraindik berariaz landu ez dugun zatiak –helburuak eta edukiak– HERako EAeko OCDak ezartzen duena izango du oinarri.

Horrela bada, ondoren lan-taldeak I. eremua: identitatea eta autonomia pertsonala izenekoan egin duen lana zehatz adieraziko dugu. Ondoren, helburu eta eduki horiek, baita beste bi eremue-takoak ere, lortzea ahalbidetuko diguten jarduera-edo/eta eskuartze-motak deskribatuko ditugu.

Egia da Irungo udal-haurtzaindegiko taldeak hezkuntza-proiektua edo curriculum-proiektua idazteko asmoa beretzeak, neurri handi batean lana LOGSEk bere dekretuen eta HEko OCDa-ren bidez zehazten dituen baldintzetara eta jardunbideetara egokitzeko beharrari erantzuten dio-la. Baina, halaber, taldekideek 0-3 urte bitarteko haurrei eta beren familiei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, eguneroko jarduna hausnartzeko eta aztertze, jardun hori hobetzeko, ekarri teorikoekin egiaztatze eta horiekin erlazionatzeko duten desioari erantzuten dio.

Proiektu hau, laburbilduz, elkarrekin 7 urtez lanean aritu diren 9 pertsonak osatutako talde baten lanaren emaitza edo fruitua da.

Horien arazoetatik, hausnarketetatik, eztabaidetatik, egokitzeetatik eta, azkenik, akordioe-tatik sortuko dira aipatutako proiektua diseinatzeko eta mugatzeko gainerako ildoak.

Inolako eremutan ez da erraza teoria eta praktika bat etortzea eta elkarri egokitzea, eta une-an unean beharrezkoak diren premia sozio-kulturalei baliagarri izango zaien erantzuna izatea. Alabaina, hala eta guztiz ere, eta nahiz eta agian proiektuan asmatzeak baino gehiago nahaste-

ak, akatsak eta hutsuneak izan, gure helburua hausnarketarako bide emango duen, lan-marko komuna eskainiko duen, teoria eta praktika lotuko dituen eta aldatzeko gaitasuna izango duen proiektu erreala sortzea izango da.

2.1. HELBURUAK IDAZTEKO IRIZPIDEAK

Zikloko helburu orokorrak esperientzia-eremuen arabera idatziko dira. Helburu horiek idazterakoan, argi eta garbi geratuko da horretan lan egingo duen eta lagunduko duen bakarria ez dela Haur Eskola izango (hezitzaileak, zuzendaritza, ikasleak, espazioak eta baliabide didaktikoak).

Garrantzitsua da guretzat honako hau azpimarratzea: oso zeregin garrantzitsua izango du familiak, eremu zabalago batzuekin batera (horien artean, auzoa, udalerría, komunikabideak eta haurrekin harremana duten hainbat pertsona aipa ditzakegu). Hori dela eta, beharrezkoa izango da helburu horiek eskuratzeko eta lanean jarduteko lankidetzarako eta koherentziarako joera izatea.

Oraindik ere proiektua lantzen ari garenez, oraindik behin betiko (adostutakoa eta zentrorra egokitua eta berariazkoa) idatziz adierazi ez diren egitasmoen eremuetako helburuei dagokien HEko EAEn proposatu den OCDa hartuko da erreferentzia-markotzat.

2.2. ESPERIENTZIA-EREMUAK

2.2.1. IDENTITATEA ETA AUTONOMIA PERTSONALA (I. EREMUA)

2.2.1.1. Eremurako sarrera

Gure hezkuntza-proiektuan jada adierazi dugunez, gure zentroaren helburuetako bat gizaki guztien bizitzako lehenengo hiru urteak bere nortasuna eta identitatea egituratzeko giltzarri-urteztzat jotzea da.

Horrek aldi garrantzitsu horretan zehar gertatzen diren prozesuak ezagutzeak eta horien inguruan hausnartzeak duen garrantzia gogoan izatera garamatza.

Urte horietan pixkanaka-pixkanaka honakoak gertatuko dira: bizitza psikikoa sortuko da, “niaren” kontzientzia hasiko da, sinbolismoan murgilduko da, gizaki guztiok amarekin (edo ordezeko pertsonarekin) dugun harreman sinbiotikoarekiko lotura eten egingo da eta banatzeko-indibiduaiziorako eta lehenengo harreman- eta komunikazio-estrategiak eraikitzeak eta lantzeko pixkanakako prozesu neketsuari ekingo zaio.

Gure hezkuntza-eginbeharrak, horrenbestez, prozesu horiek guztiak aintzat hartu beharko ditu eta sustatu egin beharko ditu eta ez du izan behar horiek gauzatzeko oztopo. Bestela esan, elkarrekiko harremanen prozesu baten bidez norberaren identitatea eraikitzea erraztu eta lagundu behar du.

Elkarrekiko harremanaz mintzatu gara, izan ere, uste dugu gizakia izaki aktiboa dela jaiotzen den unetik bertatik. Hasieratik bertatik jaioberriak harremanak izaten ditu sentimenen eta pertzepzioen inguruko hainbat modalitatetako mezuen bidez (ikusmenaren, ukimenaren, entzumenaren, zintesiaren eta abarren bidez). Amak mezu horiek jasotzen ditu eta deskribatu eta

interpretatu egin ditu. Gisa horretan hartu-eman horretan inplikatzeko da, harreman-ereduak eta adierazpen- eta komunikazio-bideak ahalbidetuz eta sortuz.

Haurrak pixkanaka-pixkanaka objektuen mundua aurkituko du eta aldi berean besteen, beren desioak, mugak, anbibalentziak, sentimenduak eta abar dituztenen, mundua aurkituko du. Pixkanaka bere identitatea eraikiko du ama, edo bere ordezkoa (eta pixkanaka aita edo aita-irudia), lagun duela. Hori amak berak ahalbidetu, konpentsatu eta eutsiko duen presentzia-ausentzia erlazioaren bidez gauzatuko da.

Amaren ausentziaz ohartzeak eta bere presentzia eskatzeak —besteak beste— haurrari bere burua ama ez den “beste” gizaki gisa ezagutzeko aukera eskainiko dio eta berarekin elkarrizketa bat edukia ahal izango du.

“Hasieran duala” izango den harreman eta elkarrizketa horren bidez pixkanaka beste pertsona batzuk, “aita” eta “besteak” ezagutuko ditu eta gisa horretan ekingo zaio sozializazioari.

2.2.1.2. I. Eremuko helburu orokorrak 0-3 ziklorako

1. Pixkanaka-pixkanaka haurra/familia bereizketa onartzea eta lantzea.
2. Familiako erreferentziako irudien gero eta ausentzia luzeagoak jasatea (horrek angustiarik sortu gabe).
3. Pixkanaka familiako inguruneak ez diren “beste harreman-irudi” eta erreferentzia-irudi batzuk jasatea, ezagutzea eta onartzea.
4. Beste harreman batzuek eskaintzen dituzten aukerez gozatzea (helduak/berdinak).
5. Pixkanaka harremanetako lotura afektiboak ezartzea familiako eremukoak ez diren figurekin, besteekin (helduak/berdinak).
6. Pixkanaka beste batzuek ezartzen dizkiguten mugak jasaten eta onartzen hastea, beti ere beren presentzia nahiz beharrak elkarbanatuz eta errespetatuz.
7. Familiako inguruneak ez diren espazioak onartzen eta eramaten ikastea.
8. Pixkanaka “objektuaren” —bere adierarik zabalenean— iraunkortasuna (eduki sinbolikoekin barneratua) aurkitzea eta lantzea.
9. Plazer-desplazer egoerak pixkanaka jasatea eta onartzea.
10. Gorputz-elkarrizketako egoerak onartzea eta gozatzea.
11. Pixkanaka gorputza osotasunean nahiz zatika ezagutzea.
12. Pixkanaka “besteen” gorputza ezagutzea eta horretaz kontziente izatea.
13. Pixkanaka bere buruari buruzko irudi baikorra eta osoa (aukerak, mugak, ezaugarriak) eskuratzea.
14. Norberaren mugimen-aukerak aurkitzea eta erabiltzea.
15. Norberaren gorputzaren bidez hainbat sentsazio aurkitzea eta ezagutzea.
16. Norberaren sentimen-aukerak aurkitzea eta erabiltzea.
17. Norberaren sentimenduak, emozioak eta premia afektiboak aurkitzea eta ezagutzea.
18. Pixkanaka norberaren sentimenduak, emozioak eta premia afektiboak adierazten eta azaleratzen ikastea (hori ahalbidetuko duten bide guztiak aurkituz eta erabiliz).
19. Norberaren adierazpen-aukerak aurkitzea eta erabiltzea.

20. Pixkanaka mugimen-aukerak eta sentimen-aukerak beren artean koordinatzea.
21. Pixkanaka portaerak eta ekintzak norberaren irudira egokitzen joatea.
22. Mugimen-martxa eta -autonomia egokia lortzea.
23. Jolasak eskaintzen dituen aukerak aurkitzea eta horiez gozatzea.
24. Pixkanaka jolas-mota guztiak (askea, bat-bateko, sinbolikoa, gidatu) egitea onartzea.
25. Pixkanaka autonomia handiagoa lortzea eguneroko bizitzako jarduerak gauzatzekoan.
26. Pixkanaka garbiketaren, elikaduraren, atsedeneren eta norberaren burua zaintzearen inguruko eta, oro har, norberaren osasunean eta ongizatean eragina duten gizarte-jarraibideak ezagutzea, onartzea eta barrurantz proiektatzea. Baita, aukera pertsonalen arabera, besteen osasunean eta ongizatean eragina izango dutenak ere.
27. Esfintereak kontrolatzen ikastea (heldutasun fisiologikoak eta emozionalak hala ahalbidetzen badu).
28. Pixkanaka besteen irudi positiboa lortzea (aukerak, mugak, ezaugarriak).

2.2.1.3. I. Eremuko 1,2,3,4 multzoetarako sarrera

“Identitatea eta autonomia” eremuaren sarrera orokorrean identitatea eraikitzekeo prozesuan gertatzen diren alderdirik garrantzitsuenak nola ulertzen ditugun oro har azaltzen ahalegindu gara.

Honako hauek dira aztergai izango ditugun eremu honetako multzoak:

- Gorputza eta norberaren identitatea.
- Jolasa eta mugimendua.
- Autonomia eguneroko bizitzan.
- Osasuna eta ongizatea.

Horiei dagokienez, ez dugu sarrera bana egingo, aitzitik, lau multzo horien azalpen-markoa bilduko duen sarrera bat egingo dugu, izan ere, horiek guztiak gorputzak (bere egite eta aukera guztiak) duen zeregin garrantzitsuari estu lotutakoak direla, bizitzako lehenengo urte hauetan gorputza eta berarekin zerikusia duen guztia hainbat ekoizpenen euskarri eta bideratzaile dela eta tresna balioanitz gisa jokatzeko duela uste dugu.

Ikuspegi horretatik gorputza adierazpenerako eta komunikaziorako tresna pribilegiatua delakoan gaude. Hori kontzeptualitatea eta ahozko hizkuntza oso oinarritzakoak izateari (presentzia sinbolikoa) zor zaio. Izan ere, haurren eta erreferentzia-pertsonaren arteko lehen harremanak tonuen eta gorputzaren bidezkoak izango dira.

Gainera, gorputza kanpotik nahiz barrutik hautemandako sententzioak eta pertzepzioak hartzeko tresna da. garapen kognitiboa, oraingo, ekintzarekin eta mugimenduekin estu lotutakoa izango da. mugimenduaren eta jolasaren bidez —bi horietan sentimenei eta mugimenari dagozkien inpultso eta erreakzioez gain, desioak, barne-motibazioak, afektuak eta emozioak izango ditu— haurrak espazioa ezagutuko du, objektuen existentzia aurkituko du, horiekin harremanak eta elkarreaginak izango ditu, bere gozputz-irudia eraikiko du eta bere aukerak, ezaugarriak eta mugak ezagutuko ditu.

Amarekin edo ordezkoarekin ezarri duen hasierako elkarrizketa horrek besteei lekua utziko die, horiekin aurkitu eta erlazionatuko da. Amarekin —aitarekin edo beste batzuekin— batera, horiek erraztu eta ahalbidetu ahala, mugimenduak eta garapen psikomotoareak ahalbidetuko dizkioten aukera berrien laguntzarekin, pixkanaka-pixkanaka bere autonomia konkistatuko du.

Pixkanaka bere gorputzaren (ezaugarrien, aukeren eta mugapenen, aktibitate- eta atsedenerritmoen, elikatua, maitatua eta onartua izateko beharraren eta abarren) kontzientziaz jabetzeak bere gorputza zaintzeko, maitatzeko, onartzeko... aukera eta gaitasuna eskainiko dio, beti ere erreferentzia-pertsonen eta bizileku duen inguruneko pertsonen laguntzaz.

2.2.1.4. Edukiak multzoka

1.- I. eremua: identitate eta autonomia pertsonala:

I.1. GORPUTZA ETA NORBERAREN IDENTITATEA		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>1. Sentsazioen, pertzepzioen, emozioen eta abarren bidez norberaren gorputzaren ezaugarriak, orokorrak nahiz zatikakoak, arakatzea aldi berean identitate sexualaren ingurukoak aipatuz</p> <p>2. Ezaugarri horiek aurkitzea gorputzaren sentsazioak bizitzearen bidez.</p> <p>3. Ezaugarri horiek osotasunean eta zatika ezagutzea eta identifikatzea.</p> <p>4. Sentimenen bidez kanpoko errealitatea arakatzea.</p> <p>5. “Kanpoko objektua” (pertsonak, gauzak eta abar) aurkitzea.</p> <p>6. “Objektu” horiek ezagutzea.</p> <p>7. “Objektuaren” iraunkortasuna, fisikoa nahiz barneratu edo integratutakoa, lantzea.</p> <p>8. Ingurunearekiko zein besteeikiko elkarreraginaren bidez lortzen diren sentsazioak eta pertzepzioak pixkanaka identifikatzea.</p>	<p>1. Norberaren gorputza eta besteei arakatzeko jolasean plazer izatea eta parte hartzea.</p> <p>2. Bere sentimen-organoak eta horien funtzioak aurkitzeko interesa bere gorputza eta ingurunea ezagutzeko.</p> <p>3. Bere sentimenduak, desioak eta afektuak, positiboak nahiz negatiboak, pixkanaka baloratzea eta onartzea.</p> <p>4. Norberaren identitatea pixkanaka baloratzea eta onartzea.</p> <p>5. Harremanak izateko, adierazteko eta jarduteko aukeretan eta gaitasunean konfidantza izatea (bere esku edo mailan dauden zereginen eta jokabideei dagokienean).</p> <p>6. Gertuko helduen eta haurren afektu-adierazpenak baloratzea eta horiekiko jarrera positiboa izatea.</p> <p>7. Aurkajarritako afektuen adierazpenak (maitasuna, gorrotoa, lankidetzeta, agresibitatea, inbidia eta abar) badirela onartzea.</p> <p>8. Norberaren eta besteen mugapenak pixkanaka onartzea eta eramatea.</p>	<p>1. Giza gorputzaren elementuak eta zatiak: burua, aurpegia, begiak, sudurra, ahoa, mihia, hortzak, belarriak, ilea, besoak, eskuak, azkazalak, sabela, txirrina, ipurdia, zakila, alua, hankak, oinak.</p> <p>2. Bere gorputzaren ezaugarriak ezagutzen hastea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Sexuari dagokionean: neska/mutila. – Altuerari dagokionean: handia/txikia. <p>3. Norberaren gorputzaren eta irudiaren ezagutza orokorrak jabetzen hastea.</p> <p>4. Norberaren gorputzaren oinarritzko premiak: gosea, egarria, txiza-gura, baraua (esna), mugimendua (jarduera), atsedena.</p> <p>5. Kontaktua eta harremanak, plazerezkoak nahiz agresiboak, izateko oinarritzko premiak: ferekak, kili-kilia, besarkadak, bultzadak, koskak, harramazkak, masailekoak, ostikoak, ile-tiratzeak.</p> <p>6. Sentimenduak eta sentsazioak: begiak ikusi; sudurrak usaindu; belarriak entzun; ukimena hotza, beroa, bustia, lehorra; mina.</p>

I.1. GORPUTZA ETA NORBERAREN IDENTITATEA (jarraipena)		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>9. Ohiko eta eguneroko egoeretan pixkanaka oinarritzko premiak adieraztea eta arautzea.</p> <p>10. Sentimendua, emozioak, bizi-penak, lehentasunak eta desioak adieraztea eta arautzen hastea.</p> <p>11. Norberaren gorputzaren eta bestearen adierazpen-aukerak arakatzeta (keinua, mugimendua, algara, tonua, gorputz-jarrerak eta abar).</p> <p>12. Norberaren eta besteen adierazpen-kalitateak eta -aukerak ezagutzea.</p> <p>13. Norberaren gorputzak eta besteenak dituen adierazpen-aukera horiek eta harremanetarako gaitasunak erabiltzea.</p> <p>14. Banatze-indibidualizazio prozesua pixkanaka lantzea eta gainditzea.</p> <p>15. Sinbolikorako sarbidea eta "niaren" kontzientziaren hasiera.</p>	<p>9. Frustrazioa eta plazerreko/desplazerreko egoerak pixkanaka onartzea eta eramatea.</p>	<p>7. Norberaren sentimenduak eta emozioak: alai, haserre, beldurrak, afektua.</p> <p>8. Besteen sentimendu eta emozioak, gorputzaren, keinuen eta tonuen bidez adierazitakoak: alai, haserre, beldurrak, afektua.</p>

I.2. JOLASA ETA MUGIMENDUA		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>1. Gorputzak eskaintzen dituen mugimen-aukerak pixkanaka aurkitzea (erreferentziako pertsonen lagunduta).</p> <p>2. Jolas-egoeretan eta eguneroko egoeretan norberaren gorputzak dituen mugimen-aukerak eta -mugak arakatzeta.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Buruz gora etzanda besoei eta hankei eutsiz. – Buruz gora etzanda. – Bira ematea – Narrastu, lau-hankatan ibili, ibili... – Korri egin – Salto egin, igo, jaitsi... – Erlaxatu eta abar. <p>3. Aktiboki kontrolatzen eta <i>tonua</i> eta <i>jarrera objektuaren, bestearen, ekintzaren eta erlaxazioaren</i> ezaugarrietara egokitzen hastea.</p> <p>4. <i>Norberaren gorputz-tonuaz eta besteez</i> kontziente izaten hastea.</p> <p>5. Mugimendua bultzatzen edo motibatzen duten desioak, efektuak eta emozioak aurkitzen "hastea".</p>	<p>1. Pixkanaka ekintza-aukeretan konfiantza izatea.</p> <p>2. Norberaren ekintza-mugak eta zailtasunak pixkanaka onartzea.</p> <p>3. Mugimen-trebetasun berriak ikasteko jarrera aktiboa eta ekimena izatea.</p> <p>4. Trebetasun berriak ikasteari ekiterakoan aukerak eta zailtasunak pixkanaka egokitzea.</p> <p>5. Mugimenduak eta jolasak dakarren plazerraz gozatzea.</p> <p>6. Norberaren motibazioko jolasak egiteko ekimenak.</p> <p>7. <i>Besteen</i> jolasean parte hartzen ahalegintzeko ekimena.</p> <p>8. Jolasak elkarbanatzerakoan gero eta totalantzia gehiago izatea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erreferentzia helduarekin eta besteekin. – Berdinekin- talde homogeneoarekin. – Gazteagoekin – Zaharragoekin <p>9. Oinarrizko hainbat arau (mugimenduak berak eta objektuen eta <i>besteen</i> presentziak ezartzen dituztenak) pixkanaka onartzeko interesa izatea eta ekintza eta jolasa pixkanaka horietara egokitzea.</p>	<p>1. Gorputz-jarrerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Etzanda, – bira ematea – eserita, – zutik; <p>eta espazioaren eta denboraren araberako mugimenduak.</p> <p>2. Espazioan eta denboran orientatzeko oinarrizko nozioak (batez ere norberari dagozkionean eta pertsona esanguratsuekin eta objektuekin zerikusia dutenean).</p> <ul style="list-style-type: none"> – Sartu-atera. (iritsi-joan). – Barruan-kanpoan (sartu-atera). – Orain-gero. – Goian-behean (igo-jaitsi). – Hemen (ez-hemen). <p>(Beti hemen eta orain kokatu behar dira gero hurbilekoak ez diren testuinguruetan kokatu ahal izateko.)</p> <p>3. Arriskuaren (gorputzaren ekintzekin eta mugimen-ekintzekin zerikusia dutenen) nozioaz jabetzen hastea.</p>

I.2. JOLASA ETA MUGIMENDUA (jarraipena)		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>6. Erritmo biologikoak pixkanaka eguneroko bizitzako sekuentzietara egokitzea, familian eta pixkanaka haurtzaindegiko taldean.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Atsedanak/jarduera-jolasaldea. – Otorduak... <p>7. Pixkanaka honakoak eskuratu dituzte: mugimendu orokorra eskatzen dute jardueretan jarraia kontrolatzea eta koordinatzea mugimen-trebetasun berriez jabetzea jolas-ekintzetan eta eguneroko bizitzako ekintzetan.</p> <p>8. Izaera arina duten manipulazio-trebetasunak koordinatzen eta kontrolatzen eta ohiko tresnak erabiltzen hastea.</p> <p>9. Lateralitatea pixkanaka garatzea eta finkatzea, askatasun osoz eguneroko bizitzan eta jolas-jardueretan garatuz.</p>	<p>10. Jolas-egoeretan eta eguneroko bizitzako egoeretan laguntza eskatzen hastea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erreferentzia helduei. – Berdinei. <p>11. Besteie (erreferentziako helduei, berdinei) laguntza eskaintzen hastea jolas-egoeretan eta eguneroko bizitzako egoeretan.</p> <p>12. Jolas-motak eta horiek eskaintzen dituzten aukerak positiboki baloratzen eta diskriminatzen hastea.</p>	

I.2. JOLASA ETA MUGIMENDUA (jarraipena)		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>10. Espazio errealean kokatzea eta mugitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Haurra objektuekiko harremanetan. – Haurra erreferentzia-pertsonakiko harremanetan. – Objektuak harrarekiko harremanetan. – Objektuak erreferentzia-pertsonakiko harremanetan. – Erreferentzia-pertsonak haurrekiko harremanetan. – Erreferentzia-pertsonak objektuekiko harremanetan. <p>11. Pixkanaka hainbat jolas-mota¹ eta horiek eskaintzen dituzten aukerak aurkitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gozatzeko aukera. – Errealitatea ezagutzekoa eta esperimintatzeko: espazioak, objektuak, pertsonak, horien arteko harremanak. – Norberaren sentimenduak ezagutzekoa. – Desioak, sentimenduak, gatazkak eta abar adieraztekoa. 		

¹ Askea, bat-bateakoa, gidatua eta abar.

I.3. AUTONOMIA EGUNEROKO BIZITZAN		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>1. Norberaren portaera arautzen hastea eguneroko bizitzak egoeretan eta jolas-egoeretan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bat-bateko jolas eta jarduerak edo gidatuak oso talde txikian. Talde naturalean (gelan). Talde heterogeneoan edo/eta bat-batekoan. – Gidatutako jolasak edo jarduerak talde handiagoan. Talde naturalean (gelan). Talde heterogeneoan. – Jangela. Garbiketa. Siesta. Janzte-eranztea – Jasotzea, ... (e)tan laguntzea, prestatzea, lankidetzan aritzea... <p>2. Ekintza planifikatzen hastea (helduaren laguntzarekin / presentziarekin), zeregin errazak ebazteko eta horien efektuak egiaztatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Adib.: hainbat sekuentzia behar dituzten jarduerak, esaterako: janztea: <ul style="list-style-type: none"> • Arropa bilatzea eta eza-gutzea. • Azpian doazen arropak janzten hastea. • Janzten bukatzea. <p>3. Norberaren jokabidea arautzen hastea besteen (helduen eta berdinen) azalpenen eta eskaeren arabera.</p>	<p>1. Eguneroko bizitzak zereginetan, jolasetan eta jardueretan pixkanaka ekimena eta autonomia izatea.</p> <p>2. Haur Eskolak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzerakoan ekimena eta autonomia izatea.</p> <p>3. Helduarekiko baieztatze-eta aurkajartze-jarrerak.</p> <p>4. Berdinekin eta helduekin lankidetzan aritzeko eta horiei laguntzeko jarrera izaten hastea eguneroko bizitzan eta egoera ludikoetan (konfidantzaz beharrezko laguntza eskatuz eta eskainiz).</p> <p>5. Eguneroko bizitzak problema txikiak ebaztea positiboki baloratzea.</p> <p>6. Egindako lana positiboki baloratzea.</p> <p>7. Akatsak eta asmatzeak baloratzen hastea ekintza eta estrategiak hobetzeko eta berriak erakitze bide gisa.</p> <p>8. Eguneroko bizitzako esperientzietan laguntzeko eta parte hartzeko jarrera izatea, horiek funtzionamendurako erreferentzia eta pista gisa hartuz.</p>	<p>1. Eguneroko bizitzako hainbat jarduera:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Noa: etxera eta abarretara. – Jostailuak jasotzen ditut. – Biltzen laguntzen dut. – Jangelara noa. Bazkaldu egiten dut – Siestara noa: Lo egiten dut. – Jaikitzen naiz, janzten naiz. – ... (e) tara jolasten naiz. – ... (e) kin jolasten naiz. <p>2. Harremanetarako eta elkarbizitzako arauak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Agurrak. – Txandak. – Ondo eskatzea. – Eskertzea.

I.3. AUTONOMIA EGUNEROKO BIZITZAN (jarraipena)		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>4. Pixkanaka bere taldearen jardueretara egokitzea eta ondoren talde heterogeneo eta handiagoetara egokitzea.</p> <p>5. Eguneroko bizitzan sortzen diren problema txikiak ebaztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erreferentzia-espazioak ezagutzea eta onartzea eta ekintza-arauak zabaltzen joatea. – Bere burua eta gauzak defendatzea. – Objektuak ezagutzea eta ondo erabiltzea (Haur Eskola, parkea etxea eta abar). – Objektu pertsonalak ezagutzea eta bilatzea. – Garbitzea (eskuak, aurpegia). – Hainbat arropa kentzea, hainbat arropa janztea.. <p>6. Bere eguneroko bizitzak leku ezagunetan barrena bere kabuz mugitzea.</p> <p>7. Pixkanaka norberaren jokabidea arautzea besteengan duen eraginaren arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Laguntzen dugun, ez dugun laguntzen. – Erasotzen dugun, laguntzen dugun. – Besteen erantzunak/eskaerak hautematea. (jokabide batzuen eta besteen eta horien emaitzen arteko desberdintasunak hautematea). <p>8. Oinarrizko ohitura batzuek hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Arreta eskaintzea – Besteiei entzutea – Konstante izatea, amaitzea – Laguntzea, lankidetzan aritzea. 		

I.4. MULTZOA: OSASUNA ETA ONGIZATEA		
Prozedurak	Jarrerak, balioak eta arauak	Kontzeptuak
<p>1. Norberaren gorputza zaintzea eta garbitzea helduaren laguntzaz eta pixkanaka-pixkanaka bakarrik egitea (oinarrizkozko haur-oihala kentzea, komunera joatea, janzerakoan eta erantzterakoan laguntzea eta abar) material ea espazio egokiak (komunak, xaboa, esponja, toailak eta abar) erabiliz..</p> <p>2. Esfinterrak kontrolatzen ikastea edo gutxienez horretara dararmaten oinarrizko jarraibideak ikastea.</p> <p>3. Hainbat sentsazio hautematea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Garbi edo zikin egotearena. – Ongi egotearen edo ondoezarena. <p>4. Eguneroko jarduerak egiteko lekuen ingurunearen mantenimenduan, garbiketan eta zaintzan laguntzea (materiala jasotzea, gauak ez puskatzea, komuneko katea botatzea eta abar).</p> <p>5. Elikadurarekin, garbiketarekin eta atsedenarekin zerikusia duten ohiturak hartzen hastea –hasieran helduaren laguntzarekin eta pixkanaka bere kabuz (ondo jatea, jan aurretik eta ondoren garbitzea, atsedena onartzea eta abar).</p> <p>6. Oinarrizko zereginetan erabiltzen diren tresnak pixkanaka erabiltzen ikastea (edateko edalontziak erabiltzea, toilarekin edo antzekoren batekin lehortzea mukiak paperarekin edo antzekoren batekin kentzea eta abar).</p> <p>7. Garbitu, txukundu, berreraiki eta konpontzontzekoiaz puskatzeko, zikintzeko eta nahaspilatze beharra –temporala nahiz ebolutiboa– onartzea.</p>	<p>1. Garbi egotea gero eta gehiago gustatzea.</p> <p>2. Jarduerak ingurune zaindu, garbi eta txukunetan gauzatzea gero eta gehiago gustatzea.</p> <p>3. Puskatzeko, zikintzeko, nahaspilatze, beharra (temporala eta ebolutiboa) onartzea –eta errudun ez sentitzea– eta gisa horretan garbitzeko, txukuntzeko, konpontzeko eta berreraikitze lehen urratsa ematea.</p> <p>4. Otorduetan, atsedenean eta garbiketan ezarritako hainbat portaera-arau pixkanaka onartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Eserita egotea. – Otordua bukatzea jolastera joan aurretik. – Atsedena isiltasunean errespetatzea. – Bakarrik jatea (aukeren arabera). – Komunera une jakinetan joatea eta abar. <p>5. Gaixotasunen bat denean edo istripu txikiren bat gertatzen denean erreferentzia-helduen zaintzan aktiboki laguntzeko jarrera izatea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Termometroa jartzen uztea. – Zauriak zaintzen uztea. – Kolpeak eta abar hartu ondoren babesten uztea. <p>6. Erreferentzia-helduen laguntza bilatzeko interesa izatea gaixotasun-egoeretan edo istripuetan eta garbiketarako, atsedenerako eta abarretarako egoeretan.</p> <p>7. Eguneroko jarduerak garatzeko ingurunea zaintzerakoan aktiboki laguntzeko jarrera.</p>	<p>1. Nork bere burua zaintzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Garbitasuna: <ul style="list-style-type: none"> • Eskuak, aurpegia... garbitzea. • Haur-oihala aldatzea. • Esfinterrak kontrolatzea (nahi, egin dut). • Arropa jaistea. • Jaztea eta eranztea. • Mukiak. – Elikagaiak: <ul style="list-style-type: none"> • Pureak, zopak, pasta, arroza. • Haragia, arraina. • Bestelakoak: ogia, gozokiak... – Tresnak: <ul style="list-style-type: none"> • Garbiketakoak (oinarrizkoak). • Elikatzekoak (oinarrizkoak). – Elikadura-ohiturak: <ul style="list-style-type: none"> • Denetik jatea. • Kantitateak: egokitzea=elikagaiak. – Gaixotasuna: <ul style="list-style-type: none"> • Gorputzeko mina. • Ondoeza. • Atsedena-premia...

2.2.2. KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA (III. EREMUA)

2.2.2.1. Eremurako sarrera

Pertsonen artean komunikatzeak hamaika harreman, estrategia eta baliabide erabiltzeko eta garatzeko eskatzen du. hori formalki hizkuntza (ahozkoa eta idatzizkoa) hitzarekin ulertzen duguna ez dela gizakien artean komunikatzeko eta adierazteko bitarteko bakarra azpimarratzeko aipatu dugu. egia da hizkuntza hori gizakiok berariazko dugula eta horixe da hain zuzen helduok gehien erabiltzen duguna, baina ikuspegi orokorrago batean, beste hainbat hizkuntzaren (gorputzaren bidezkoaren, grafiko-artistakoaren, musikalaren, matematikoaren eta abarren) arteko komunikazio-estrategia bat bailitzan, hartu beharko genukeela uste dugu.

Gure asmoa ez da hizkuntza horri gizartearen, kulturaren nahiz ezagutzaren alorrean ematen zaion balio eta maila izugarria ez onartzea. Gure helburua adierazteko eta komunikatzeko beste kanal batzuei lekua uztea eta garrantzia ematea besterik ez litzateke izango.

Gizaki guztien prozesu ebolutiboan eta garapen-prozesuan zehar, jaiotzen denetik, estrategia horiek agertzen dira. Horiek dibertsifikatu egiten dira, batzuek besteak laguntzen dituzte, espezializatu egiten dira, une batzuetan batzuek besteei gailentzen zaizkie.

Gaur egun hizkuntzaz jabetzeko moduz ari garela hizkuntza hori menderatzen duten pertsonetako harremanetan eta elkarreraginean erabiliz, hizkuntza guztietan antzekoak diren negoziatio-prozesuen bidez eskuratzen eta garatzen dela esan ohi da.

Ikuspegi horrekin bat eginez, hori horrela izaki aurrez suposatzen dugu harreman edo elkarreragin horrek komunikatzeko, ezagutzeko, mezuak igortzeko edo “*besteei* esateko eta entzuteko” “*desioa*” duten bi pertsonaren edo gehiagoren arteko harreman bat eskatzen duela.

Hori guztia jaiotzan sortzen den (baita jaioaurreko aldian ere) eta bizitza guztian zehar irauten duen prozesu baten bidez gertatzen da. Izan ere bizitzan zehar adierazteko eta komunikatzeko hainbat estrategia eskuratzen, garatzen eta erabiltzen ditugu. Horiek, halaber, ahozko hizkuntzaz jabetzea eta hori garatzea ahalbidetuko digute.

Ondoren komunikatzeko eta adierazpen- eta komunikazio-estrategiez jabetzeko gure ustez ezinbestekoak diren alderdiak aipatuko ditugu. Batez ere etaparen (0-3 urte) beraren izaera dela eta garrantzitsuenak direnak aipatuko ditugu.

- Jaiotzaren unetik eta haurdunaldi guztian zehar jaioberriaren eta amaren arteko kontaktu komunikatibo edo harreman hori gertatzen da.

Lehen harreman dual horren, ama edo haren ordezkorearen eta jaioberriaren artekoaren bidez eta horri esker —harreman horretan presentzia-ausentzia oreka izan behar da elkarrizketa eskatzeko aukera sortzeko bitarteko gisa— zabaldu eta hedatu ahal izango da harreman hori adierazi eta erreferentzia desberdina izango duten beste pertsona batzuetara.

- Beharrezkoa da haurrari entzuteko, haurra interpretatzeko eta harrarekin elkarrizketak izateko desioa duen pertsona bat izatea, haurrak kanpoarekin, bestearekin komunikatzeko aukera izan dezan.

- Pertsona: ez dugu heldu terminoa bakarrik erabili nahiz eta gehienetan bera aipatu behar harko genukeen, izan ere, berdinek —beste neska-mutil batzuek— komunikatzeko eta adierazteko estrategiak komunikatzerakoan eta ikasterakoan oso zeregin garrantzitsua izan dezaketela uste dugu.
- “Pertsona” horiek oso gogoan izan behar dute lehen haurtzaroko estrategia komunikatiboak ez direla nagusiki hitzezkoak.
- Oso garrantzitsua da hurrekin harremanak dituzten “pertsona” horiek hitzezko nahiz hitzezkoak ez diren formak erabiltzea hurrekin komunikatzen direnean eta gogoan izatea hitzezkoak ez diren formak direla haurrak ondoen ezagutu, entzun eta interpretatuko dituenak, horiek baitira lehen eta gehien erabiltzen dituztenak. Horri jarriki, haur horiekin komunikazioak adierazi berri dugun hori ezagutzea eta errespetatzea eskatzen du.
- Haurrek komunikatzeko erabiltzen dituzten eta hitzezkoak ez diren formak nagusiki toniko-emozionalak dira:
 - Tonuaren eta gorputzaren ukipena.
 - Begiradak
 - Keinuak, mimika
 - Mugimendua-jolasa-gorputza
 - Mugimendua-jolasa (arrastoa uztea, grafiko artistikoa..)
 - Ekoizpen bokaliko “generikoak”, soinuak, oihuak, negarra, bor-borrrak, zizekadurak.
- Adierarik estuenean hitzezkoak ez diren lehen forma horiek beren garapena eta dimentsioa izango dute hainbat hizkuntzatan, baina, halaber, ahozko hizkuntzaren aurrekari izango den bagage horren zati izango dira.
- Mugimenduak <-> jolasak (grafikoa-arrastoa uztea), beren garapena eta adierazpena sustatzen bada, hizkuntza plastiko-artistikora eramango gaituzte. Nolabait ere esan dezakegu barneko prozesuek motibatzen duten bat-bateko jolasaren beste aldaera bat gehiago dela.

Hori aipatzeari garrantzitsu iritzi diogu, izan ere, oro har alderdi hori dela eta (zikintzea, hainbat gainazaletan arrastoak uztea, ehunak, tintak ukituz esperimintatzea eta abar) gure haurrak erruduntzat jotzen ditugu eta erreprimitu egiten ditugu. Ez ditugu behar bezala bideratzen eta ez ditugu behar adina onartzen.

- Adin hauetan (0-3 urte) benetako komunikazio bat, benetako elkarrizketa bat (heldua-haurra) gauza dadin, beharrezkoa da une jakin batzuetan helduak haurraren desioa onartzea, errespetatzea, baita haurra helduari berari gailentzea ere (gehienetan helduok ezarri ohi dizkiegu haurrei desioak).
- Garrantzitsua da hurrekin harremanak ditugunok hitzezko estrategia komunikatiboak ere erabiltzea:
 - Haurren bat-bateko ahozko ekoizpen generiko horiek jasotzea, horiei erantzutea eta horiek bidez hitz egitea. Imitatuz eta ekoizpen horiei erantzunez jolastea, beren tonua, erritmoa eta kadentzia erabiltzea, horiek pixkanaka aldatzea, zeintzuk irauten

duten ikustea, txandetarako gunea sortzea eta abar. Ekoizpen horiek jasotzea, horiek oihartzuna izatea, edukia eta adierazia emanaz itzultzea.

- Hurrei zuzen hitz egitea, zer egingo dugun, zer sentitzen dugun, gure ustez berak zer sentitzen duen eta zer behar duten azaltzea, horretarako erralitatea adierazten duen hizkuntza zintzo bat erabiliz. Hori dela eta, eta orain arte adierazitakoaren laguntzaz, haurrak hainbat kode ezagutzen hasiko dira eta horiek pixkanaka bere egingo dituzte, barneratu egingo dituzte.

Laburbilduz, prestasuna, entzuteko gaitasuna —komunikatzeko estrategia guztiena—, harremanaren kalitatea eta hurrekin erlazionatzen direnek harreman horrezaz gozatzea beharrezko baldintzak izango dira elkarrekiko harremana eta elkarreragina gauza dadin eta komunikaziorako estrategiak gara daitezten.

2.2.2.2. III. Eremuko helburu orokorrak 0-3 ziklorako

1. Komunikatzeko estrategiak eta hizkuntza-motak (tonuari eta jarrerari dagokiena, keinuei dagokiena, ludikoa, grafikoa, plastikoa, hitzezkoa eta abar). aurkitzea, bizitzea, arakatzea eta erabiltzea.
2. Pixkanaka komunikatzeko kanal eta hizkuntza desberdinen bidez sentimenduak, desioak eta ideiak adierazteko gai izaten ikastea.
3. Estrategia komunikatiboak eta hizkuntza pertsonalen gaitasunak pixkanaka ohiko eta eguneroko komunikazio-testuinguru eta -egoeretara egokitzea.
4. Beste neska-mutilek eta helduek komunikatzen dizkieten mezuak ulertzen hastea (erreferentzia esanguratsua dutenetatik hasiko dira eta pixkanaka gainerakoetara zabalduko da).
5. Pixkanaka hizkuntza-motak besteekin harremanak izateko, gozatzeko, adierazteko, komunikatzeko eta informatzeko bitarteko edo tresna desberdin gisa baloratzea.
6. Gorputzarekin eta hainbat modutan, objektuak, denboraren eta espazioaren pertzepzioa eta horien arteko harremanak bizitzea eta manipulatzeko ondoren barneratu, gogoratu eta irudikatu ahal izateko.
7. Pixkanaka norberaren eta ikaskideen gorputzaren ekoizpenen, ekoizpen musikalen, plastikoen eta grafikoaren inguruko interesa izatea eta horiek preziatzen ikastea.
8. Hainbat obra artistiko baloratzen eta preziatzen ikastea pixkanaka esanahia emanaz eta ordezkatzeko duten kulturarekin lotuz.
9. Hainbat irudikapen- eta adierazpen-motaren euskarri izango diren eta erraztuko dituzten hainbat teknika eta oinarritzko baliabide erabiltzea.
10. Ahal den neurrian beren eguneroko jarduerarekin zerikusia duten kultur tradizioko hainbat testu/abesti ulertzen, ekoizten eta abesten hastea, interesa adieraziz eta gozatuz. Horiek 1.H nahiz 2.Hkoak izango dira.

11. 2.Hn pixkanaka agurrak, eskertzak, eskaera zehatzei, esanguratsuei eta testuinguruarekin zerikusia dutenei lotutako galderak, agindu motzak eta testuinguruari ondo lotutakoak, testuinguruari lotutako eguneroko eta oinarrizko hitzak, testuinguruarekin lotutako eta eguneroko ekintzen inguruko galderen erantzunak ulertzen edo/eta formulatzen hasia.
12. Objektuen, beren efektuen eta izan ditzaketen harremanen ezaugarri batzuen irudikapena pixkanaka esperimintatzea, bizitzea eta eraikitzen hasia (forma, kolorea, tamaina, bolumena, neurria, tenperatura, ehundura, egoera eta antzeko kategoriak).

2.2.2.3. III. Eremuko estrategia komunikatibo-adierazkorrak

Gorputz-hizkuntza

Gorputz-hizkuntza eta -adierazpena sarreran adierazi dugun gisan ulertu dugu, hau da, komunikatzeko estrategietako bat bezala, aztergai ditugun adinetan maila pribilegiatua lortzen duen estrategia gisa gainera.

Hori dela eta hainbat zehaztapen egingo ditugu nola lan egiten dugun eta horrela lan egiteko zertan oinarritzen garen adierazteko.

Subjektuaren ikuspegi orokorra aintzat hartzen saiatuko gara. Hori dela eta, gorputza batasun bat bailitzan landuko eta ulertuko dugu. Nuria Franch autoreak (Psikomotrizitate Erlazionala, hezkuntza-tresna bat) planteatzen duen gisan, honakoa adieraz dezakegu: “Guk ez dugu gorputz bat, aitzitik gu gorputza gara eta gorputz hori hainbat ekoizpen egiteko gai da: ekoizpen biologikoak, fisiologikoak, emoziozkoak, afektiboak, kontzienteak eta inkontzienteak. Gorputza “tresna bat”, inguruenarekin komunikatzeko ezagutu, kontrolatu eta koordinatu behar dugun erreminta erabilgarria dela uste dugu. Gainera gorputz horrek borondatezko mugimenera, ekintzara, sentimenei, pertzepzioari eta mugimenera dagozkien esperientzietara oso lotuta dagoen substratu kognitiboa du. Halaber, gorputzaren mailan borondatezkoa ez den antolamendu tonikoa dugu, bizipen emozional eta afektiboekin oso lotura estua duena, ahaztu ezin dugun eduki sinbolikoa duen bat-batean jarduteko modua.

Horrenbestez, gure lanak ahal den neurrian alderdi horiek guztiak hartu beharko ditu aintzat eta mugimendua, ekintza, gorputzaren tonua eta jolasa barne hartu beharko ditu adierazteko, erlazionatzeko, komunikatzeko eta eraikitze bide gisa. Hori dela eta, adin hauetan, garapen ebolutiboaren zati izaki, inoiz baino gehiago erraztu, sustatu eta lagundu behar ditugu.

Aipatu duguna behatzea eta entzutea eta ondoren hori hausnartzeko eta ulertzeko ahalegina egitea egin asmo dugun hezkuntza-zereginaren zati izango dira, izan ere, ahal den neurrian behintzat, gure ikasleek egindako eskaerei erantzutea dugu helburu.

Jolasari, jolas-mota eta -dimentsioa guztiei, leku pribilegiatua eskainiko diegu gure jardun orokorrean (ikus hezkuntza-eskuhartzeak) eta gela eta maila guztietan.

Jolasak atalaren barruan eta gorputzaren komunikatzeko estrategien markoarekin estu lotuta, bat-bateko jolasen saioak deiturikoak ditugu. Horiek erdi-mailako edo/eta txikien mailako geletatik aurrera eskainiko zaizkie, baina ez da izango lan-aukera bakarra. Jolasen atal orokorra osatuko luketen beste lan-irizpide eta -jarraibide batzuk, eskaerak ezagutzeko jarduerak lantzeko premiarekin zerikusia dutenak, azalduko ditugu.

Sehaskakoen eta txikien (gutxi gorabehera 3-15 hilabete dituztenen artean) geletan ez dira bat-bateko jolaseko saioak —adiera estuan ulertuta— antolatzen, beren adinak ez baitu hori ahalbidetzen adin hori duten haurrentzat ezarritako markoan. Alabaina, horrek ez du esan nahi eremu horrek gisa honetako geletan garrantzirik ez duenik, izan ere, aitzitik, ezinbestekoak dira.

Autonomia-eza dela eta —askotan ez dira lekuz mugitzeko gai— jolasaren aukerak desberdinak dira eta helduaren gertuko presentzia fisikoaren behar handiagoa dute, askotan helduak ahalbidetzen duelako mugimendua edo/eta desplazamendua.

Gorputz-hizkuntzarekin zerikusia duten irizpideak eta jarraibideak:

- Ikasle guztiek zentroan beren erreferentziako helduekin (tutoreekin eta, zabalduz, taldeko gainerako kideekin) banakako harreman eta gorputz-ukipena (besoak, besarkadak, ferrekak, gorputz-jolasa, begiratuak eta abar) izateko aukera izango dute.
- Horien iraupena eta maiztasuna ikasle bakoitzarekin negoziatuko da honakoak kontuan hartuz:
 - Bakoitzaren aukerak eta zailtasunak.
 - Une kritikoak eta ahalegin handiagoa eskatzen dutenak.
 - Egiten ari den jarduera.
 - Gela bakoitzeko ratioak eskaintzen dituen aukerak eta ezartzen dituen mugak, nahiz eta aukerak egunero eskaini behar zaizkien banaka.
- Tutoreek eta taldeko kide diren gainerakoek ustez hurrek beren gorputzen bidez esaten digutena behatu, erregistratu eta hausnartu beharko dute.
- Jarraipen- eta behaketa-lan horretatik eratorriko dira haurraren eskaerek eta bizi duen errealitateak aurrera egin dezaten eta egoki daitezen (pixkanaka-pixkanaka) lagunduko duten estrategiak eta eskuhartzeak.
- Taldeko kide diren pertsonen beren gorputz-hizkuntza behatzeko ahalegina egingo dute. Horretarako ahal duten neurrian hizkuntza hori ezagutzen eta neska-mutilen eskaerara egokitzen saiatuko dira.
- Eskaerei egokitzerakoan eta erantzuterakoan aintzakotzat hartu behar da beharrezkoa dela esperientzia positiboak negatiboekin konpentsatzea eta positiboak gailen daitezen saiatzea, negatiboak, besteekin batera errealitatea osatzen dutenak, jasaten jakiteko eta gainditu ahal izateko.
- Familiak erabiltzen duten gorputz-hizkuntza ezagutzen ahaleginduko gara, hasiera batean aurka-jartze garrantzitsurik ez sortzeko, eta zentroan zeintzuk eta etxean zeintzuk erabiliko dituen negoziatzen saiatuko gara.

Ahozko hizkuntza

Atal honetan 1.H eta 2.H izango ditugu mintzagai.

Gure zentroaren hizkuntz eredua “D” da.

Hau da, irakas-hizkuntza eta komunikazio-hizkuntza euskara izango da.

Egoera hori izanik, jarduteko dugun marko errearen inguruko hausnarketa egitea beharrezkoa da, izan ere, gure zentrorako datozen ikasle gehienak (batzuetan %80tik gora) gaztelaniaz mintzatzen diren familietako kide dira. Horrenbestez, gure ikasleak ama-hizkuntzaz jabetzeko prozesua egiten ariko dira eta, gainera, gehienak baita 2.Hrena ere.

Gure zentroan 2.Hz jabetzeko dituzten moduei dagokienez, nagusiki bi direla esan genezake:

- 2.H eta 1.H aldi berean ikastea edo behintzat biak lehen haurtzarokoan zehar ikastea.²
- 2.Hz jabetzea jada zentroan erabiltzen ez den hizkuntza bat edo kode bat nolabait erabiltzen dutenean.

Bigarren talde honetan bada bigarren aldagai bat ere: Ikasle horiek gure zentroan emanago duten denbora (1 edo 2 ikasturte). Hori aipatzea beharrezkoa da, izan ere, desberdinak izango dira talde bakoitzarentzat formula ditzakegun lanak eta helburuak. Bada, ikasturte bakoitzean tutoreak eta zentroak alderdi horiek gogoan hartu beharko dituzte gelako programak zehazteko garaian.

Hizkuntzaren (ahozkoa/idatzizkoaren) inguruan gauzatzen den hezkuntza-praktikak III. Eremurako sarreran adierazitako guztia eta 1.h zein 2.hren jabekuntza kontuan izango dituzten jarduteko irizpide batzuk izango ditu oinarri-marko.

Ondoren adieraziko ditugu irizpide horiek:

- Hezitzaileei eta hezkuntza-talde osoari dagozkienak.
- Ikasleengana bideratutako esku-hartzei dagozkienak.
- Esku-hartzeen eta beren antolamenduaren inguruko denbora-espazio egiturari eta maiztasunari dagozkienak.
- Jardueri berei dagozkienak.

Hezkuntza-taldeari dagozkionak

1. Taldeko kideek gaztelania nola eta noiz erabiliko duten:

- Oro har, ohartzen gara bi hizkuntzen erabilera erabat bereizten bada (gaztelania etxean eta euskara eskolan) hizkuntz kode berria onartzea sustatzen ari garela. Hori dela eta, ez dugu bi hizkuntzen erabilera arbitrarioki nahastuko hurrekin izaten ditugun elkarreraginginetan eta ez ditugu terminoak kode batetik bestera itzuliko.

Gaztelania erabiliko dugu egokitze aldian eta gaztelania erabiltzeak haurra lasaitzeko bali duenean eta eskolara egokitze prozesua errazten duenean bakarrik (beldurrezko uneak, atsekabetuta daudenean, euskarri-premia dutenean eta abarretan). Horiek, taldearen erabakiz, egokitze aldian zehar bakarrik egitea ahalbidetuko da.

² Egoera honetan daude "sehaskakoak eta txikiak" izeneko zatiei dagokien haurrak, gaztelaniaz mintzatzen diren familietatik datozenak.

Hori banaka egingo dugu, beste estrategia komunikatibo batzuk edo hizkuntzaz kanpoko prozedurak, haurren eta zentroko erreferentzia-pertsonaren artean oraindik lotura ona eta inplikazio afektiboa ezartzeko astirik izan ez dela eta, komunikatzeko baliagarriak ez zaizkigunean.

- Taldeko kideek gaztelania erabiliko dute gaztelaniaz mintzatzen diren familietako kideekin harremanak izaten dituztenean, zentroaren eta familiaren arteko harremanak sustatuz eta ama-hizkuntzari garrantzia emanaz eta errespetatuz.

2. Taldeak euskara noiz erabiliko duen:

- Euskara izango da komunikatzeko irakas-hizkuntza talde guztiarentzat.
- Eskolako plantila osatzen duten irakasleak hainbat jatorritakoak direnez, eta horrenbestez euskalkiak ere hainbat izanik, ikasleekiko gure elkarreragin eta esku-hartzeetan euskara batua erabiliko dela erabaki dugu.
- Talde-jardueretan beti euskara erabiliko da.
- Irakas-hizkuntza eta ikasleekin taldeak elkarreraginak eta harremanak izateko hizkuntza euskara izango da, jada zehaztu diren banakako eta une jakinetako kasuetan izan ezik.
- Familia euskaldunekin harremanak izateko hizkuntza euskara izango da.
- Ikasleren bat familia elebidun edo hiru hizkuntza (adibidez, frantsesa barne) erabiltzen dituen familia bateko kide denean eta horietako bat euskara denean, horiekin euskara erabiltzen ahaleginduko gara, hizkuntza horretako hizkuntz gaitasuna kontuan izanik eta horien ekoizpena errespetatuz. Kasu horietan komenigarria izango da egoera hori guztien artean argitze, hitzartzea eta adostea.

Ikasleengana bideratutako esku-hartzeei dagozkienak

Alderdi afektiboarekin zerikusia dutenak:

Haurra hizkuntzaz jabe dadin beharrezkoa da hizkuntza menderatzen duen helduekin adieraziak negoziatzerakoan afektiboki eta aktiboki inplikatzeko. Hizkuntza horrekin komunikatu nahi izatea eta entzuten dutela jakitea beharrezkoa izango da.

Horretarako, komunikazioa sustatuko duen markoa sortuko dugu, segurtasun emozionala eta afektiboa eskainiko duen entzutea: harreman goxoak, afektuz beteak, haur bakoitzaren sentimenduak, berezitasunak, erritmoak eta gaitasun pertsonalak onartzea.

Beren interesak, beraiantzat esanguratsu dena, aprobetxatuko dugu, izan ere, kezkatzen duten edo une horretan beretzat garrantzitsuak diren gaiak adierazpideak izatea hizkuntza plano afektibora hurbiltzeko modu egokia da.

Gisa horretan norberaren hizkuntzan nahiz bestean ezagutza eraikitzea ahalbidetzen da, horren bidez emozioen, esperientzien eta interesatzen zaizkien gauzen inguruko ideien planoan atzera-elikadura jasotzen dutelako.

Ulermenarekin zerikusia dutenak: hizkuntza eta hizkuntzaz kanpoko prozedurak.

Hizkuntza komunikatiboa izan dadin solaskideek elkar ulertu (entzun) behar dute eta beren artean adieraziak negoziatu behar dituzte.

Hori dela eta, haurra oraindik hizkuntzaz jabetu ez denean (1.H nahiz 2.H izan) adieraziak negoziatzerakoan hizkuntzaz kanpoko eta adinaren araberrako estrategia komunikatibo guztiak (keinuak, aurpegiaren adierazpena, begirada, gorputzaren tonua eta elkarrizketa, intonazioak, euskarri grafikoak eta abar) erabiliko ditugu.

Horrekin egoera oro har errazago ulertzen lagunduko dugu eta pixkanaka hizkuntza ulertzea eta erabiltzea ahalbidetuko dugu.

Ulertzea erraztuko duen hizketa-mota erabiliko dugu:

- Parafraziak edo errepikapenak erabiliko ditugu, hau da, ideia berak hainbatetan eta hainbat modutan formulatuko ditugu, ulertu gaituztela ziur jakin arte.
- Astiro hitz egingo dugu, esaldi laburrak erabiliko ditugu eta asko bokalizatu eta enfatizatuko dugu.
- Ingurunekeo hizketan ohikoa den lexikoa erabiliko dugu.
- Keinuen bidezko eta testuinguruko laguntzak erabiliko ditugu.

Gainera, gure egingo ditugu Wells-en ustez helduak kontuan izan beharreko lau printzipioak, elkar ulertzeari eta adieraziak negoziatzeari dagozkienak.

- Haurrak esaten duena arreta guztia merezi duen adierazpentzat joko dugu.
- Adierazi nahi duena ulertzeko ahalegin guztia egingo dugu.
- Haurrak adierazitakoa ondoren esango dugunaren oinarritzat hartuko dugu.
- Mezua aukeratu eta kodetzerakoan beti aintzakotzat izango dugu haurrak gure mezuak interpretatzeko duen ulermen-gaitasuna.

Interesei dagozkienak

Esperientziak dioenez, haurrari eskaintzen diogun jarduera beretzat interesgarria denean, hizkuntzaren agerpena berehalako samarra izan ohi da, bai iradokitzen dituen oroitzapenei dagokienean, bai aurkezten dituen zailtasunak gainditzera bideratutako adierazpenei dagokienean. Horrenbestez:

- Jarduerak ikuspegi orokortzaile batetik planteatuko ditugu, beti ere, orokortzaile hitzarekin edukiak, esanahi-unitatetan antolatzen direnak, barne hartzen dituen teknika eta esperientzia zehatz eta esanguratsuetatik abiatuta ezagutza lortzeko bidea adierazi nahi dugula gogoan izanik.
- Oro har, hizkuntza testuinguru erreal batean kokatuko dugu eta funtzionaltasuna eman-go diogu. Bestela esan, hizkuntza erabilgarri egiteko (komunikatzeko, saio atseginak egiteko eta gauza berriak egiteko) sistemarekin hizkuntzaz jabetzea ahalbidetuko dugu.
- Halaber, kontuan izango dugu hizkuntzaz jabetzeko eta garatzeko prozesuan haur bakoitzaren zein une ebolutibotan dagoen:
- Bruner-ekin bat gatoz hizkuntza, komunikatzeko eta adieraziak negoziatzeko markoan, hizkuntza menderatzen duen pertsona heldu batekiko elkarreragin-egoeretan maiz eta in-

teresarekin parte hartzearen bidez, ekintzari eta berehalako esperientzia zehatzei lotuta jaiotzen dela dioenean.

Horregatik, lehen une ebolutibo honetan, eguneroko bizitzako egoera anitz guztiak, haur bakoitzarekin banakako harremanak ezartzeko aukera eskaintzen digutenak, erabiliko ditugu, jolas moduan, hizkuntzaren oinarri diren lehen gizarte-konbentzioez jabetzea ahalbidetuko dioten gertakarien sekuentzia ordenatuak eskaintzeko. Horiek, berehala, hasiko dira erabiltzen. Brunerrek “formatu” deitu zituenak ditugu.

Gisa horretakoak ditugu agertzeko eta desagertzeko jolasak (ku-ku jolasaren aldaerak), gonon jolasak, eman eta hartzekoak, objektuak bilatzekoak, ohiko objektuak edo gorputzaren zatiak seinalatu eta izendatzekoak, ohiko irudiak irakurtzekoak, objektuak, laguntza eskatzeko eta jolasera gonbidatzeko formatuenak.

- Pixkanaka hizkuntza bertan ez dauden egoerei, ekintzei eta objektuei buruz jarduteko erabiliko dugu eta gisa horretan hizketaren dimentsio irudikatzailea garatuko dugu.

Haurrek iradokitako gaietatik, askotan zeregin bat egiten duten bitartean sortakoetatik abiatuta, Wellsek neska-mutilen arteko elkarrizketa naturaletan hizkuntzak izan ohi dituen erabilerei, hizkuntza alfabetizatua ondorio izango dutenei, dagokienean esandakoa kontuan izango dugu:

- Etiketak bilatzea: galdetzea eta gauzei izenak ematea.
- Adieraziak bilatzea: errealitatea interpretatzen laguntzea eta gertatzen denaren esanahia eta zentzua bilatzea.
- Berrikustea: elkarrekin bizitutako esperientziak berriz gogora ekartzea.
- Azalpenak: inguratzen gaituena deskribatzea eta horren inguruko azalpenak ematea.
- Gertakarien zerrenda: egiten ari garena edo egin berri duguna kontatzea, edo etorkizun hurbilean gertatuko denari edo egingo denari buruz hitz egitea.
- Kontakizunak: fikziozkoak diren ipuinak edo istorioak kontatzea.

Elkarreraginari dagozkionak

- Hizketa aktiboki barneratzea sustatuko dugu, gaia eta jarduera elkarganatu neska-mutilentzat ezagunak diren testuinguruetan. Gisa horretan, hitz edo esaldi bakoitzaren formaren, funtzioaren eta esanahiaren inguruko hipotesiak egiteko eta ingurunean entzuten duten hizketarekin egiaztatze aukera eskainiko diegu.
- Ez dugu hizkuntzaren alderdi jakin batzuei dagokienean ikasleak trebatzera bideratutako jarduerarik programatuko, aitzitik, hizkuntza jardueratik bertatik bat-batean, natural eta modu errealean sor dadin ahaleginduko gara. Gure interesa elkar ulertzean finkatuko dugu, adierazia urratsez urrats negoziatuz, jardueratik bertatik jaiotzen diren gaien inguruko elkarrizketa naturalen, errealean eta bat-batekoen bidez. Gure ustez, hitz egitea solaskidearekin adieraziak negoziatzea da, zeri buruz ari den eta halako hitz edo esaldi esaten duenean zer esan nahi duen asmatzea. Haurrak guk igorri nahi diogunari buruz zer dakien kontuan izan behar dugu, gure mezua bere ezagutzara egokitze.

- Naturaltasunez hitz egingo dugu, hori baita elkarrizketaren arauak menderatzen laguntzeko modu bakarra: hizkuntza egoki eta zuzen erabiltzen ikasteko hizkuntza hori menderatzen duen helduarekiko elkarreragin-egoeretan maiz eta interesarekin hartu behar da parte. Testuinguru horretan, neska-mutilek hitzak hitz horien erabilera gidatzen duten arau soziolinguistikoekin batera ikasten dituzte eta pixkanaka-pixkanaka beren adierazi guztia menderatzera iritsiko dira.
- Naturaltasunez hitz egiteak, besteak beste, lankidetzaren printzipioarekin zerikusia duten arauak betetzea esan nahi du. Grice-k honela definitzen ditu:
 - Kantitatea: behar baino gehiago ez esatea, bai azaleko azalpen hutsalei dagokienean, bai hizkuntzaren ekonomiak formulazio laburragoak erabiliz adieraztea ahalbidetzen duen esaldi luzeei dagokienean.
 - Koalitatea: egiazkoa izan behar du; hiztunak galderak egingo ditu hizketan ari direnari buruz jakin behar duen informazioaren inguruan. Ez da egiazkoa izango jada informazioa dugunean informatu nahi izatea.
 - Harremanak: ekarriak garrantzitsuak izan behar du, “zerbaiti buruz” hitz egin behar dugu. Horrek gaiari eustea eskatzen digu, elkarrizketako lankidetzaren ez etetea (adibidez kodeari buruz etengabe galdetzen dugunean sortzen diren etenak).
 - Modalitatea: eskuhartzeak argia, laburra eta metodikoa izan behar du.

Haurren hizketari dagozkionak

- Hizkuntza eraikitzekeko prozesuan hizkuntza erabiltzen duenean akatsak egitea ulergarria da: horiek neska-mutilek beren kabuz zuzenduko dituzte hizketa konbentzionalarekin naturaltasunez egiaztatzekeko aukera eskaintzen diegun heinean.
- Krashen-en ustez “isiluneek” haurra hitz egiten hasten den arte irauten dute eta horiek aintzat hartuko ditugu eta errespetatu egingo ditugu. Une horiek gainera ez dira berdinak izango haur guztien kasuan.

Helduek haurren hizketa zuzentzea

- Neska-mutilek egiten dituzten akatsak, lehen ere adierazi dugunez, hizkuntza eraikitzekeko prozesuaren adierazle dira eta horiek hizkuntzaren erabilera naturalaren bidez zuzentzen lagunduko diegu. Horretarako, albo batera utziko ditugu testuingururik gabeko errepikapenak eta ez ditugu arriskuan jarriko beren segurtasuna eta autoestimazioa.
- Zuzenketak hainbat modutan egiten saiatuko gara eta elkarrizketa eten ez dezaten ahaleginduko gara. Horretarako:
 - Esan duena errepikatuko diogu ulertu dugula azpimarratzeko.
 - Esan digunari informazioa erantsiko diogu.
 - Galderak egingo dizkiogu jada esan digunari informazioa gehi diezaion.
 - ...

Ahozko hizkuntzaz jabetzearen, hori erraztearen eta erabiltzearen inguruko espazioaren eta denboraren egituratzeari dagozkionak

Bereizi beharreko hainbat alderdi hartuko dira aintzat:

1. *Espazioak:*

- Jolastokiak: lorategia.
- Gela: jarduera, garbiketa, atsedena.
- Jangela.
- Kalea.

2. *Jarduera:*

- Askea edo/eta bat-batekoa.
- Gidatua.

3. *Partehartzaileak:*

- Banaka: haurra <—>hezitzaile,
<—>hezitzaileak.
- Taldeka: haurra <—>hezitzailea,
<—>hezitzaileak.

4. *Denbora:*

- Jarduera gauzatzeko edo gauzatu ahal izateko erreferentziako ordutegiak.

5. *Maiztasuna: 3 izen erabiliko ditugu:*

- *Egunerokoa:* Zentrora datorren haurrak *egunero* egingo duela ziur dakigunean.
- *Ohikoa:* Egunero gerta daitekeenean baina gauzatuko den gertakariaren edo harremanaren arabera edo horrek baldintzatutakoa denean (gauza guztiak ezin dira aurreikusi, eta ez dira une berean gertatzen).
- *Noizbehinkakoa:* Bakanagoak eta puntualagoak direnean.

6. *Funtzioak:* 4 multzo handitan taldekatuko ditugu:

- Diskurtsiboak.
- Ekintza eta jarduerakoak.
- Informatiboak.
- Jarrerazkoak.

Gainera kontuan izango dugu gelako espazioa eta materiala modu egituratuan banatuko dela, banakako eta talde txikiko harremanak erraz ditzan, bai haurren artean bai hezitzailearekin.

Eskolako hizkuntza eta familiakoa desberdina den kasuetan ziurtatu egingo dugu helduaren eta haur horren arteko harremanak eta elkarreginak egunero hainbat egoera eta momentutan gauzatzen direla.

Denbora haur bakoitzarekin bere banakako premien arabera elkarreragiteko banatzen saiatuko gara.

1. ahozko hizkuntzaren erabilera denborari eta espazioari dagokienean:

ESPAZIOA	AHOZKO HIZKUNTZAREN ERABILERA (taldea eta taldea edo/eta ikasleak)	MAIZTASUNA	DENBORA	FUNTZIOAK	
<i>Jolastokia Lorategia</i>	– Jasotzeko. Agurtzeko.	<i>Egunerokoa</i>		Diskurtsoa	
	– Eskaerak. Une gatazkatsuetako. (borroka, erorketak) <i>erantzunak</i> . Atsekabea. Banaketa. Familia.	<i>Ohikoa</i>	7:30-10	Ekintzak	
	– Erantzuna. Premia puntualetako eskaerak: <ul style="list-style-type: none"> • Komuna. • Mukiak. • Arropa (lotu, kendu, jantzi). 	<i>Egunerokoa</i>	16-17:15 Haur bakoitzaren banakako ordutegia-ren arabera.	Informatiboa	
	– Gai edo arrazoi interesgarri edo esanguratsu bati buruzko elkarizketa.	<i>Noizbehinkakoa</i>		Jarrerak	
	– Kontsignak (+ aginduzkoak): <ul style="list-style-type: none"> • Arriskua. • Debekua. 	<i>Ohikoa</i>			
B A N A K A K O A A S K E A E D O / E T A B A T - B A T E K O A	J A R D U E R A K	– Honetara bideratutako azalpen-kontsignak: <ul style="list-style-type: none"> • Premia konkretuetara. • Proposatzerak. Iradokitzerak. • Argitzera. Kokatzerak. • Mugatzerak. Eustera. • Onartzerak. Ukatzerak. 	10etatik 11:30ra	Diskurtsoa	
		– Haurrak, ahoz nahiz ahoz izan gabe, proposatutako edo egindako galderen erantzunak: <ul style="list-style-type: none"> • Funtzionamendu-jarraibideak • Jarduerak gauzatzeko jarraibideak. • Desio eta asmo pertsonalak. 		<i>Egunerokoa</i>	Jarrerak
		– Kontsigna puntualak eskaintza. Eskaera.	<i>Egunerokoa</i>		
		– Kontsigna puntualak (+ aginduzkoak). – Arriskua. Debekua.	<i>Ohikoa</i>		
G E L A	G A R B I K E T A	– Ekintzak: <ul style="list-style-type: none"> • Aldatzea. Garbitzea. • Janzteak. Erantzuteak. • Komunera joatea. (Jolastokian ere erabiliko da garbiketarako espazioa.) 	<i>Egunerokoa</i>	Haurren ordutegi guztian zehar.	Ekintzak Informatiboa Jarrerak
	A T S E D E N A	– Erlaxazioa – Lo hartzea – Eskaera baten erantzuna (haurrenak) <ul style="list-style-type: none"> • Objektuen premiak • Fereken eta helduaren presentziaren premia. 	<i>Egunerokoa</i> <i>sehaskakoentzat</i> <i>siesta egiten</i> <i>dutenentzat</i>	Sehaskakoak goizetan. Siestak: 13:15-15:30	Ekintzak Informatiboa Jarrerak

2. Ahozko hizkuntzaren erabilera denborari eta espazioari dagokienean:

ESPAZIOA	AHOZKO HIZKUNTZ ERABILTZEA	MAIZTASUNA	DENBORA	FUNTZIOAK	
B A N A K A K O A	J A N G E L A	– Janaria eskaintzeko eta jaten emateko. – Jateko gogoia eta gozamina motibatzeko.	11:30-13 Jangela erabiltzen dutenen kasuan.	Ekintza. Jar-duera Informatiboa Jarrerak	
		– Honetarako-kontsignak emateko: • Mahai tresnak erabiltzeko. • Eseritzeko. • Hainbat janari-mota jateko.			<i>Ohikoa</i>
		– Galderen erantzunak emateko: • Janariaren ingurukoak. • Premia puntualen ingurukoak.			<i>Ohikoa</i>
		– Jateko modua itzartzeko: • Kopuruak. • Gustuak. • Jarrerak eta abar. • Autonomia, trebetasuna.			<i>Ohikoa</i>
		– Eusteko eta mugatzeko, honako jarrera afektiboen aurrean: • Positiboen aurrean. • Gatazkatsuen aurrean.			<i>Ohikoa</i>
e d o / e t a B a t - b a t e k o a k	K A L E A K	– Egindako galderen erantzunak emateko: • Objektuei, pertsoneri eta abarri buruzkoak.	10-11 Paseatzera ateratzen direnean.	Ekintzak. Jar-duera Informatiboa Jarrerak	
		– Laguntza- edo Lankidetzak eskaeren erantzunak emateko:			<i>Noizbehinka</i>
		– Sortzen diren egoeren araberako. Azalpen eta agindu puntualak emateko: • Objektu esanguratsuak. • Arriskua. • Berritasuna. • Beldurra eta abar.			<i>Noizbehinka</i>

3. ahozko hizkuntzaren erabilera denborari eta espazioari dagokienean:

ESPAZIOA	AHOZKO HIZKUNTZAREN ERABILERA (taldea eta taldea edo/eta ikasleak)	MAIZTASUNA	DENBORA	FUNTZIOAK
B A N A K A K O A	– Eskainitako edo proposatutako jardueren inguruko Erantzunak emateko eta galderak editeko: <ul style="list-style-type: none"> • Garbiketa. • Adierazpen grafiko-plastikoa. • Eraikuntzak. Mugimenaren trebetasuna, abilezia. • Ipuinak. Abestiak. Txontxongiloak. • Jatea. • Txokoen jolasa. • Bat-bateko jolasa. 	<i>Egunerokoa</i>	10-11-45	Diskurtsoa Jarduera. Ekin-tza Informatiboak Jarrerazkoak
	– Kontsigna eta jarraibide pista-orokorrak. <ul style="list-style-type: none"> • Ezagutza materiala. • Erabilpen materiala. 	<i>Egunerokoa</i>		
	– Honetara bideratutako kontsignak emateko: <ul style="list-style-type: none"> • Ardurara. • Aukeretara. (Materialaren erabileraren eta aukerak). • Eskaerara. 	<i>Ohikoa</i>		
G I D A T U A	– Eskaera lankidetzarako: <ul style="list-style-type: none"> • Tresnak erabiltzea. • Tresnak biltzea. • Garbiketa puntuala. • Batak eta lerre-zapiak janztea eta kentzea. 	<i>Egunerokoa</i>	11:45 - 13:15 Jangela. (Erabiltzen dutenen kasuan.)	Ekintza. Jarduera Informatiboak Jarrerazkoak
	– Iritzien inguruko interesa agertzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Jaten ari denari buruzkoak. • Bere lehentasunei, gustuei... buruzkoak. 	<i>Egunerokoa</i>		
	– Funtzionatzeko koordinatuak hitzartzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Kopuruak. • Nola jan. Gehiago nahi izatea. • Ugaritasuna. • Bukatzea. Ez bukatzea. • Garbitasuna. Trebetasuna. • Eseritzeko, mahaian egoteko modua. • Onartzen dena eta onartzen ez dena. • Baimentzen dena eta ez dena. 	<i>Egunerokoa</i>		
	– Honakoen inguruko azalpenak, kontsignak emateko: <ul style="list-style-type: none"> • Tresnen erabilera. • Eseritzeko modua. • Janari-motak (ezaguna, ezezaguna, hainbat elikagai). 	<i>Egunerokoa</i>		
	– Eusteko-mugatzeko-onartzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Egoera afektiboak: gatazkatsuak eta positiboak. • Oinarrizko arauak errespetatzea. 	<i>Ohikoa</i>		

4. ahozko hizkuntzaren erabilera denborari eta espazioari dagokienean:

ESPAZIOA	AHOZKO HIZKUNTZAREN ERABILTZEA	MAIZTASUNA	DENBORA	FUNTZIOAK	
T A L D E K O A	JOLAS- -TOKIA / LORA- TEGIA	<p>– Proposamenak eta Kontsignak emateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Materiala biltzea. <p>– Taldeko jolasen/jardueren proposamenak.</p> <p>– Jokabideei eta jarduteko jarraibideei dagokionean, egitako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Taldeak. • Kalejirak. • Lasterketak. • Uretako jolasak. • Abestiak antzeztea. • Taldean abestea. • Ospakizunak. • Honakoei buruzko ipuinak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Jardueri buruzkoak. ▪ Ospakizunei buruzkoak. • Honakoen inguruko kontsignak eta jarraibideak emateko: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabiltzea ▪ Arriskua ▪ Debekua (Erabiltzeko materiala eta espazioa) • Honakoen inguruko jokabide-jarraibideei: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Errespetua (Pertsonak) ▪ Segurtasuna (Espazioa) ▪ Zaintza (Objektuak) 	<p><i>Ohikoa</i></p>	<p>7:30-9:45</p> <p>13-13:30 Jangelakoek</p> <p>16-17:15 hur bakoitzaren ordutegien arabera</p>	<p>Diskurtsoa <i>Ekintzak. Jar- duera</i> Informatiboa Jarrerak</p>
	G I D A T U A	G E L A	<ul style="list-style-type: none"> • Honakoen inguruko galderak egiteko eta erantzunak emateko: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Identitatea ▪ Presentzia/ausentzia ▪ Ezaugarriak (Taldeko kideak) • Jarduerak eskaintzeko eta proposatzeko <ul style="list-style-type: none"> ▪ Banakako atalean agertzen diren guztiak • Jarraibideak eta pistak, beren sekuentziazioari (tenporala) dagozkienak, emateko. • Kontsignak, jarraibideak emateko gelako materialen eta aukerei dagokionean. • Jokabide-jarraibideak emateko: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Errespetua (Pertsonak) ▪ Segurtasuna (Espazioa Objektuak) <p>(Parte hartuko dutenak edo bertan daudenak)</p>	<p><i>Egunerokoa</i></p> <p><i>Egunerokoa</i></p> <p><i>Ohikoa</i></p> <p><i>Ohikoa</i></p>	<p>10-11:30</p> <p>11:45</p> <p><i>Ohikoa</i></p>

ESPAZIOA	AHOZKO HIZKUNTZAREN ERABILTZEA	MAIZTASUNA	DENBORA	FUNTZIOAK
<p>NAGUSIKI ERDIKO MAILAKOEN</p> <p>ETA</p> <p>HANDIENEN GELAKO-ENTZAT</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kontakizunetan. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ipuinak ▪ Ospakizunak. ▪ Festak ▪ Jango dutena <p>(Epe motzera gertatuko direnak/ aurreikuspenak. Iraupen max.: 10-15”</p> <ul style="list-style-type: none"> • Talde elkarrizketetan <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasleen protagonismoa ▪ Eguneroko ekintza esanguratsuak <p>(Eragina izan duten, kezkatzen gaituzten, beldurtzen dituzten eta</p>	<p><i>Noizbehinka</i></p>		

5. ahozko hizkuntzaren erabilera denborari eta espazioari dagokienean:

ESPAZIOA	AHOZKO HIZKUNTZAREN ERABILTZEA	MAIZTASUNA	DENBORA	FUNTZIOAK	
B A N A K A K O A A S K E A E D O / E T A B A T - B A T E K O A	G E L A				
		<ul style="list-style-type: none"> - Honako inguruko jokabide-jarraibideak emateko: <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzeta. • Entzutea. • Arreta. • Errespetua. • Txanda. - Jarraibideak, espazio honi buruzko pistak emateko. 	<i>Ohikoa</i>	10-11:45	
	S U K A L D E	<ul style="list-style-type: none"> - Sukalde-jangelarekin zerikusia duen kontakizunak kontatzeko. - Espazio horietan esku hartzen duten pertsonak aipatzeko. - Horiekin lotura duten pertsonen deskribapen eta aurkezpenak egiteko - Ohikoa eginbeharretan bere testuinguru naturalean. - Elikagai zehatzak eskaintzeko. <ul style="list-style-type: none"> • Esnea, gailetak, fruta. • Ura, ogia: <ul style="list-style-type: none"> Hainbat kantitatekoak. - Edalontziak erabiltzeko erabilpen-jarraibideak emateko. - Jokabide-jarraibideen kontsignak emateko: <ul style="list-style-type: none"> • Errespetua (Objektuak). • Tolerantzia (Pertsonak). • Arriskua (Espazioa). - Taldeko elkarrizketak egiteko eta ikasleei protegonismoa emateko. 	<i>Egunerokoa</i>	+15 min.	Diskurtsoa Ekintza. Jar- duera Informatiboa Jarrerak
	<ul style="list-style-type: none"> - Espazio honen inguruko jarraibideak-pistak emateko. - Kontsignei, jokabide-jarraibideak emateko: <ul style="list-style-type: none"> • Errespetua (Objektuak). • Tolerantzia (Pertsonak). • Arriskua (Espazioa). - Deskribapenak egiteko: <ul style="list-style-type: none"> • Elikagaiak. • Erabiltzen diren hainbat objektu. - Kontsumitu beharreko elikagaien (bertan daudenen edo ezagutzen dituztenen) <i>koalitateei eta propietateei buruzko iruzkinak</i> egiteko eta pistak emateko. - Kontsignak emateko eta lankidetzakaerak egiteko: <ul style="list-style-type: none"> • Materiala biltzea. • Lerde-zapiak eta abar kentzea. (Jangela erabiltzen dutenentzat)	<i>Egunerokoa</i>	11:45-13	Diskurtsoa Ekintza. Jar- duera Informazioa Jarrerak	

6. ahozko hizkuntzaren erabilera denborari eta espazioari dagokienean:

ESPAZIOA	AHOZKO HIZKUNTZAREN ERABILTZEA	MAIZTASUNA	DENBORA	FUNTZIOAK
T A L D E A K K A L E A K G I D A T U A	<p>– Jarraitu beharreko jokaeraren inguruko jarraibideak eta kontsignak ematko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Segurtasuna (“Bestea”). • Debekua (Taldea). • Errespetua (Pertsonak oro). • Tolerantzia <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lekuak ▪ Objektuak ▪ Animaliak <p>– Honakoen jarraibideak emateko eta deskribapenak egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egin beharreko ibilbideak (kokaleku espazialak) • Erreferentzia-puntuak (auzoa, zentroa...) <p>– Honakoen deskribapenak egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Objektuak • Pertsonak • Animaliak • Espazioak • Lankideak (Oso anitzak dira hainbat testuinguru zabaletakoak.) • Garraioak, eta abar. (Kalean aurkidaitezkeen guztiak.) <p>– Irteteko, agurtzeko eta abarretarako.</p> <p>– Eguraldiaren araberakoa izango da, batez ere martxotik aurrera.</p> <p><i>Iraupena talde bakoitzeko adinaren eta bakoitzaren martxari, tolerantziari eta nekeari dagokion gaitasunaren arabera izango da.</i></p>	<i>Noizbehinka</i>	30" 45" 60" (1)	Diskurtsoa Ekintza.Jar- duera Informazioa Jarrerak

7. Jardueri beraiei dagozkienak:

Gogoan izan behar dugu jarduera haurraren interes-gune dela, eta, hori dela eta, jarduera ludikoa, ohikoa eta bat-batekoa sustatu beharko dugu —gure proiektuan zehatz adierazi dugu jarduera hori nola ulertzen dugun—, baina ez dugu besterik gabe haurra hori egiten utziko.

Horrenbestez, honako ezaugarri hauek izango ditu aldarrikatuko ditugun jarduerak:

- Haurrari zentroko pertsona helduekin harremanak eta elkarrekin izateko aukera eskainiko diete (hasieran bere erreferentzia-irudiarekin eta ondoren hori taldeko kide guztien-gana zabalduko da).
- Eguneroko bizitzaren —adierarik zabalenean ulertuta— premia eta eskaerekin (segurtasun, maitasun, jolas, jarduera- eta atsedeen-erritmo, elikadura eta garbitasuna aurkitzearekin eta abarrekin) zerikusia izango dute eta horiekin lotutakoak izango dira.
- Haurrak azkenean helduaren laguntzarekin aurkitu eta menderatuko dituen eta egitura propioa duten hainbat material erabiltzea erraztuko dute.
- Gero eta arau-egitura landuagoak dituzten jolasetan parte hartzea erraztuko dute.
- Jada menderatzen duten trebetasun-maila baino altuxeagoa den zailtasun-maila izango dute.
- Ezezagun edo hipotesiak hainbat modutan aurkitzeko aukera eskainiko duten gisan aurkeztuko dira.
- Esanahiren bat izango dute. Jada ezagutzen duten zerbaitekin izango dute lotura eta funtzio bat izango dute.
- Ikaste-uneko funtzionalitatea baino funtzionalitate zabalagoa izango dute: une jakin batean eta adierazi-marko zehatz batean ikasitakoa beste marko batzuetan eta denboran urrun daudenetan aplikatzeak zereginaren adiera indartzen du eta buruan loturak eraikitzea sustatzen du.

Jardueretan eman ohi diren ahozko pistei dagokienez:

- Kontuan izango da jarduerak zein testuingurutan planteatzen diren.
- Aurrerako eta aurrea hartzeko aukera izan beharko dute.
- Jarduera deskribatu eta horren inguruko berri eman beharko dute.

Azkenik, koadroan deskribatu den gisan, ahozko hizkuntzaren jarduerak haurrak eskolan ematen duen denboran zehar elkarreraginen eta harremanen egoera guztietan gertatzen diren jarduerak, eta ez ipuinaren orduan edo taldeko elkarrizketan gertatzen direnak bakarrik, direla azpimarratu nahi genuke. Une horiek (ipuinak, laminak, filminak, elkarrizketak, kontakizunak eta abar) garrantzitsuak dira, baina batez ere ohikoa dena indartzeko baliabide gisa eta hizkuntza erabiltzeko markoa zabalatzeko asmoz, beti ere, esanguratsuak eta haurren intereseko testuinguruekin lotutakoak direnean.

Garrantzitsua deritzogu, batez ere adin hauetako haurrekin, egoera artifizialeetatik edo labo-
rategiko egoera deiturikoetatik aldentzeari.

Hizkuntza plastiko (grafiko) artistikoa

Beste adierazpen-kanal —hizkuntza— batzuei eskainitako ataletan ondorengo jarduera-jarraibideek eta -irizpideek oinarritzat hartzen dituzten marko teorikoak azaltzen saiatu gara. Hori dela eta berariazko atal honetan ere ildo berari jarraituko diogu.

Erreferentzia teoriko gisa P.A. *Osterreich-ek Traité de Psychologie de l'enfant* -VI izenekoan haurren marrazkien originaltasunari eta horren bilakaerari eta aurrekariari buruz dioena hartuko dugu.

Ziur esan dezakegu, psikologoek eta gai honen inguruko interesa duten beste hainbat profesionalak egindako ikerketa eta azterketek hala bermatzen baitute, badela haur-grafismoa deiturikoa, jolasa edo haurren ahozko hizkuntza bezain berezia dena, eta jarduera grafiko horrek haurtzaroen berezkoak izan behar duten funtzioa eta adierazia dituela.

Haur-jolasaren hasieran gertatzen den gisan, jarduera grafikoa izatera iritsiko denaren hasieran ere egiazta daiteke mugimenduari lotutako plazer funtzionala. Gero beste alderdi eta dimentsio batzuk ere egongo dira inplikaturak (hainbat sentimenetakoak, zintestikoak, kognitiboak eta, batez ere, afektiboak).

Oro har haurra arkatzez edo iraupen luzeagoa nahiz laburxeagoa izango duen “trazu edo arrastoren bat” egitea ahalbidetuko dion edozein tresnaz jabetzen den unean kokatu ohi dugu jarduera grafikoa, baina badira jarduera horren aitzindariak har genitzakeen beste jarduera batzuk: txikitzea, puskatzea, zikintzea, kakaztea eta abar, haurren atsegingarri direnak. zikintzea, arrastoa uztea, trazatzea kanporako efektu bat egitea da, nolabait ere ingurunea aldatzen du, norberaren arrastoa ezarriz jardundakoa aldatzen du.

Mendebaldeko kulturaren dirudienek beharrezko iritzi zaio jarduera horiek ekar ditzaketelarik mugatzeari. Alabaina, aldi berean haurraren sentimenei eta mugimenduari dagokien esperientziaren, adierazpen- eta sortze-esperientziaren aukerak ere mugatu dira.

Lowenfeld-ek, gaiari arteak haurrarentzat duen esanahiaren ikuspegitik heltzen dionak, honakoa planteatzen du:

Edozein heldurentzat artea zer den zehaztea zaila den arren, oro har esan dezakegu gehienetan edertasunaren eremuarekin, kanpoko estetikarekin duela zerikusia.

Neska-mutilentzat ziur asko artea oso bestelako zerbait izango da.

Horientzat artea nagusiki adierazteko bitarteko bat da. Horiek izaki dinamikoak dira eta beraien pentsamenduaren eta sentimenduaren hizkuntza da.

Hezkuntza artistikoan garrantzitsua haurraren prozesuak izan behar du, bere pentsamenduek, sentimenduek, pertzepzioek, inguruneari dagokionean dituen erreakzioek.

Gai honen inguruko beste ikuspegi bat “ikaskuntzaren oinarri gisa sentimenak hartzeari” dagokiona dugu. Sentimenen bidez ikasten badugu ere, oro har eskolak ez du askorik egin horiek hezteko. Haur Hezkuntzako zentroetan manipulazioa, aurkitzea, mugitzea eskatzen duten gisa horretako jarduerak barne hartzen diren arren, horietako gehienak berez finak bailiran irakasten dira. Asmoa hainbat trebetasun-mota garatzea dela dirudi eta ez horiek adierazteko bitarteko gisa erabiltzen saiatzea.

Hiru ikuspegi horiek aukeratu ditugu jarduera eta adierazpen (grafiko) artistiko-plastikoa haurtzaroko berezko jarduera gisa —horretarako aukera eskaintzen badugu— kokatzeko erreferentzia gisa. Bestalde, hizkuntza hori planteatzen ari garen komunikatzeko eta adierazteko ka-

nal eta estrategia horien zati dela eta horiek sustatzea eta laguntzea komenigarria dela —izan ere, aberasgarri eta gozagarri dira eta oreka pertsonala eskaintzen dute— uste dugu.

Hizkuntza plastiko-artistikoaren inguruko irizpideak:

- Jarduerak hainbat proposamen ireki eskaini behar dituzte eta horiek aurkitzea, esperimentatzea eta sortzea ahalbidetu behar dute.
- Jarduerak errudunik izango ez den markoan planteatu behar dira, materialak erabiltzeari eta lantzeari dagokionean ahalik eta muga gutxien izango dituen markoan. Nolanahi ere ez ditugu ahaztu behar taldeko kide guztien segurtasunak ezartzen dituen mugak.
- Proposamenek gure irakasleek dituzten aurretiazko ezagutzak izango dituzte kontuan.
- Prozesuari eta ekoizpenari garrantzia emango zaie eta ekoizpena banakako edo/eta taldeko sortze gisa interpretatuko dugu.

Alderdi horri dagokionez adieraztekoa da ez dagoela erantzun on edo egokirik, guztiak dira baliagarriak eta garrantzitsuak eta horren arabera baloratu behar ditugu.

- Proposamenek adierazpenak sortzeko eta lantze plastiko-artistikoak egiteko aukera eskainiko duten hainbat material, tresna eta euskarri ezagutzea, esperimentatzea eta erabiltzea eta horietara ohitzea ahalbidetu eta estimulatu beharko lukete.
- Proposamenak ikasleentzat irekiak izango badira ere, hezitzaileek markoa, egitura eta proposatuko dena baloratu, ebaluatu eta prestatuko dute, hau da, proposamen horiek seriotasunez formulatuko dituzte.
- Hezkuntza-taldeak proposamen horiek gauzatu ahal izateko giza baliabideak nahiz baliabide materialak egituratu eta antolatu beharko ditu.

2.2.2.4. Edukiak multzoka

III. eremua : komunikazioa eta errepresentazioa

1. MULTZOA: HITZEZKO HIZKUNTZA		
<i>Prozedurazkoak</i>	<i>Jarrerazkoak</i>	<i>Kontzeptuzkoak</i>
<p><i>Ulermena</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Pertsona helduen komunikazio-intentzioak ulertzea (<i>batez ere erreferentziazkoak eta harremanean esanguratsuak direnak</i>) 2. Objektu, pertsona edo/eta egoera ezagunen edo/eta testuinguruan ondo kokatutakoen deskribapen errazak ulertzea. 3. Iraganeko (ez oso urruneko) gertakarien, esperientzien, eta egoeren deskribapen errazak ulertzea euskarri bisualetan edo ikus-entzunezkoetan oinarrituz edo horiek testuinguruan ondo kokatutako egungo egoerekin lotuz. 4. Ipuinei eta oraingo eta iragan hurbileko gertakizunei buruzko kontakizun laburrak ulertzea beste mota batzuetako euskarrietan oinarrituz. 5. Testuinguru esanguratsuetan esperientzia-eremu guztiekin zerikusia duten gertakizunei, kontzeptuei eta jarrerei dagokien oinarritzko lexikoa ulertzea eta erabiltzea. 6. Hizkuntzaz kanpoko adierazgarriak (intonazioa, keinuak, aurpegiaren adierazpenak eta abar) erabiltzea jasotzen edo igortzen diren mezuen esanahia interpretatzeko eta indartzeko. 7. Kultur tradizioko testu batzuk ulertzea eta ekoiztea (talde-abestiak, haur-abestiak eta abesti herrikoiak, edo atsoitz edo abestutako bertso laburren bat). 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahozko hizkuntza sentimenduak, ideiak eta norberaren interesak komunikatzeko eta adierazteko tresna gisa onartzea eta baloratzea eta besteenak ezagutzen hastea. 2. Hainbat motatako ahozko komunikazioko egoeretan eta moduetan (abestietan, talde-jolasetan, kontakizunetan, azalpenetan, talde-elkarrizketetan eta abarretan) parte hartzeko interesa eta ekimena. 3. Norberaren hizkuntz ekoizpenak aberasteko eta hobetzeko interesa eta ahalegina. 4. Kultur tradizioko testu edo kontakizun labur batzuekiko arreta eta interesa. 5. Beste ikaskide batzuen edo erreferentzia-helduen adierazpen eta elkarrizketekiko errespetua eta interesa eta horiek entzuteko jarrera izatea. 6. Norberarena (ama-hizkuntza) ez den hizkuntza bat hitz egiten dutenekiko errespetua. 7. 1.H edo/eta 2.Hn mezuak komunikatzeko eta ulertzeko aldeko jarrera. 8. 1.H edo/eta 2.Hn mezuak igortzen hasteko interesa eta aldeko jarrera. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahozko hizkuntza honakoak komunikatzeko eta adierazteko tresna gisa: <ul style="list-style-type: none"> – Komunikatzeko premiak. – Laguntza- edo lankidetzakaerak. – Desioak edo sentimenduak. – Informazioa (ematea nahiz eskatzea). 2. Ipuinak, poesiak, abestiak... (laburrak).

1. MULTZOA: HITZEZKO HIZKUNTZA (jarraipena)		
<i>Prozedurazkoak</i>	<i>Jarrerazkoak</i>	<i>Kontzeptuzkoak</i>
<p>8. Testuinguruan ondo kokatutako egoeretatik abiatuta ulertzea (bizipenak, ekintzak, 2.Hko hitz eta esapideen esanahien testuinguru linguistikoa eta estralinguistikoa).</p> <p><i>Mintzamena</i></p> <p>1. Informazioei, premiei, emozioei eta desioei buruzko mezuak igortzen hastea.</p> <p>2. Eguneroko bizitzako zati diren objektuen eta pertsonen deskribapenak (azalekoak) egiten hastea.</p> <p>3. Hainbat motatako esaldiak erabiltzen hastea (baiezkoak, ezezkoak eta batzuetan aginduzkoak eta harridurazkoak).</p> <p>4. Beraien eta berarentzat esanguratsuak diren pertsonen inguruko eguneroko bizitzako gertakizunei buruzko kontakizun (laburrak) gogoratzen eta kontatzen hastea.</p> <p>5. Elkarrizketa laburrak hastea eta horiek jarraitzea, bai pertsona bakar batekin, bai hainbatekin. Hizkuntz truke horiek zuzentzen dituzten arauak —<i>arreta eskaintzea, txanda zaintzea...</i>— erabiltzen hastea.</p> <p>6. 1.H edo/eta 2.Hn besteekin harremanak izateko gizarte-formak erabiltzen hastea: <i>agurrak, esker-tzak, jardueretan edo jolasetan parte hartzeko eskaerak, espazioa, materialak eta, oro har, objektuak erabiltzeko eskaerak.</i></p> <p>7. 1.H edo/eta 2.Hn premiei, berriei, emozioei eta desioei buruzko ahozko mezuak igortzen hastea.</p>	<p><i>Idatzizko hizkuntzarako hurbilpena</i></p> <p>1. Pertsona helduek irakurritako ipuinak entzuteko eta ikusteko gustua eta plazerra.</p> <p>2. Ipuinak zaintzea komunikatzeko eta adierazteko tresna baliotsu gisa eta horiek beren kabuz erabiltzen hasteko desioa.</p> <p>3. Idatzizko hizkuntza darabilten komunikazio-tresna batzuekiko interesa (<i>eguneroko koaderno-txo, historia pertsonala, ipuin eta abarrekiko</i>).</p>	

1. MULTZOA: HITZEZKO HIZKUNTZA (jarraipena)		
<i>Prozedurazkoak</i>	<i>Jarrerazkoak</i>	<i>Kontzeptuzkoak</i>
<p>8. Testu errazak ekoiztea (abestiak, poesia edo bertso laburren bat) 1.H edo/eta 2.Hn.</p> <p><i>Idatzizko hizkuntzarako hurbilpena</i></p> <p>1. Idatzizko testuak dituzten irudiak, kartela, grabatuak eta argazkiak erabiltzen eta interpretatzen hasia. Helduaren laguntzarekin batzuen eta besteen arteko harremanak eta esanahiak ezartzen hasiko dira.</p> <p>2. Pertsona helduek nahiz haur zaharragoek irakurritako kontaketak, ipuinak eta beste mezu batzuk —laburrak—ulertzea eta horiei arreta eskaintzea.</p>		

2. MULTZOA: MUSIKA ADIERAZPENA		
<i>Prozedurazkoak</i>	<i>Jarrerazkoak</i>	<i>Kontzeptuzkoak</i>
<p>1. Norberaren gorputzaren, objektuen eta inguruko soinuaren soinu-aukeretara pixkanaka ohitzea eta horiek bereiztea.</p> <p>2. Oinarrizko kontraste batzuk bereizten hasia: <i>Luzea/laburra. Indartsua/leuna.</i></p> <p>3. Beste ahots eta soinu batzuk (gizakienak, objektuenak, natura-koak —<i>animalienak, eguratsaren fenomenoak eta abar</i>— hirikoak eta abar), ezagutzea eta askatasunez imitatzea.</p> <p>4. Oso soinu eta erritmo errazak ekoiztea norberaren gorputzaren, objektuen eta musika-tresna batzuen (turutak, danborrak, marakak, kriskitinak, zinbaloak, xilofonoak eta abar) soinuaren eta erritmoaren aukerak arakatzearen bidez.</p> <p>5. Ahotsaren tonua modulatuaz sentimenduak adieraztea.</p> <p>6. Mugimendua/soinua, hitza/soinua bizitzen eta koordinatzen hasia abestien, erritmoen eta ipuin laburren bidez.</p>	<p>1. Musika-adierazpena baloratzea sentimenduak, emozioak, gogol-darteak eta abar adierazteko eta komunikatzeko kanal gisa.</p> <p>2. Tentsioa eta emozioak arintzea errazten duten bat-bateko soinuez eta kantuaz gozatzea.</p> <p>3. Dantzaz eta norberaren gorputzaren erritmo-aukerez gozatzea.</p> <p>4. Erlaxatuta eta arretaz egotea hautatutako edo beste jarduerak batzuekin (atsedenarekin, erlaxazioarekin eta abarrekin) lotutako entzunaldietan.</p> <p>5. Folklore eta beste kultur adierazpen batzuk baloratzea eta horiekiko interesa izatea.</p>	<p>1. Zarata-soinuaren inguruko lehen ikasgaiak. Isiltasuna, musika.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ingurunekeo zarata eta soinuak. – Isiltasuna. – Ahotsak (beste ikaskide, haur eta heldu batzuenak). – Norberaren gorputzaren soinuak, zaratak (haizeak, ahotsa, garrasia, arnasa, bihotza, txaloak eta abar). <p>2. Norberaren gorputzaren, ohiko erabilera duten objektuen eta zenbait musika-tresnaren soinuezazgarriak.</p> <p>3. Folkloreko abesti errazak, haur-abestiak, dantza herrikoiak, dantza errazak.</p>

3. MULTZOA: GORPUTZ-ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA		
<i>Prozedurazkoak</i>	<i>Jarr.</i>	<i>Kontz.</i>
<p>1. Gorputz-adierazpenaren oinarritzko baliabideak (<i>mugimendua, keinua, tonua, jarrera, irribarrea, negarra, garrasia, hitza eta abar</i>) aurkitzea eta esperimintatzea, banaka nahiz taldeka, sentimenduak, emozioak eta norberaren eta besteen desioak adierazteko eta komunikatzeko bitarteko gisa.</p> <p>2. Honakoen inguruan ditugun mugimen-aukerak erabiltzea eta bizitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Espazioa</i> (espazio psikoafektiboari segurtasuna/segurtasun-ezari, menpekotasuna/askatasunari, ezaguna/ezezagunari, onartua/baztertuari, norberarena/besteenari dagozkien hainbat desplazamendu, oreka; espazioa norberaren eta besteen gorputzen eta objektuen arabera hautematea; espazioan orientatzen hastea). – <i>Denbora(bizitutakoa)</i> Ausentzia/presentzia, itxaronaldia, berehalakotasuna, frustrazioa onartzea, norberaren/besteen denbora, erritmoa, denbora hautematen eta bertan orientatzen hastea eta abar. – <i>Objektuak</i>; Eraikitzea/suntsitzea, onartzea/baztertzea, ordenatzea/sakabanatzea, guztia hartzea/elkarbanatzea, elkartrukatzea, arakatzea, bitartekaritza egitea. – <i>Pertsonak</i>: Onartzea/baztertzea, hurbil/urrun, jabetza, menperatzea, eraso, baieztatzea, men egitea, partehartzea, trukea, banakako/taldeko harremana eta abar. <p>3. Norberaren sentimenduak, desioak eta emozioak askatasunez adieraztea gorputzak komunikatzeko dituen kanalen bidez.</p> <p>4. Mugimen-aukerak adierazteko eta komunikatzeko intentzioarekin erabiltzen hastea.</p> <p>5. Mugimen-aukerak elkarrengaitzeko eta harremanak izateko bitarteko gisa bizitzea eta erabiltzea.</p> <p>6. Norberaren mugimendua, tonua eta jarrera gainerako espaziora, mugimendura, tonura eta jarrerara egokitzea pixkanaka aktiboki bizitzea eta esperimintatzea.</p> <p>7. Objektuak adierazteko eta komunikatzeko bitartekaritzarako eta trukerako tresna gisa objektuak erabiltzearen inguruan aktiboki bizitzea eta esperimintatzea.</p> <p>8. Espazioak mugimen- eta oro har jolas-jarduerako eraikitzearen inguruan aktiboki bizitzea eta esperimintatzea, objektuak arakatu, aukeratu eta mugitu ahal izateko.</p> <p>9. Norberaren jarduera taldearen eskakizunetara pixkanaka egokitzen hastea (horretarako abiapuntua talde egonkorra eta erreferentziakoa izango da, egokitze hori talde heterogeneoetara eta zabalagoetara egokitu ahal izateko).</p> <p>10. Gorputz-eskema pixkanaka eraikitzen hastea (bizituz, barneratuz eta ondoren irudikatuz).</p> <p>11. Ikaskideekin eta helduekin zeregin komunak egiten eta koordinatzen hastea, izan ere, gisa horretan, pixkanaka laguntza eskatu ahal izango dute.</p> <p>12. Pixkanaka hainbat egoera dinamiko —lasaitasuna eta binakako edo taldekako harremanak— eskatzen dituzten egoeretan eta mugimen-jolasetan <i>egoteko</i> gaitasunaz jabetzen hastea.</p> <p>13. Jarduera psikomotoreen elkartrukeetan komunikatzeko intentzioak ulertzen hastea.</p>		

4. MULTZOA: ADIERAZPEN PLASTIKOA ETA BISUALA		
<i>Prozedurak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p>1. Zikintzea, arrastoak uztea edo edozein ekoizpen plastiko egitea ahalbidetzen duen edozein material, tresna edo euskarri manipulatzeko, esperimendatzea eta erabiltzea.</p> <p>2. Adierazpen plastikorako aukerak aurkitzea eta erabiltzea: zikintzea, txikitzea, marraztea, margo-tzea, modelatzea, collagea eta abar.</p> <p>3. Materialak, tresnak eta euskarriak hainbat modutan erabiltzea adierazteko, sortzeko asmoz eta helburu estetikoarekin.</p> <p>4. Beren adierazpen aukerak aurkitzea eta erabiltzea bizipenen, fantasien, desioen, sentimenduen, errealitatearen ezagutzaren eta abarren inguruko langintza plastikoen bidez.</p> <p>5. Objektuen argitasuna-itzala, beroa eta forma hautematen eta bereizten hastea.</p> <p>6. Ehundurak, bolumenak, pisuak eta abar hautematen eta bereizten hastea.</p> <p>7. Begien eta eskuen arteko koordinazioaz pixkanaka jabetzea eta hori garatzea.</p> <p>8. Hainbat lanabes eta tresna pixkanaka kontsolatzen ikastea presioari, asmoari eta zehaztasunari dagokienean.</p> <p>9. Ekoizpen plastikoetan erabil daitezkeen materialak eta tresnak zaintzen hastea.</p> <p>10. Beren ingurunean gertatzen diren irudi-motak interpretatzen hastea.</p> <p>11. Obra edo ekoizpen artistikoren baten gaia identifikatzea.</p> <p>12. Giza irudiak identifikatzea (muralak, marrazkiak, ipuinak, argazkiak, bideoak eta abar).</p>	<p>1. Materialek, egoerek eta norberaren nahiz besteen ekoizpen plastikoen sortzen eta eragiten dituzten sententzio eta emozioak (gozamina, nazka, baztertzeko, beldurra, kontrol-eza, onartzea, atsegina eta abar) adierazteko aldeko jarrera izatea.</p> <p>2. Ekoizpen plastikoko eta bisualeko jardueretan parte hartzeko ekimena eta interesa.</p> <p>3. Adierazpen plastikorako aukerak (marrazkiak, margoak, modelatua, collagea, zikindua, txikitua eta abar) ezagutzeko interesa.</p> <p>4. Norberaren ekoizpenak egiterakoan gustua, interesa eta autonomia izatea.</p> <p>5. Norberaren eta besteen (berdinen nahiz helduen) ekoizpen plastikoen errespetatzea eta baloratzea.</p> <p>6. Material eta tresna plastikoen garbitzeko, zaintzeko eta erabiltzeko jarraibideak kontuan hartzeko aldeko jarrera izatea.</p>	<p>1. Materialak, tresnak eta euskarriak (erabilienak).</p> <p>2. Kolore-kategoria (oinarrizko koloreak)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Forma. - Tamaina. - Bolumena.

<i>Prozedurazkoak</i>	<i>Jarrerak, balioak eta arauak</i>	<i>Kontzeptuak</i>
<p><i>Materialez, tresnez eta euskarriez ari garenean honakoak ditugu gogoan:</i></p> <p><i>Materialak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Hainbat margo-mota. - Igeltsua. - Gomet-ak (hainbat). - Plastilina. - Buztina. - Irina. - Kola. - Hainbat paper-mota. - Ura. - Lurra. - Harea. - Elurra. - Ingurunearekin egindako materiala (hostoak, frutak, belarra eta abar). - Pureak, saltsak, gelatinak. - Hondakinetakako hainbat material. - Argazki-materiala. - Laminak. - Koadroak. <p><i>Tresnak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Arkatzak. - Zerak. - Errotuladoreak. - Pintzelak- hainbat. - Arrabola. - Esponjak. - Makilak-makiltxoak. - Guraizeak. - Kortxoak. - Hainbat ontzi. - Eskuak. - Oinak. - Trapuak. - Kuboak. - Makilak, moldeak. <p><i>Euskarriak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Mahaia. - Pareta. - Zorua. - Astoak. - Papera. - Kartulina. - Oihala. - Kartoia. - Plastikoa. - Enbalajea. - Ikus-entzunezkoak. - Hainbat plano: <ul style="list-style-type: none"> • Bertikalak. • Horizontalak. • Zeiharrak. 		

2.3. HEZKUNTZA-ESKUHAZTEAK

2.3.1. EGOKITZEALDIA

Egokitzealdiak jarduketa- eta eskuhartze-marko giltzarriak ditu gure zentroan, izan ere, adin horietan (0-3 urte artean) gertatzen den banaketari (amarengandik edo pertsona esanguratsua-rengandik bereizteari) garrantzi handia ematen diogu.

Ohartzen gara errealitateak berak eskatzen duela irudi horrekiko (amarekiko, aitarekiko edo ordekoarekiko) banaketa, hori “norbera” izateko, “hazteko”, beharrezko baldintza balitz bezala. Nolanahi ere kasu bakoitzean banaketa hori gertatzeko moduak garrantzi handia izango du NI/BESTEAK bereizteko, hezteko eta errealitatea nahiz norberaren burua ezagutzeko prozesuan.

Izan ere, askotan, harremanetarako zailtasunak, autonomia gutxi izateko aukera, nor bere buruarengan konfiantzarik ez izatea, erabat abandonatuta egoteko sentimenduak banaketa traumatikoen, gainditu, barneratu eta landu gabekoen ondorio izan ohi dira.

Gure helburua marko orokor batean aukerak eskaintzea, zailtasunik ez sortzea denez, gure zentroan sartzea amarengandik eta familia-eremutik bereizte gisa hartu behar dugu eta sartzeko hori, nahiz eta jakin ez dela samurra izango, banaketa traumatikoa izatea ekidinduz duten estrategien bidez egingo dugu. Horretarako:

Jardueraren antolamendua eta filosofia aldi hau ondoren adierazitakoak egiteko aurretiazko aldi gisa hartzerako bideratuko dugu:

- Banaketa traumarik sortu gabe jasateko eta barneratzeko (abandonatuta sentitzen dira erabat, gehiegizko segurtasun-eza dute behin eta berriz).
- Beste harreman-irudi batzuk ezagutzeko eta onartzeko (helduak nahiz haurrak).
- Beste espazio batzuk ezagutzeko eta onartzeko.
- “Indibidualizazio-prozesua” errazteko eta sustatzeko.

Honako koordinatu hauen arabera programatuko dugu:

- “*Banaketak*” dakarren zailtasuna onartuko dugu.
- Segurtasun-erreferentziak eskainiko ditugu:
 - Ausentzia/presentziaren erreferentziak ematen lagunduko duen ordutegi finkoari eutsiko diogu.
 - Jasagarriak diren ordutegiak proposatuko ditugu.
 - Hurrei gela berean egingo diegu harrera.
 - Beti pertsona berak egingo die harrera hurrei (tutoreak, ikasturte hasieran, lehenengo hilabeteetan gutxi gorabehera).
 - Hurrek familiako objektu esanguratsuak ekartzeko izan dezaketen beharra haute-man eta onartuko dugu.
- “Afektuz” jokatu dugu, egoera “entzunez eta ulertuz”, gaindituko dutelako uste ona eta lasaitasuna transmititzeko asmoz.
- Egoera eta espazio berri bat ezagutzea eta menderatzea ahalbidetuko dugu:

- Ikaskide berriak ezagutzea.
 - Zentroko jolasak, jostailuak eta objektuak ezagutzea.
 - Pixkanaka, premiaren eta tolerantziaren arabera, zentroko guneak erakustea.
 - Pixkanaka zentroko heldu guztiak ezagutzea. Horiek egoera normaletan eta egunero-koetan ezagut ditzaten ahaleginduko gara.
- “Irudi” berriak nahiz “espazio” berriak onartzeko norberak dituen erritmoak errespetatuko ditugu.
- Ongizatea eta plazerra eskainiko dituzten ekintzak eta esperientziak ahalbidetuko dituzten estimulu egokiak eta esanguratsuak eskainiko ditugu.
- Lotura egonkor eta segurua adieraziko duten banakako harremanak ahalbidetuko ditugu (hasieran taldeka sartuko dira).
- Haur bakoitzaren eboluzioa eta martxa behatuko ditugu eta laguntzeko eta gainditzeko aukera gehien eskainiko dituzten alderdiak eta gaitasunak bilatzen ahaleginduko gara. Behaketa horiek helburu horretarako prestatukotako fitxetan bilduko ditugu.
- Familiei lagunduko diegu, egoerak beraiei dakarzkien zailtasunak ere kontuan hartuz.
- Familiei zentroko ohiko zereginen berri emango diegu lasai daitezen eta segurtasuna izan dezaten.
 - Zuzeneko kontaktua eta ahal dela egunerokoa izango dugu iritziak aurka-jartzeko eta gurasoei aldi hori nola igarotzen ari den ezagutarazteko.
 - Asistentziari dagokionean erregularrak izatea landuko dugu zein komenigarria den azpimarratuz (asistentzia-aldagaia erregistratzea eta aztertzea).
 - Beren seme-alabak agurtzeak eta nora doazen, zer egingo duten eta noiz itzuliko diren adierazteak duen garrantzia landuko dugu.
- Familiekin batera haurarentzat egokiena izan daitekeen ordutegia prestatuko dugu. Horretarako honakoak hartuko ditugu kontuan:
- Hauraren berezitasunak eta aukera.
 - Familien premiak eta aukerak.
 - Beren taldearen berezitasunak.
 - Zentroaren benetako aukerak.
- Sortzen diren oztopoak edo zailtasunak ez ditugu ezabatu edo ukatuko, aitzitik, gainditzeko lagunduko diegu.

2.3.1.1. Tenporalizazioa

Jarduera hau honakoetan planteatuko da:

- Haur bakoitza hartzaindegian sartzen denean.
- Ikasturte hasieran.
- Egoera bereziak direla eta egoki irizten den guztietan (gaixotasunak, oporrak, ospitale-ratzeak edo antzeko egoerek eragindako ausentzia luzeak).

Tenporalizazio hori maila bakoitzean egingo da horietako bakoitzaren berezitasunen arabera:

Sehaskakoak

- Talde honetan haur guztiak ikasturte hasiera guztietan berriak direnez eta bi tutore izango dituztenez, ordu beteko txandak ezarriko dira —hasierako egonaldi gisa— eta binakako taldetan etorriko dira harrera egingo dieten helduekin banakako kontaktua izateko aukera izan dezaten (10 epe).
- Izan dezagun antolamenduaren arabera, agian haur guztiak ez dira egun berean hasiko.
- Denbora-tarteak (15 bat minutukoak) utziko dira taldeen artean familiekin hitz egin ahal izateko.
- Txandak pixkanaka-pixkanaka handitu egingo dira iraupenari nahiz talde bakoitzeko haurren kopuruari dagokienean, bakoitzaren onarpenaren eta aukeren arabera, beti ere familien premiak kontuan hartzeko ahalegina eginez.
- Lehenengo egunetan biberioa hartzeko orduak eta zentroan egotekoak bat etor ez daitezten ahaleginduko gara. Halaber, lehenengo egunetan haur-oihala ez aldatzen saiatuko gara —beharrezkoa ez den neurrian— hori egin behar duen pertsona pixka bat ezagutzen eta onartzen hasi arte. Gainera, lehenengo egunetan zentroan egoteko eta lotako orduak bat ez etortzeko ahalegina egingo dugu.
- Errazen non lo edo atsedean hartzen duten behatuko dugu:
 - bere kotxean edo koltxonetan
 - etzaulkian edo sehaskan
 - besoetan
- Pixkanaka sehaska proposatuko diegu leku egoki gisa. Sehaska hori beti bera izango da: “bera” eta beti leku berean kokatuko dugu, batez ere hasieran.
- Garbiketa-uneak ahalik eta gehien aprobeztatuko dira gorputz-kontakturako eta elkarre-ragin-jolaserako.
- Biberioa hartzeko orduak zentroan egoteko orduekin bat badatoz, une horiek une berezi gisa aprobeztatzen ahaleginduko gara. Horietan banaka, lasai eta erlaxatuta eskainiko diegu arreta ahal den neurrian gorputzaren, ikusmenaren, usaimenaren, tonuaren eta barren bidezko kontaktua erraztuz.
- Ahal den neurrian pertsona ezezagunak sartzeari ekidinduz da eta, nolana ere, pertsona ezezagun asko (beste guraso batzuk, beste hezitzaile batzuk, eta abar) ez elkartzeari saiatuko gara.
- Haurrak ezezagunaren aurrean angustia zein une ebolutibotan adierazten duen aintzat hartuko dugu eta une kritiko horietako exigentzia- eta jarrera-motak ahalik eta gehien zaindiko ditugu.
- Ordutegiak egokituko ditugu jarduera-erritmoak (atsedenarena eta elikatzearena) kontuan izanik.
- Familiei hitzartutako ordutegiari dagokionean seriotasunez eta puntual jokatzeko eskatuko zaie beharrezkoak ez diren angustia-egoerak (gosea, logura, nekea, atsekabea edo itxaronaldi luzea) ez sortzeko.

Txikiak

Maila honek bi gela izango ditu. Lehenengoan 8 haur berri egongo dira tutore batekin (8 plaza). Bigarrenean, berriz, sehaskakoen mailatik datozen haurrak izango ditugu. Talde hori osatuko duten gainerakoak berriak izango dira eta tutore bakarra izango dute (8 plaza)

Txikien 1. taldea

- Taldeko kide guztiak berriak direnez, bi txandatan sartuko dira. Erdiak lehenengo astean hasiko dira, bi hurreko taldean, eta ordu eta erdiko iraupena duten saioak izango dira. Bigarren astean beste erdiak hasiko dira, baldintza berdinetan, hau da, ordu eta erdiko egonaldia eta binako taldeak.
- Hasiara batean eta ahal den neurrian talde bakoitzaren artean tarte bat utziko dugu familiei arreta eskaini ahal izateko eta haur bakoitzaren harrera nahiz agurra lantzen joateko.
- Pixkanaka ordutegiak luzatuko ditugu haur gehiagoko taldeak –ordutegiaren zati batean– bat etortzen hasi arte. Horrek elkar ezagutzen eta onartzen lagunduko du.
- Hasierako taldeak osatzeko, lehenengo astean zeintzuk eta bigarrean zeintzuk hasiko diren erabakitzeko, kontuan hartuko diren irizpideak honakoak dira:
 - Lehenengo egunetik asistentzia errealia izateko aukera (oporrak, gaixotasunak eta bestelakoak).
 - Familien premiak (biek lan egiten duten eta zein baliabide dituzten).
 - Ikasturtean zehar izango duten ordutegia (jangela erabiliko duten, siesta bertan egingo duten...).
- Garbiketako unea ezarria ez izatea eta hurrek pixkanaka onar dezaten ahaleginduko gara, beti ere, haurren eta hezitzailearen artean sortzen den harremanaren arabera.
- Jangelako zerbitzua ez da erabiliko gutxieneko lasaitasun bat ez bada eta haurrak zentroarekiko eta bere hezitzailearekiko gutxieneko onarpen-maila ez duen artean.
- Segurtasuna eskainiko duten objektuak ekartzen utziko zaie: txupeteak, panpinak, mantak edo haurra lasaitzen eta haurrari segurtasuna ematen lagunduko digun beste edozein objektu.
- Siesta jangelako zerbitzua erabiltzen hasi ostean eta gutxienez aste bete pasa eta gero planteatuko da.
- Ahal den neurrian ezezagunak sartzea ekidingo da eta, txikien bi gelak koordinatu egiten direnez, beste hezitzailea ezagutzea bi tutoreen artean hitzartu eta landu beharko da, horretarako unerik egokiena bilatuz.

Txikien 2. taldea

- Talde honetako guztiak ez dira berriak. Hori dela eta, sehasketakoen taldeetik datozen haurren kopuruaren arabera, bi talde ezarriko ditugu. Aurreko ikasturtean bertan izan diren haurrentzat egonaldiak bi ordukoak izango dira eta berrientzat ordu eta erdikoak. Berriak aste bete beranduago sartuko dira eta aurreko ikasturteko taldeetan banatuko dira. Lehengo ikasturteetako hurrek berrien egokitzea lagunduko dute jarduteko eredu lasaiagoak eskaintzen dituztelako eta helduekiko duten harremana egonkorragoa eta autonomoagoa delako.
- Jangela zentroan hasi eta handik bi astetara hasiko da eta siesta jangela baino aste bete geroago. Hori guztia mailaka egingo dugu, oporrak amaitu ondoren, zentrorra ohiko erritmoan berregokitzea ahalbidetzeko.
- Kontuan izango dugu beste baliabide batzuk eta aurretiko lana izan arren, ikasturtearen hasierak familiarekiko bereizketa eta ikaskideekin eta tutorearekin berriz elkartzea dakartzala. Horrek jakina, ahalegina eskatuko du.
- Talde honek iazko ikasturtean sehaskakoen taldekoekin egon zen tutoreetako bat, jada ezaguna dena eta hurrekin harreman egonkorra duena, izango du.

- Gela/espazioa berria izango da. Oro har materialak eta espazio berriak eskaintzen dituzten aukera berriak aurkeztuko zaizkie.
- Oro har segurtasuna eskaintzen duten objektuak erabiltzeari dagokionean, baita arropa, motxila eta abar kentzeari uko egiteari dagokionean ere, jarrera permisiboagoak eta malguagoak izaten ahaleginduko gara.

Erdikoak eta handiak

Erdikoen gela bat dugu eta handienak bi.

Erdikoak

Gelan sehaskakoen mailatik datozen haurrak izango ditugu eta gainerakoak berriak izango dira (horrenbestez, batzuen eta besteen kopurua aldakorra izango da). Gelak hamabi plaza izango ditu.

Handiak

A taldea eta B taldea: Txikien 1. taldetik eta 2. taldetik datozen haurrak izango dira gela hauetan. Bestalde haur sartu-berriak ere izango dira. Handien gela bakoitzak 16 plaza izango ditu.

- Lehenengo egunetan aurreko ikasturtetik datozenak hasiko dira, talde txikitik banatuta eta bi ordutako egonaldiekin (taldearen tamaina eta taldeen kopurua banatu beharreko haurren kopuruaren arabera izango da).
- Haur berriak aurreko ikasturteetik datozen taldeetan sartzen hasiko dira eta horien egonaldiak laburragoak izango dira, ordu eta erdikoak.
- Berriei ez zaie garbiketa eta haur-oihalen aldaketa ezarriko lehen egunetan (beste aukerarik ez denean izan ezik) eta horiekin negoziatuko da garbitzen eta haur-oihalak aldatzen hasteko unea.
- Txikien taldeetan bezala, jangela bigarren astetik aurrera hasiko da aurreko urtean ere zentrorra etortzen ziren haurren kasuan. Gainerakoak tutoreekin duten harreman-mailaren eta zentroari dagokionean duten onartze-mailaren arabera hasiko dira jangelan.
- Segurtasuna ematen dieten objektuak ekartzen utziko zaie eta pixkanaka horiek elkarbanatzen has daitezten ahaleginduko gara.
- Espazio/aula berean egoteko duten tolerantzia behatuko dugu. Une batzuetan, beti ere premien arabera, mugitzeko edo aldatzeko aukera eskainiko diegu. Adin hauetako mugitzeko premia eta autonomia-gaitasuna handiagoak dira eta hori dela eta erreferentzia finko bat eskaini ahal izango dugu, baina, aldi berean, baita espazio irekiagoetara aldatzeko aukera ere.
- Talde hauek aurreko ikasturteko tutoreak izango dituzte baina espazio/gela berria izango dute. Interesgarria izango da hori aurkeztea eta material eta espazio berriak eskaintzen dituen aukerak ezagutaraztea.
- Oro har segurtasuna eskaintzen duten objektuak erabiltzeari dagokionean, baita arropa, motxila, zapatak eta abar kentzeari uko egiteari dagokionean ere, jarrera permisiboagoak eta malguagoak izaten ahaleginduko gara.

- Haur berriei komuna nahiz pixontziak (beharrezkoa den kasuan) erabiltzeko aukera eskainiko zaie.
- Jarrera permisiboagoa eta malguagoa izango dugu agresibitate- edo baztertzeko-jarduerei dagokienean –arriskutsuak ez diren bitartean–. Horiek jaso egingo ditugu baina ez zigortuko. Bestalde, horiei eutsi egin diezaiekegu elkarrekin arauak eta exigentziak negoziatzea ahalbidetuko duen lotura egonkorrago bat izan arte.
- Gogoan izango dugu aurreko urtean zentroan izan zirenentzat ikasturtearen hasierak egunerokotasunera itzultzea adierazten duela, baina aldi berean uda igaro ondoren familia-rengandik bereiztea dakarrela. Halaber, ikaskideekin eta tutorearekin berriz elkartuko dira, baina aldi berean taldea berregokitu egin beharko da elementu berriak (lotura berriak, etsaitasunak, zeloak, adiskidetasuna, lidergoak eta abar) direla eta. Adin hauetan taldea garrantzi handia hartzen hasiko da.
- Handien B taldean erdikoien taldetik datozen baina eskolaurrean sartzeko adinik ez duten haurrak ditugu. Hori dela eta, kontuan izan beharko dugu haur horiek espazioa, tutorea eta ikaskideak aldatu dituztela, nahiz eta tutore berria eta txikien 2. taldetik datozen gainerako haurrak sehaskako gelako ikaskide eta tutorea izan (horrek berriz elkartzea erraztuko du, izan ere, aurreko urtean ere izan da harremanik bi talde horien artean).

Baliabideak

1. Familientzako informazioa

- Horretarako prestatutako materiala banatuko da —gutuna.
- Familiarekin informazioarako bilera bat egingo da eta bertan honakoa adieraziko zaie:
 - Aldi horren garrantzia.
 - Komenigarriak izan litezkeen jardunbideak.
 - Egoera horrek berezkoak dituen erreakzio- eta jokabide-motak.
- Familiak egoki irizten dion bakoitzean tutorearekin, zuzendariarekin edo biekin elkar-rrizketa izateko aukera eskainiko da.
- Zentroa, gela eta haurtzaindegiaren eguneroko jarduna ezagutzeko aukera eskainiko da, bertan –batez ere hasieran– guraso batzuek egin ditzaketan “egonaldiei” dagokienean malguak izanik.

2. Talde-lana:

- Hezkuntza-taldeko kide guztien (tutoreen, laguntza-hezitzaileen, zuzendariaren) jarduerak koherenteak izango dira eta ezarri diren jarraibideak eta koordinatuak errespetatuko dituzte.
- Aldi honetako behaketak banaka erregistratuko dira (horretarako prestatutako fitxetan).
- Taldekide guztiek elkarrekin bilerak egingo dituzte egokitzealdian zehar (gutxienez astean behin) zentroaren, talde bakoitzaren eta haur bakoitzaren egoeraz mintzatzeko. Honakoak izango dituzte aztergai:
 - Sortutako arazoak.
 - Eskuhartze-premiak:
 - haurrarekin

- taldearekin
- familiekin
- Eskuhartzeen plangintza.
- Ordutegiaren premiak.
- Gure txandaren egokitzea.
- Aurrerapenak, tolerantzia, haurrek dituzten zailtasunak eta abar ebaluatzea.
- Gure jarduerak eta eskuhartzeak ebaluatzea.

Egokitzealdiko hizkuntz tratamendua

Horretarako ahozko hizkuntza zein espaziotan, funtziotan eta egoeratan erabiliko dugun zehaztu dugu. Hori dela eta lehen une honetan haurrei zein hizkuntzatan hitz egingo diegun eta kontaktua banakakoa edo taldekoa izango den zedarrituko dugu.

Funtzioak

A. King-ek ezartzen dituen makro-funtzioak kontuan hartuz:

- Ekintzazkoak.
- Informatiboak.
- Jarrerazkoak.
- Diskurtsokoak.

Ohar gaitzen lehen une honetan lehenengo hirurak aipatuko ditugula (ekintzazkoak, informatiboak eta jarrerazkoak).

Espazioak

Nagusiena gela izango da eta bigarrena jolastokia.

Banakakoak (egoerak)

1. Jasotzea, agurtzea -familiakoekin batera:

...	<i>Ama-hizkuntza</i>
-----	----------------------

2. Gatazka-egoerak: borrokak, erortzeak, atsekabea...

— Negarra. — Apatia. — Agresibitatea. — Kontrol-eza.	<i>Ama-hizkuntza</i>
---	----------------------

3. Garbiketa

<ul style="list-style-type: none"> → Haur-oihalak aldatzea. → Janztea. Eranztea. 	<i>Ama-hizkuntza</i>
--	----------------------

<ul style="list-style-type: none"> ➤ Eskuak eta aurpegia garbitzea. ➤ Komunera joatea proposatzea. ➤ Garbitzea (mukiak). 	<i>Euskara</i>
---	----------------

4. Haurrak proposatutako interes-gaien edo arrazoi esanguratsuen inguruko elkarriketa:

...	<i>Euskara</i>
-----	----------------

5. Azalpenak, kontsignak:

<ul style="list-style-type: none"> — Argitzea. — Kokatzea. — Proposatzea. — Mugatzea. — Eustea. — Ukatzea. — Baieztatzea. 	<i>Euskara</i>
--	----------------

<ul style="list-style-type: none"> → Puntualak → Aginduzkoak 	<ul style="list-style-type: none"> - Arriskua - Debekua - Eskaera 	<i>Ama-hizkuntza</i>
--	--	----------------------

6. Erantzunak:

<ul style="list-style-type: none"> → Larrialdi- eta gatazka-jardue-rekin zerikusirik ez duten haurren galderenak. ➤ Ahoz formulatu ez direnenak (gatazka- edo larrialdi-egoerekin zerikusirik ez dutenak). 	<i>Euskara</i>
--	----------------

7. Talde-mailan:

<ol style="list-style-type: none"> 1. 3. 4. 5. 6. 	<i>Euskara</i>
--	----------------

2.3.2. JOLASA

Jolasa haurtzaroak berekin dakarren jarduera dugu, ikaskuntzarako, gatazkak lantzeko eta gainditzeko, sentimenduez, afektuez, jabetzeko eta horiek bizitzeko, ikerketaz, simulazioaz, entrenamenduaz eta abarrez gozatzeko aukera pribilegiatuak eskaintzen dituena.

Haur Hezkuntzako zentro batean jolasaren aldaera guztiak (askea, gidatua, sinbolikoa) izan behar ditugu, izan ere, hala ez bada, zentro horrek jolasik ez badu, arimarik ez duela esan ahal izango genuke.

Jolasari leku pribilegiatua eman nahi izan diogu, aldaerak aldaera, zentroan gertatzen diren ia gainerako jarduera guztien euskarri den jarduera-matrizea dela uste baitugu. Halaber, adin horietako neska-mutilekin egin beharreko lanerako giltzarri-tresna delakoan gaude.

Zergatik irizten diogu jolasari tresna/jarduera gako? Hain zuzen ere, jolastea delako haurren bat-bateko jarduera nagusia. Jolasaren bidez haurrak ikertu, aurkitu, ikasi eta entseiatu egiten du, bai bere barne-munduari dagokiona, bai kanpoko. Horiek elkarrekiko kontaktuan jartzen ditu, erlazioan egiten ditu, bere aurkajartzeak egiten ditu, errealitatea aurkitzen du, bere bu-ruaren, munduaren eta inguruko pertsonen ezagutza eraikitzen du.

Ikasturte honetan zehar landu beharreko jolas-mota, hezkuntza-taldeak hautaturikoa, andre lapierreren eta psikomotrizitate erlazionalaren inguruko bere eskolaren fokatzean oinarrituta-koa da.

Zentroan pixkanaka psikomotrizitate erlazionalarekiko sentsibilitatea eta horren inguruko ezagutza sustatu dugu mintegien eta saio teoriko-praktikoen bidez.

Tonuaren eta gorputzaren bidezko komunikazioa lantzeko eta helduak haurrari bereziki “entzuteko” eskaintzek egokiak dirudite ditugu eta gainera interesgarria dirudi 0-3 urte arteko haurrei dagokienean. Adin horretan ahozko hizkuntzak ez du izango gerora izango duen nagusitasuna. Hori dela eta jolasari behatzeko, entzuteko eta han “esaten dena” jasotzeko modu gisa bat-batekotasuneko eta askatasuneko leku pribilegiatua emateak haurrak hobeto ezagutzeko eta horiekin lotura hobea izateko aukera eskaintzen du.

Hasiera batean behintzat arrazoi hori dela eta planteatu dugu bat-bateko jolasen saioak egi-tea ikasturte honetan zehar. txikien mailatik aurrera ekingo diogu lan horri. Saio horietan hezkuntza-taldea egotea ez da izango eskuhartze-maila terapeutikoa (hori ez da intentzioa), komunikaziorako eta lotzeko eskaintza bat baizik. bertan komunikatzeko bide pribilegiatua ez da izango ahozko hizkuntza. Gorputz-jarduera, segurtasuna eskaintzen duen presentzia, “entzuteko” prestasuna eta eustea izango dira eskaini beharreko kanalak.

Saio horien ondoren adierazi gisan egingo dira:

Saio horietan parte hartuko duten pertsona helduak tutorea, zuzendaria eta, zenbait taldetan, hezitzaile laguntzaileak izango dira. Erreferentziako gako-pertsonak tutoreak izan daitezten aha-leginduko gara.

Saio bakoitza behatzeko eta erregistratzeko lana egin behar dugu. Ondoren hori parte hartu duten pertsonen artean aztertu eta landuko dugu.

Azterketa horren bidez honakoak erabakiko dira:

- Saioetan nahiz gelan izan ditzakegu eskuhartze-jarraibideak.
- Duen eboluzioa dela eta zein haur behatuko den zehazki jarraipen bat egiteko.
- Neska-mutil jakin batzuen proposamenak “entzuteko” prest egongo den pertsona heldua zein izango den.
- Zein material erabili eta eskainiko den eta gelan barrena nola banatuko den.
- Sala zeinek prestatu eta jasoko duen, izan ere, ekintza horiek oso izaera sinbolikoa dute.

Hori guztia dela eta, gure asmoa zentroko hainbat espazio jolas-aldaera guztiak (askea, gidatua eta sinbolikoa) erraztuko, sustatuko eta haurrak horiek egiteko gogo berotuko dituzten leku bihurtzea eta horretarako egokitzea da. Horietan helduaren presentzia, laguntza eta entzutea fokatzeeen eta premien arabera izango da.

Leku horiek antolatzeke, girotzeke eta prestatzeke honakoak hartu beharko ditugu kontuan:

- Helduak zein leku bete eta eskaini behar duen.
- Espazio hori erabil dezaketen haurren kopurua.
- Zein mailek hartuko duten parte.
- Neska-mutilen adina.
- Haurrentzat sinbolikoki espazio horrek zer adieraz dezakeen.
- Eguneroko bizitzari dagokionean espazio hori haurrek zerekin lotuko duten.
- Espazioek eskaintzen duten zabaltasuna eta aukerak eta dituzten mugak.
- Horietako bakoitzarentzat zein den materialik egokiena. Horretarako honakoak hartuko ditugu kontuan:
 - Landu beharreko edukiak.
 - Segurtasuna.
 - Esanguratsua dena (esperientziaren arabera).

2.3.2.1. Jolas askea edo/eta jolas sinbolikoa³

1. Barneko jolastokia

Barneko jolastoki bat dugu, beren artean lotuta dauden bi zati desberdin dituena:

- Barneko jolastoki txikia, 32 m²-koa.
- Barneko jolastoki handia, 60 m²-koa.

Zentrora sartzeko ordutegi malgua, 7:30 eta 9:45 artekoa, aprobetxatuz, espazio horiek jolas askerako leku bihurtuko ditugu.

2. Jolastoki txikia

Leku bilduagoa da, atsegina eta 7:30 eta 8:30 artean sartzen diren lehen ikasleei harrera egiteko egokia.

³ Espazioka zehaztuko ditugu.

Espazio honetan jolas aske eta lasaia sustatzen duen material-mota dago (goizeko zein ordu den kontuan izanik).

- Zizare eta txirrista txikia.
- Koltxonetak.
- Goma-aparrezko modulu txikiak.
- Eraikuntza-pieza handiak.
- Eserita edo mugimendu leunekin jolasteko hainbat objektu.

Espazio hau ere sehasken gelarekin lotuta dago eta beharrezkoa bada txikientzako materiala ere ekar daiteke: etzanaulkiak eta bestelakoak. Horrek beharrezkoa denean lotan jartzea eta aldi berean horiek zaintzeko aukera izatea ahalbidetzen du.

Materiala hurrek beren kabuz hartzeko moduan dago kokatua. Nolanahi ere zati bat bilduta dago, baldetan kokatuta, gisa horretan beste nolabaiteko materiala eskatu ahal izateko (garantzitsua iruditzen zaigu bertan erakutsitako materiala aldatzen joatea).

Ikasleen adinak oso desberdinak dira eta horrek maila guztietako neska-mutilek (sehaska-koek, txikiek eta handiek) elkarrekin harremanak izateko aukera eskaintzen du, oso talde handietan ez bada ere (4 eta 15 neska-mutil artean, kopurua pixkanaka-pixkanaka handituz).

Hezitzaileen presentziak honakoa eskaintzen du (1 eta 3 artean, pixkanaka, izan ere txandak sartuko dira):

- Ikasleentzako (eta beren familientzako) harrera pertsonala.
- Segurtasuna eta euskarria beren familiakoak agurtu ahal izateko.
- Agurra/banaketa zaila egiten zaienentzako kontsolamendua.
- Hainbat talde eta adienetako haurren arteko elkarreragina sustatzea eta erraztea.
- Modu lasai eta barean jolasteko eta aurkitzeko gonbitea.
- Lehenengo orduetako jarduera-erritmoarekiko errespetua.

3. Jolastoki handia

Mugimen-jolasa eta mugimendu zabala egitera —jatera, salto egitera, igotzera, jaistera, trizikloetan, kotxeetan, taka-takan ibiltzera, baloiarekin jolastera eta abarretara— gonbidatzen gaituen eta jolas-mota hori ahalbidetzen duen leku zabal eta irekia. Gure helburua “kaleko parkearen” antzekoa izatea da.

Hemen ikasleei 8:45 eta 9:45 artean egingo diegu harrera.

Eskaintzen den materialak mugitzera eta jardutera gonbidatzen du:

- Txirrista handiagoak.
- Etxetxoa (txirrista handi baten azpikoa)
- Taka-takak, kotxeak.
- Trizikloak.
- Hainbat tamainatako baloiak: oso handiak, erdikoak, txikiak...
- Eta abar

Material hori guztia –horretarako diseinatutako etxetxo baten barruan gordetzen diren baloiak izan ezik– neska-mutilek eskura dute.

Ikasleak hemen ere hainbat adinetakoak izango dira eta, horrek halaber, taldeen arteko loturak eta harremanak ahalbidetuko ditu. Alabaina, espazio honetan ikasleen kopurua oso altua izango da (50 eta 60 artekoa) eta beharrezkoa da ahalik eta gehien segurtasunaren alderdia zaintzea. Oro har ikasle txikienak beren gela naturalera joan ohi dira nahas ez daitezten. Nolanahi ere ikasturteak aurrera egin ahala, beraiek eskatu ohi dute bertan denbora gehiago ematea, asko gustatzen baitzaie espazio honetan jolastea.

Hezitzaileen presentziak –3 eta 9 artean izango dituzte– honakoa adierazten du:

- Harrera pertsonala (oraindik ere sarrera pixkanakakoa da eta).
- Beren familiak agurtu ahal izateko segurtasuna eta euskarria.
- Hainbat talde eta adinen arteko elkarreragina sustatzea eta laguntzea.
- Modu lasai eta barean jolasteko eta aurkitzeko gonbitea.
- Lehenengo orduetako jarduera-eritmoarekiko errespetua.

3. Jolastoki handia

Mugimen-jolasa eta mugimendu zabala egitera —jatera, salto egitera, igotzera, jaistera, trizikloetan, kotxeetan, taka-takan ibiltzera, baloiarekin jolastera eta abarretara— gonbidatzen gaituen eta jolas-mota hori ahalbidetzen duen leku zabal eta irekia. Gure helburua “kaleko parkearen” antzekoa izatea da.

Hemen ikasleei 8:45 eta 9:45 artean egingo diegu harrera.

Eskaintzen den materialak mugitzera eta jardutera gonbidatzen du:

- Txirrista handiagoak.
- Etxetxoa (txirrista handi baten azpikoa)
- Taka-takak, kotxeak.
- Trizikloak.
- Hainbat tamainatako baloiak: oso handiak, erdikoak, txikiak...
- Eta abar

Material hori guztia –horretarako diseinatutako etxetxo baten barruan gordetzen diren baloiak izan ezik– neska-mutilek eskura dute.

Ikasleak hemen ere hainbat adinetakoak izango dira eta, horrek halaber, taldeen arteko loturak eta harremanak ahalbidetuko ditu. Alabaina, espazio honetan ikasleen kopurua oso altua izango da (50 eta 60 artekoa) eta beharrezkoa da ahalik eta gehien segurtasunaren alderdia zaintzea. Oro har ikasle txikienak beren gela naturalera joan ohi dira nahas ez daitezten. Nolanahi ere ikasturteak aurrera egin ahala, beraiek eskatu ohi dute bertan denbora gehiago ematea, asko gustatzen baitzaie espazio honetan jolastea.

Hezitzaileen presentziak –3 eta 9 artean izango dituzte– honakoa adierazten du:

- Harrera pertsonala (oraindik ere sarrera pixkanakakoa da eta).
- Beren familiak agurtu ahal izateko segurtasuna eta euskarria.

- Hainbat talde eta adinen arteko elkarreragina sustatzea eta laguntzea.
- Jolasera gonbidatzea eta hori erraztea.
- Behatzea eta zaintzea, gertatzen denari arreta eskaintzea. Honetarako:
 - Sortzen diren gatazken berri izateko.
 - Espazio honetan gatazka horiek konpontzeko haur bakoitzak erabiltzen dituen estrategiak behatzeko eta beste espazio batzuetan erabiltzen dituztenekin erkatzeko.
 - Arriskutsuak izan ezean gatazka horietan ez esku hartzeko.
 - Ondoren adierazitakoetarako familiek dituzten jarrerak eta erabiltzen dituzten estrategiak behatzeko:
 - Beren seme-alabak agurtzeko.
 - Zentroko beste neska-mutil batzuekin erlazionatzeko.
 - Beren seme-alaben inguruko gatazkek jasateko.
 - Gatazkek beren kabuz gaindi ditzaten laguntzeko.
 - Ahal den neurrian, honakoak behatzeko eta erregistratzeko:
 - Ikasleek dituzten mugimen-trebetasunen motak.
 - Desplazamendurako duten autonomia-maila.
 - Edozein material-mota erabiltzeko duten autonomia-maila.
 - Zentroko talde guztiak zentroko ikasle guztiak ezagutzeko eta haurrek hezitzaile guztiak ezagutzeko aukera izateko.
 - Familiek pixkanaka zentroko hezitzaile guztiak ezagutzeko aukera izateko.

“Gelak”

Gela guztien antolaera ikasleen taldeak, tutoreak hala erabakitzen, programatzen edo irizten duen unean, jolas sinbolikorako gonbitea eginez beren gisan jolastu ahal izateko diseinatuta dago (gogoan izan behar dugu jolas-maila horiek ikasleen garapenaren eta adinaren arabera agertuko direla eta hori dela eta ez zaizkie erraztu edo ezarri behar).

Gela bakoitzak hainbat *gune* ditu (ez dira gaur egun txoko izenarekin adierazi ohi direnak, aldatzen ez direnak eta jarduera zehatz batzuei bakarrik lotutakoak, eta horiek txandakatzea eta erabiltzea ez da beharrezkoa izango) eta horiek ikasturtean zehar aldatu egin daitezke eta aldatu egin behar dira, bai taldearen eboluzioa dela eta, bai taldearen interesak direla eta.

Geletan ikasleen adinak homogeenak izango dira. Horietan egonkortzen da “erreferentzia-taldea”, “talde bateko kide” izateko sentimendua (hori guztia pixkanaka-pixkanaka gertatuko da eta beti ere adin bakoitzean dituzten aukeren arabera).

Espazio honek segurtasuna ematen die, ezagunena da (hau da haur berriek erabiltzen duten lehen espazioa eta egokitzealdian zehar ezagutzen dutena), bertan beti hezitzaile bera dago, “tutorea” eta espazioa ez ezik gainerako haurrak ere ezagunagoak dira eta kopurua mugatuagoa.

Gune horiek desberdinak izango dira mailen arabera:

1. *Sehaskakoak*⁴

1.1. Mugimendu kontrolatuagorako eta lasaitasunerako guneak

— Koltxoneten, kojinen, ispiluaren gunea.

⁴Jolaserako gunean, izan ere, gela honetan beste bi zati ere badira: jangela eta logela.

— Tamaina egokiko aldapen eta goma-aparreko moduluen gunea (ziriak, erroiluak, aldapak...).

1.2. Hainbat jolas

— Kutzaren gunea: ikasturtean zehar aldatuko ditugun arriskurik gabeko objektuak (pelutxeak, oihalezko eta kiribilduzko pilotak, arrakutsuak ez diren beste objektu batzuk, gomazko panpinak, telebistako ipuinak).

— Jolas didaktikoagoen gunean: multizentroa, txintxirrina, musika-kaxak, piramideak, metagarriak, tentetiesoak, oihalak, faroak, arrasteak... (Jolas horiek erakustoki batean egongo dira haurren eskura eta ikasturtean zehar aldatu egingo ditugu beren interesen eta aukeren arabera).

1.3. Mugimendu zabalagoen gunea

— Txirristen edo koltxonetan gunea. Ispilua.

— Objektuen (handien) edukiontzia. Edukiontzi horiek bi funtzio dituzte, uretako jolasetarako erabiltzen dira eta gurpilak dituztenak arrasterako.

— Taka-takaren bat (gehienez hiru).

Nolanahi ere, adierazi nahi genuke gune horiek guztiak ez direla beti aldi berean izaten sehaskakoen gelan, aitzitik, txandaka (taldekoen adinaren eta eboluzioaren arabera) eskaintzen zaizkien gune-motak dira.

2. Txikiak⁵

2.1. Lasaitasunerako eta jarduera bareagoetarako gunea

— Koltxonetak, kojina, ispilua, goma-aparreko moduluak, ipuinen moduluak, panpinak, sehaskak eta kapazuak.

2.2. Eraikuntzen edo/eta jolas didaktikoagoen gunea

— Maxikuboak, kiribildu lodiak, piramideak, metagarriak, bat-etortze errazak... (horiek geroz eta zailagoak izango dira).

2.3. Mugimendu zabalen gunea

— Tika-takak, arrasterako eta garraiorako jostailuak.

— Txirrista bat (sartzeko eta erabiltzeko erraza).

— Goma-aparreko moduluak.

2.4. Aurkikuntzetarako gunea

— Hainbat objektu, lapikoak, kotxeak, kaxak, plastikozko ontziak, zapiak eta abar (ikasturtean horiek aldatzen saiatuko gara).

2.5. Ezkutatzeko gunea

— Sarrera kortina batekin estalita dagoen modulu handia. Txontxongiloetarako ere erabil daiteke.

⁵ 80 m-ko gela, komunetarako espazioa 8 m-koa da gelaren barruan eta elkarrekin lotuta daude.

2.6. Txikien 1. mailan

- Gune honetan parke zabal bat dute, zutik jartzea eta lekuz mugitzea ahalbidetzen duen egurrezko baranda duena. Horrek zutikako posizioa eta arriskurik gabe ibiltzea finkatuko ditu.

2.7. Txikien 2. mailan

- Gune honetan bi aldetako eskailerak dituzte, lau mailakoak eta hainbat zailtasun-maila dituztenak.
- Gune guztietan zein “objektu-mota” eta jolas diren esanguratsuenak behatuko da beste gune batzuk egituratzeko eta jada daudenak berregokitzeko.

3. Erdikoak eta handiak⁶

3.1. Etxetxoaren gunea⁷

- Haurren tamainako etxetxea, egurrezkoa eta leihoa duena. Bertan erraz sar daitezke eta panpinetzako nahiz neska-mutilentzako etxetxo gisa erabil daiteke.
- Hurrek sartutako beste objektu batzuk: mantak, zapiak, panpinak, kaxak eta abar.
- Sendagilearen maleta.

3.2. Sukaldearen gunea

- Beren alturaren arabera diseinatutako sukaldea. Bertan haur batek baino gehiagok batera jolas dezakete. (Altzari hau haurtzaindegian bertan diseinatu dugu neurriei, dituen objektuei, segurtasun-neurriei eta garbitzeko erraza izateari dagokionean egokituz). Altzari honek honakoak ditu: sua, arraska eta apalak.
- Sukaldeko tresnak: platerak, edalontziak, mahai-tresnak, kazolak, plastikozko ontziak –beste produktu batzuetatik birziklatutakoak–, hainbat elikagairen ordezkari diren objektuak (frutak, barazkiak, edariak...). Fregona, erratza, erosketetarako orga. Esekitzeko soka, pintzak, plantxa...

3.3. Jolas didaktikoagoen gunea

- Hainbat gai eta zailtasun-mailatako puzzleak. Hainbat bat-etortze. Hainbat zailtasun eta tamainatako kiribilak.
- Josturak (plastikozko hariz zulatutako egurrezko gainazaletan egindakoak). Hainbat eraikuntza. Bi eta hiru dimentsioko ahokatze-piezak. Maneiagarriak. Mosaikoak eraikitzeke presioa egiteko piezak.

⁶ 80 m-ko gela eta 8m-ko komun komunikatuak.

⁷ Zenbaitetan *etxetxoaren* gunea eta *sukaldearen* gunea elkarren ondoan egoten dira eta besteetan ez –taldearen arabera.

3.4. Garajeko gunea, “parte mugikorra”

- Erraz erabil daitezkeen aldapak dituen garajea. Hainbat tamaina, kolore eta erabilerako kotxeak (kamioiak, kotxeak, anbulantziak, garabia...).
- Hainbat garraioaren irudikapenak: trenenak, hegazkinenak, itsasuntzienak, kotxeenak, kamioienak (hainbat tamaina eta materialetakoak, batez ere erraz garbi daitezkeen plastikoz egindakoak).
- Hainbat gairi buruzko eta lotutako marrazkiak.

3.5. Musikaren gunea

- Erraz erabil daitezkeen musika-tresnak: marakak, plastikozko tronpetak, zinbaloak, kaskabiloak, danborrak, xilofonoak eta abar. Zarata eta hainbat soinu sor ditzaketen objektuak.

3.6. Ezkutatzeko edo sorpresarako gunea

- Kortina batekin sarrera estalita duen modulu handia. Hurrek erabakiko dute nola erabili eta bertara zein gauza edo objektu eramango dituzten. Gehienetan helduen begiratuerei ihes egiteko leku gisa erabiltzen da (nolanahi ere hor ere zaintzen ditugu).

3.7. Lasaitasunerako gunea eta ipuinentzako gunea (elkarren ondokoak dira)

- Koltxonetak, kojinak, zapiak eta mantak.
- Panpinak. Panpinentzako arropak.
- Sehaskak, kapazuak, panpinentzako aulkitxoak.
- Pelutxeak.
- Ipuinentzako modulu irekiak.

Gune hauek aldi berean ager daitezke edo ez. Nahiz eta kokalekua eta girotzea alda daitezkeen, beti izango ditugu honakook: etxetxoak, sukaldea, jolasak eta lasaitasunerako gunea.

Hezitzaileak 1 edo 2 izango dira (tutorea + laguntzailea) jardueren edo taldearen premien arabera.

Hezitzaile horiek:

- Erreferentziako edo harreman afektiboetarako irudia eskaintzen diete.
- Euskarri-irudi dira.
- Hainbat haurren artean elkarbanatu beharreko heldu garrantzitsuak dira.
- Jarduerak sustatzen dituzte, jolastera eta aurkitzera gonbidatzen dituzte.
- Bat-bateko jardunean taldeko neska-mutilek dituzten trebetasunak, zailtasunak, urritasunak eta egiten dituzten jabetzeak behatzen dituzte.
- Harremanetarako eta komunikaziorako estrategiak behatzen dituzte (banakakoak nahiz taldekakoak). Elkarbanatzeko eta defendatzeko pistak eta estrategiak ematen dituzten pertsonak dira.
- “Jarraibideak” eskaintzen eta “mugak” jartzen dituzte.
- Honakoen arteko zubi dira:

- Haurren eta zentroko taldearen artekoak.
- Haurren eta beste heldu batzuen artekoak.

3.8. “Gela” espazioaren tenporalizazioa:

- 10:00etatik 11:30era.
- 15:15etik 16:00etara.⁸

Espazio honek marko seguruago eta kontrolatzeko errazago batean lan egitea ahalbidetzen du.

Halaber, haurrek (pixkanaka) jasotzen, txukuntzen lagun dezaten eta, “beren taldekoak” direnez, “beren gelako” gauzen gaineko erantzukizuna hartzen has daitezen saiaturako gara.

2.3.2.2. *Jolas gidatua*

1. “Barruko jolastoki handia”

Nagusiki espazio hau jolas askerako edo sinbolikorako erabili arren, jolas gidatuko jarduerarako aprobeitza daiteke gune hau.

Nagusiki laguntzarako jolasak antolatu ohi dira, ulertzeko errazak diren kontsignak, jarduerara gauza dezaketen guzti bideratutakoak, dituztenak. Horren bidez muga gutxi dituzten jolasak direla adierazi nahi dugu. Hona hemen adibide batzuk:

- Elkarrekin abesti jakin bat dantzatzea.
- Lasterketak egitea (irteera eta helmuga emanda).
- Abesti bat helduek proposatutako keinuekin edo mimikarekin antzeztea.
- Zehaztutako eta bideratutako mugimen-ibilbideak.
- Taldean baloiarekin jolastea.
- Kalejirak. Biribilak.

2. “Gela”

Espazio honetan egiten dira maizen jolas gidatuko jarduerak (jarduera hau, jakina, egokiagoa da eta maizago egiten da erdikoekin edo zaharrekin). Hirugarren hiru hilekoan gisa honetako jarduerak egiten hasiko gara txikiekin.

Horretarako espazio honetan dauden hainbat gune finko aprobeitxatuko ditugu: ipuinena, musikakoa, jolas didaktikoa eta abar. Kontsignak emango ditugu eta egingo duguna zehaztuko dugu. Bestalde, hainbat jarduera zehatz erraztuko dituzten beste gune-mota batzuk antola daitezke:

Txotxongiloetarako, laminetarako eta diapositibetarako gunea eta adierazpen plastikorako gunea:

- Erraza da gune hauetan zein jolas-mota antola daitezkeen asmatzea. Horiek honakoak lantzea ahalbidetuko digute:

⁸ Horrek ez du esan nahi beti edo egunero jolas askeko jarduerak antolatuko direnik.

- Mugimen-trebetasunak (astunak eta arinak).
- Adierazpenerako eta sormenerako trebetasunak.
- Zeregin jakin batekiko arreta eta zeregin horretan kontzentratzea.
- Jarduera jakin bat hasi eta bukatzea.
- Jarduera jakin batzuk egitea ahalbidetzen diguten objektuak eta materialak erabiltzen ikastea.
- Kontsigna zehatzak entzun, ulertu eta interpretatzea.

Jolas gidatu horren bidez helburu eta eduki zehatzagoak lantzeko helburua duten jarduerak zedarrituko ditugu.

Jaduera horietan hezitzaileek:

- Jarraibideei eta kontsignei jarraiki, jolastea eta aurkitzea erraztuko diete eta horretara gonbidatuko dituzte.
- Pistak eta estrategiak eskainiko dizkiete (gero eta zailtasun handiagokoak izango dira objektuak eta materialak erabiltzeko jarraibide horiek).
- Banaka laguntza eskainiko diete hala behar duten ikasleei talde guztiari proposatutako jarduerak egitea eta objektu eta material jakin batzuk erabiltzea ahalbidetuko dieten teknikez jabetzeko.

Hezitzaileak 1 edo 2 izango dira (tutorea + laguntzailea) programatutako jardueren edo taldearen premien arabera.

2.1. “Gela” espazio honen tenporalizazioa:

- 10:00etatik 11:30era.
- 15:15etaik 16:00etara.

Jolas askearen edo/eta sinbolikoaren atalean jada adierazi dugunez, jolas askeko eta gidatuko jarduerak zehatzago beste batzuekin txandakatu egingo dira sekuentzia tenporal horietan, izan ere, helburu ditugun adinetan jarduera gidatuek edo egituratuek ez dute izan behar luzeegiak.

2.3.2.3. Jolas heuristikoa

Eskuartzte gisa jolas askearen eta gidatuaren artean kokatu behar genuke. Askea da ez delako aurrez ezarritako eta bete beharreko kontsigna, jarraibide edo erreferentziarik. Gidatua da “gela” espazioan, “berariazko egun batean” gertatzen delako eta 45 bat minutuko iraupena delako. Hainbat motatako materiala dute, baina horrek, adierarik zabalenean ulertuta proposatu eta bultza egiten du.

Jolas heuristikoa asmaketaren, sorkuntzaren, aurkikuntzaren eta esperimentazioaren jolasa, eguneroko bizitzakoak diren eta “jostailu” (berariaz jostailu gisa sortutako eta saldutako objektu gisa ulertuta) konnotazio zehatzik ez duten objektuen bidezkoa, dela ulertzen dugu.

Horrek ez du esan nahi hori denik taldeak jostailu hitzarentzat proposatzen duen definizioa. aitzitik, gure ustez jostailua edozein umek jolasteko bihurtzen, aldatzen edo erabiltzen duen edozein objektu dela uste dugu.

Helburu gisa honakoa ikastea hartu dugu:

- Guztiak jolasteko balio duela, probatzen, saioak egiten, sortzen... uzten badigute jolasteko hamaika aukera daudela.
- Ez dela beharrezkoa hainbeste gauza erostea. Gure iritzian garrantzitsua da gizarte kontsumitzaileak premia absurduak sortzen dizkigula hautematea. Aldi bereko hainbat funtzio eta erabilera (etxerako, osasunerako, elikadurarako, jolasteko eta abarretarako) izan ditzaketen objektu birziklatu ugari dago.
- Gozatzeko, eraikitzeko, adierazteko, jolasteko ez dela jostailu garesti eta sofistikuturik behar.

Bestalde, honakoak ere hartu ditugu helburu: jolasaren eta ekintzaren bidez eskaintzen dizkiegun objektuek dituzten propietateak, ezaugarriak eta aukerak (forma, kolorea, tamaina, pisua, ehundura, bolumena, beren antzekotasunak, desberdintasunak, seriazioak, taldekatzeak, nola bat-etorri, nola sartu, nola atera, nola ahokatu, nola garraiatu, eraikuntzak sortzea, soinuak ateratzea, erritmoak eta abar) aurkitzea, ikertzea eta esperimentatzea.

Horrek ez du esan nahi haurrek kontzeptu horiek ikasi behar dituztenik edo horien kontzientzia izan behar dutenik. Ez dugu horretarako unea denik uste, baina bai horiek bizitzen, eraikitzen hastekoa.

Espazio egoki bat sortzea kontuan hartu beharreko irizpideetako bat izango da. Espazio hori zabala, lasaia izango da eta taldeak txikiak (gutxi gorabehera 8 kide). Hainbat motatako materiala eta erakargarria eskainiko zaie, kide guztientzat adina.

Pertsona helduak/ek:

- Espazioa prestatuko dute eta materiala eskainiko dute.
- Jarduera behatu eta lagunduko dute.
- Ekintzetan esku hartuko dute eta ez dituzte epaituko sorkuntza edo jolasa, guztiak onargarriak eta baliagarriak izango dira.
- Jolasari arretaz jarraituko diote eta han gertatzen dena hautematen, ulertzen eta horren esanahia bilatzen saiatuko dira.
- Arrisku-egoeraren bat gertatzen denean esku hartuko dute edo aurreikusi egingo dituzte.
- Ikasleen jarduera behatu eta erregistratuko dute.

Eskaintzen zaien materiala familiarekin eta zentroko talde guztiarekin batera bildu beharko da.

- Material-mota:
- Kartoizko erroiluak (komuneko paperaren, serbiletan barrualdekoak eta abar).
- Arroparentzako pintzak
- Harriak
- Maskorrak
- Intxaurrak, gaztainak, almendrak... (txikiegiak ez diren fruituak)
- Ananak
- Hainbat tamaina, ehundura eta egituratako sokak.
- Kartoizko, plastikozko, latorrizko kaxak.

- Hainbat edukiontzi eta ontzi (plastikoa, kartoia eta abar), gardenak eta opakoak.
- Plastikozko botilak eta irekitzea, ixtea, tapa jartzea... ahalbidetzen duten ontziak.
- Giltzak
- Kortxoak
- Oihal-iruteen konoak, hainbat tamaina, kolore eta materialetakoak.
- Harizko hainbat haril.
- Kortinen eraztunak.
- Erruloak
- Saskiak, marmidak (erraz garraiatu ahal izateko heldulekua dutenak).

Ez da material guztia batera eskaini behar, hainbat atal esperimentatzen hasiko gara eta proposamenak aldatuko ditugu erakargarria den eta hainbat ekintza eta harreman ahalbidetzen dituen neurrian.

Material-aukeraketak aldatu egingo dira jardueretan zehar egindako behaketen eta erregistroen azterketaren arabera.

Horretarako prestatutako edukiontzietan materiala biltzeko lankidetzaren garrantzia pixkanaka-pixkanaka lantzen saiatuko gara.

Mota honetako jolasak batez ere txikien 1. eta 2. geletan proposatuko dira.

2.3.2.4. Bat-bateko jolasa

Bat-bateko jolasa lantzeko André Lapierrrek Psikomotrizitate Erlazionalari buruzko lanean egindako proposamenean oinarritutako marko eta espazio zehatzetan egingo ditugu saioak.

Bada, helduak “entzuteko” rola izango du eta, horrenbestez, han adierazten, sortzen eta lantzen ari direnari eduki sinbolikoa ematekoa.

Haurrak izango dira benetako protagonista, zer, nola, noiz, zerekin eta norekin jolastuko diren erabakiko dutenak. Helduak ez du sorkuntza gidatuko, aitzitik, hurrek beren gatazkak eta aukerak ezagutu, landu eta gaingituko dituzte.

Honakoa izango da helduak emandako kontsigna bakarra: “ezin da minik eman”. bere kontrola espazioa segurua izan dadin egokitzean oinarrituko da.

Honakoa izango da saio horietarako erabiliko den espazioa: psikomotrizitateko gela.

Maiztasuna eta tenporalizazioa honakoak izango dira: astean 45’ eta 60’ arteko saio bat, urtariletik aurrera. Saio hauek nagusiki txikien 2. taldeko, erdikoen taldeko eta handien taldeko neska-mutilei zuzendutakoak izango dira.

Erabiliko dugun materiala: materialaren antolamendua saioa gidatzen duenak egingo du talde bakoitzeko lanen eta ibilbideen arabera. Ez dute oso material egituratuak eta jolas zehaztuak izan behar, hainbat funtzio izan ditzaketen objektuak baizik, izan ere, gisa horretan nork bere desioen eta interesen arabera funtzio eta erabilera jakinetarako erabiliko ditu.

- Puxikak. Hainbat tamainatako baloi bigunak.
- Hainbat tamaina eta formatako goma-aparezko moduluak, ezer zehatzik iradokitzen ez dutenak.
- Papera, hainbat kolore, tamaina eta ehunduratakoak.
- Koltxonetak.
- Hainbat tamainatako kartoizko kaxak.
- Aroak.
- Zapiak eta oihalak (hainbat tamaina eta ehunduratakoak).
- Hodi bigunak.
- Sokak eta abar.

Saio horiek bidez grabatuko ditugu aldizka jarraipen- eta behaketa-lan objektiboagoa eta hausnartzaileagoa egin ahal izateko han gertatzen denari buruz.

Saio horien bidea ikuskatzea litzateke helburua, neska-mutilek eskaintzen diguten informazioaren arabera eskuhartzeak (saioetan nahiz haietatik kanpo) prestatzea, informazio hori beste eremu batzuetan jasotakoarekin erkatzea eta horren guztiaren inguruko hausnarketa egitea.

2.3.3. KULTUR ETA GIZARTE-GERTAKARIEI LOTUTAKO JARDUERAK

“Jaialdi” edo “irteera-txango” bat eginez amaitu ohi diren egitasmo txikietan egituratutako gisa honetako jarduerak 3 esperientzia-eremuetan planteatutako edukiak ikuspegi orokor, aktibo eta motibatzaileago batetik lantzea ahalbidetzen dute.

Hori dela eta ikasturte honetan Irun udalerrian garrantzitsuak diren 3 kultur- eta gizarte-gertakari aukeratu ditugu:

- Olentzeroa.
- Ihauteriak.
- San Martzialak.

Horien inguruan jaiaren eta tradizioaren edukia nahiz pertsonaiak prestatzeko, aurreratzeko eta ezagutarazteko hainbat jarduera antolatuko ditugu. Ezagutzen ez diren alderdiak, hizkuntz alderdiak, sorkuntzarenak, adierazpenarenak eta alderdi ludikoak besteak beste.

Beste jarduera bat ere egingo dugu, txangoa. Bertara erdikoien eta handien mailakoak bakarrik joango dira.

Ondoren adierazitakoa da jarduera hauek prestatzeko eta lantzeko jarraitutako eskema orokorra:

GAIA	OSPATUKO DEN EGUNA	PERTSONAIAK	TRESNAK
– Esku hartzen duten pertsonaiak: <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonak errealak. • Fantastikoak. • Animaliak. – Zein tokitan garatzen den. – <i>Osotasun</i> izaera, osotasun baten zati izatekoa, ematen dioten pertsonaien arteko harremanak. – Ohiturarekiko lotura. – Orokor daitekeena edo bakarra.	<i>Urte-sasoia:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Negua. – Udaberria. – Uda. <i>Eguraldiaren ezaugarriak:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Hotza/beroa. – Euria/Eguzkia. – Haizea. – Elurra. Gertakari-mota: <ul style="list-style-type: none"> – Familiakoa – Gizartekoa: <ul style="list-style-type: none"> • Herrikoa. • Auzokoa. • Orokorra. 	<i>Ezaugarriak:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Fisikoak. – Nortasunarenak. – Gizarte eta kulturarenak. <i>Egiten dituzten jarduerak:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Lana/ogibidea. – Berariazkoak. <i>Lotura pertsonalak:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Beren jarduera. – Beren ezaugarriak. <i>Bizitzeko eta jarduteko lekua:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Baserria/herria. – -Urrun/hurbil. <i>Denboran duen iraunkortasuna</i> <ul style="list-style-type: none"> – Presentzia/ Ausentzia. 	<i>Ezaugarriak:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Forma. – Tamaina. – Kolorea. <i>Erabilera:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Zer “egiten” duen. <i>Erabiltzen dituzten pertsonekin lotzea:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Zeintzuk erabiltzen dituzten. <i>Non dauden eta erabiltzen diren:</i> <ul style="list-style-type: none"> – Hautzaindegia. – Etxea. – Kalea. – Dendak.

Ipuina edota historia

- | | | |
|-----------------------------------|---|-----------------|
| — Sorkuntza propioa edo egokitua. | — Kultur tradizioa. | — Aurreratzea. |
| | — Bertako bizipena eta ezagutza. | — Deskribapena. |
| | — Pertsonaiak eta beren jarduerak deskribatzea. | — Kontakizuna. |
| | | — Girotea |

Baliabideak: abestiak

	— Honakoarekin zerikusia duten herrikoiak. — Honakoarekin zerikusia duten sortutakoak.	— Gaia. — Pertsonaiak.
--	---	---------------------------

Muralak

	— Gaiari buruzkoak. — Ipuina/historia edo eta gaia adierazten dutenak.	— Dramatizazioa.
--	---	------------------

Jantziak edota zomorroak

Honakoa ahalbidetzen dutenak:

- Imitazioa.
- Asoziazioa.

Zentro guztiak hartuko du parte festan eta hori ospatuko du, aurretiko lan baten ondorio izango da eta. Partehartze- eta inplikazio-maila haur bakoitzaren adinaren eta aukeren arabera izango da.

Txangora gorago aipatutako mailetako ikasle guztiak joango dira, beren gurasoen baimena lortu ondoren.

Pauso hauei jarraiki egingo dugun lan:

1. Honakoak aukeratzea:

- Gaia, ipuina, abestiak.
- Jantziak eta zomorroak.
- Zereginen banaketa.

2. Gela bakoitzak eskeman agertzen diren edukiak landuko ditu. Horretarako honakoa hartuko da kontuan:

— Ikasleen aurretiazko ezagutza:

- Hizkuntz gaitasuna (1.H eta 2.Hn).
- Landuko diren kontzeptuak.
- Horien eremuak.
- Pertsonaiak.
- Gaia eta horrekin lotutako elementuak.

— Adina, maila ebolutiboa.

— “Gela-taldea” zein unetan dagoen, bere gaitasuna zein den eta jarduera onartzen duen.

3. Mailaka landuko dira, talde bakoitzari dagozkien jarduerak eta pertsonaiak erlazionatuz, festako hainbat gertakari simulatuz eta aurreratuz.

4. Talde orokorrean landuko dugu —zentroan— festaren simulazioa eta aurrerapena, beti ere, kide guztiei bat-batean eta errespetuz parte hartzeko eta protagonista izateko aukera emanez.

5. Festa errealia ospatuko da.

Hautatutako ipuinen arabera honako gaiak eta pertsonaiak hartu ditugu:

- Eguberria eta Olentzero.
- Inauteriak: lorategi bat. Loreak.
- San Martzialak. Alardea. Partehartzaileak.

Txangoak antzeko lan-eskema du marko:

Hauek dira GAIAK:

— *Garraioa:*

- Autobusa.
- Txu-txu trenak.

— *Zein lekutara goazen:*

- Parkea.
- Hiria/herria.

— *Txangoko partehartzaileak:*

- Haurrak.

PERTSONAIAK hauek dira:

- *Pertsona helduak:* hezitzaileak eta gidaria.
- *Parkeko animaliak:* ahateak, txoriak...

2.3.4. ELIKADURA

2.3.4.1. Sarrera

Guztiok ezagutzen dugu gure gorputza elikatzeko eta hezkuntza fisikoa ahalbidetzeko ase beharreko premia fisiologikoa dela diogen definizioa (jan gabe ezin dugu ez bizi, ezta hazi ere). Horrenbestez, elikadura egoki eta orekatuak gorputzaren funtzionamendu ona izateko aukera eskainiko digu.

- Dena dela, definizio zabalago eta osatuago baten zati diren beste alderdi batzuk biltzen dituen zerbait da.
- Elikaduraren bidez hazkuntza animikoa errazten duten ongizate eta asebetetze-sentsazioak (horiek batzuetan “seguru” sentitzea ahalbidetzen digute) izan ohi ditugu.
- Bestalde gure sentimenak garatzen ditugu elikagaiekiko kontaktuan: dastamena, ukimena, usaimena eta ikusmena (elikagaiak bereizten, hautatzen, gure gogoen arabera aukeratzeko ikas dezakegu).
- Halaber, zalantzarik gabe janaria gizarte-gertakari gisa har genezake –adierarik zabalean–, izan ere horren inguruan komunikatu egin gaitezke, besteekin harremanak has

edo hauts ditzakegu. Janariaren bidez gure kulturek berezkoak dituzten ohiturak, balioak, eta abar transmititzen dira.

- Elikadura definitzen lagun diezagukeen beste alderdi bat afektibo-erlazionala da, izan ere, elikaduraren bidez gizakiak, jaiotzen denean, “besteekin” eta bere ingurunearekin lehenengo harremanetako bat ezartzen du.

Hori guztia dela eta, jateko eta elikatua izateko ekintza testuinguru orokor eta oso batean kokatutako zerbait dela uste dugu. Testuinguru horrek hiru alderdi nagusi ditu: fisikoa, soziala eta psikologikoa.

Gure hezkuntza-betebeharrari dagokionez, aipa ditzagun alderdi horien inguruko hainbat ideia eta alderdi.⁹

2.3.4.2. Alderdi fisikoa

Dietetikaren eta nutrizioaren inguruko alderdiak izango ditu kontuan eta dieta orekatuak, anitzak eta adinaren arabera zentroko haur bakoitzak dituen premia eta aukeretara egokitutakoak eskainiko zaizkie, beren hazkuntza osasuntsua eta orekatua sustatzeko.

Eskaintza horrek progresio bat —bai irents daitezkeen elikagaien aniztasuna pixkanaka sarzeari dagokionean, bai elikagaiak eskaintzeko egoerari dagokionean (likidoa-erdibirindura-solidoa)— ahalbidetuko diguten dietak prestatzera behartzen gaitu. Beraz, elikagaia berriak sarzten ahaleginduko gara, nahiz eta hurrek ez ezagutu, eta horiek aurkezteko modua zaintzen saiatuko gara, pixkanaka ezagutzen eta onartzen has daitezen, beren gustuez jabe daitezen, aukera zabal baten barruan.

denetik (frutak, barazkiak, haragia, arraina, hegaztiak, egoskariak, pasta, arroza, hainbat postre eta abar) jateko ohitura hartzea eta elikagai berriak probatzen ikastea, bada, garrantzitsua litzateke.

Dietak zentroko zuzendaritzak prestatuko ditu:

- Egunero hainbat dieta-mota eskainiko ditu.
- Ikasturte berri bakoitzeko haurren adin errealak kontuan hartuko ditu.
- Familietako pediatrek emandako jarraibideak aintzat hartuko ditu.
- Taldeen osaketa gogoan izango du.
- Familietako ohiturak kontuan izango ditu (batez ere hasieran, gero aldatu edo negoziatu egin daitezke).
- Udal Osasuneko buruarekin ikuskatuko ditu.

⁹ Komenigarria da azpimarratzea gure eskuhartzeetan balioesten ahalegintzen garen osasunaren kontzeptua ere hiru alderdi horietan, hau da, fisiko-sozialean eta psikologikoan oinarritzen dela, eta elikadurak eta osasunak –osabetezkoek– harreman zuzena dutela.

2.3.4.3. Alderdi soziala

Alderdi honi dagokionez, luzeago jardungo dugu eta gehiago zehaztuko dugu, izan ere, hainbat konnotazio ditu eta gure zentroan edukiak lantzerakoan hainbat aukera eskaintzen ditu.

Jateko ekintza garrantzi handiko ohiko ohitura da eta berorren bidez kultur ohiturak, jarraitbideak, balioak eta abar transmititzen ditugu:

Jateko ekintzarekin zerikusia duten jokabideak eta erritoak.

- Ekintza horiek hainbat gizarte-gertakarirekin dute lotura: ospakizunekin, festekin, negozioekin eta abarrekin.
- Ontzat edo lehentasunezkatzat jotzen diren elikagaiak. Baztertzen diren elikagaiak.
- Lehen Haurtzaroan elikadura tratatzeko modua: edoskitzea edo ez eta zenbat denboran. Biberioia. Elikadura-segidak eta aldaketak eta abar.
- Hainbat punturi dagokienean elikatzeko modu zehatzak:
- Elikagaien ordena, segida eta maiztasuna.
 - Egokitzat balioesten diren kantitateak (irenste bakoitzean eta elikadura-talde bakoitzetik).
 - Irensteak zein ordutan egiten diren eta bakoitzean zein kantitate proposatzen diren (gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, merienda eta afasia).
 - Aholkatutako gorputz-jarrerak.
 - Erabiltzen diren tresnak.

Beste hainbat ere aipa genitzake alderdi horiek xeheago zatituz gero. Dena dela, oro har behintzat, ikuspegi orokor bat eskaintzen duela eta gure ikasleei transmitituko dizkiegun eta berarekin landu ditzakegun ohituren eta alderdien inguruko berri ematen duela uste dugu. Horrela bada, garrantzitsua izango da horiez jabetzea –beren adinen eta autonomia-mailaren arabera– eta hasieratik gizarte-gaitasunak eta trebetasunak sustatzea.

Gure gizartean –eta kulturean– jateko ekintzak oso maila berezia duelakoan gaude. Oso alderdi garrantzitsuak mahai baten (janaria) inguruan ospatzen, gauzatzen eta erabakitzen dira.

Gure ikuspegiaren arabera, kultur eta gizarte-tradizioak beti izan behar dira kontuan baina halaber beharrezkoa izango da horiek aztertzen saiatzea eta kritika barne hartzen duten hausnarketetatik abiatzea.

Horrenbestez, osasunarentzat –aurkikuntza eta azterketa berrien, esperientzia berrien arabera– egokienak ez diren edo agian egokienak izango ez diren eta gaur egun nagusi den bizi-moduarekin bat ez datozen ohituren inguruan hausnartzen saiatuko gara.

Ohitura osasungarriak transmititzen saiatuko gara, ohiturak familiarekiko koordinazioan errotzen direla gogoan izanik; hala izango ez balitz, kontraesan gehiegi sortuko genituzke eta batzuetan ez litzateke ohiturak aldatzea lortuko eta hori askotan helburuetako bat izan ohi da.

Jarraibide horiek gehienetan erreferentzia errazak izan ohi dira, baina ez horregatik garrantzirik gabekoak: autonomia-ereduak, dieta-motak adibidez; koipe eta gatz gutxiko dietak eta abar.

2.3.4.4. Alderdi psikologikoa

Definizioan adierazi dugunez, elikadurak adierazten du gizakiak “bestearekin “ edo “kanpoko munduarekin” harremanak ezartzeko duen lehenengo aukeratariko bat. Harreman hori arkaiko eta instintiboenetariko bat da, lehen mailakoetarikoa.

Jateko ekintzaren eguneroko premia saihestezinaren bidez, haurraren eta heldu hornitzailearen arteko harreman egonkorrenetariko bat ezartzen da.

Bere tentsioa, ondoeza baretu egin dela sentitzeak jaioberriari atsegina sorrarazten dio. Haurraren hautemateko moduaren (orokorra eta nahasia denaren) arabera maitatua, lagundua eta asetua sentiarazten dion ongizatea eskaintzen dio.

Hasiera batean guztia modu orokor eta nahasian hautematen eta jasotzen dute. kontziente ez direla, ez dutela diskriminatzen noiz duten gosea, noiz hotza, noiz mina eta abar esan dezakegu. beren premien erantzun positiboak eta egokiak jasotzen dituzten heinean, beren sentsazioak, barrukoak nahiz kanpokoak, zehazten, kokatzen, elkarrekin lotzen, ezagutzen eta bereizten hasi ahal izango dira.

Haur horiek zaintzen edo/eta hezten, maitatzen dituztenak (gurasoak edo ordezkioak) dira pertzepzio eta sentsazio horiek interpretatzeko ardura dutenak eta premia horiei erantzungo dietenak. Erantzuna zenbat eta egokiagoa eta positiboa izan, haurra orduan eta seguruago, maitatuago, lagunduago eta aseago sentituko da.

Bestek gu elikatzeko beharra giza espeziaren oinarritzko premia da. Horren asebetetzetik gabe ezin da ez bizi, ez hazi, ezta garatu ere. Helduak premia hori asetzeko modua nahiz haurra asetua sentitzeko modua desberdinak izango dira kasu bakoitzean. Biak (heldua eta haurra) prozesu horretako alderdi aktiboak dira eta komunikaziorako kanal bat osatzen dute. Beren artean jateko ekintza baino harantzago doazen harreman afektiboak sortzen dira.

Eskaintzen diogun janaria jasotzeko haurrak duen onarpen-mailaren arabera gu onartuago edo baztertuago, eskertuago edo frustratuago sentituko gara.

Helduok beren ukatzeak edo eskaera bereziak onartzeko dugun tolerantzia haur txikiekin harremanak izateko beste modu eta neurri bat izango da (kantitateak, ordutegiak, elikatzeko moduak, lehentasunak eta abar).

Gure ustez kontuan hartzeko beste alderdi garrantzitsu bat frustrazioa da. Elkarrekiko harremanak haurra beti asetzeko ezintasuna dakar, errealitatera egokitzeko duen gaitasuna probatzea.

Pertzepzioa, pentsamendua, ekintza eta abar normal garatzeko desplazer-sentsazioek plazerren pareko balioa dute. Haurrari desplazer-sentsazioak kentzea plazer-sentsazioak kentzea bezain kaltegarria izango da, izan ere biek hartzen dute parte psikismoa osatzerakoan. Bi horietako baten aktibitate-ekak desoreka sor dezake.

Marko hori gure lanerako erreferentzia gisa hartuta, ondoren adierazitakoa garrantzitsua delakoan gaude:

- Gutxieneko harreman bat, egonkorra eta onartua (onartuarekin erreferentzia, lasaitasun, laguntza eta abar adierazi nahi dugu), ezartzea (tutoreak) zentrorra joaten diren neka-mulekin jangelako jarduera proposatu baino lehen. Pertsona garrantzitsuak gurasoak izango dira, guk harreman-marko hori osatu besterik ez dugu egiten.
- Afektuaren, segurtasunaren, maitasunaren, eustearen inguruko premiak eta premia fisikoak (kasu honetan jatea) ez daudela beti elkarrengandik bereiz, aitzitik, batzuen bidez besteak transmititzen direla, gogoan izatea.
- Haurraren eskaera gure erantzunera egokitzeko modua (torelantea baino segurua) aztertzea. Hori egun batetik bestera ez dela gauzatuko eta elkarrengandik eta elkar ezagutzeko prozesu luze baten emaitza izango dela gogoan izatea.
- Geroz eta gehiago hazten ari den autonomia-mailarekin zerikusia duten egoera berrietara egokitzeko eta horiek gaintzeko (bularrak ez hartzea, pureak jaten hastea, solidoa jatea, bakarrik jatea eta abar) ahalegin handia egin behar dela eta egin nahi izateko desioak damaian laguntza behar dutela ez ahaztea.
- Autonomia lortzeak eskatzen duen ahaleginak bi aldean (haurraren eta helduaren) kasuan manipulatzeko, menderatzeko, aurkajartzeko eta arreta erakartzeko egoerak sortarazi ohi dituela gogoan izatea, izan ere, hainbat sentimendu nahasten dira: segurtasun-eza, leku pribilegiatu hori galtzeko beldurra eta helduak rol-aldaketa gaintzeko duen zailtasuna (ez da hain beharrezkoa izango, harreman-mota desberdinak eskaintzea eta abar).
- Haurrari gu ere inplikaturik gauden harreman horretan gertatzen zaiona entzuten saiatzea.
- Gutako bakoitzarentzat (helduontzat) jateko ekintzak zer adierazten duen, zein konnotazio dituen, aztertzen saiatzea.
- Helduak frustratzeko eta mugatzeko duen rola onartzen saiatzea. Horretarako, lehen esan dugun gisan, kontuan izango dugu alderdi positiboen eta negatiboen arteko proportzioa izan behar dugula eta lehentasuna esperientzia positiboek eman behar diegula, izan ere, horiek esker jasango ditu eta aurre egingo die haurrak negatiboek.
- Familiarekin batera lantzea, errealitateak hala ahalbidetzen duen heinean, eszeptikak, permisibitateak, eszeptikak horien segida, jardueran gurasoek duten protagonismoa eta abar.

Orain arte planteatu duguna ikusirik erraz uler daiteke gure zentroan elikaduraren inguruan antolatzen den jateko jarduerak leku pribilegiatu duela eta garrantzi handia beretzen duela.

Jarduera horren bidez, modu natural baten bidez, haurraren eguneroko bizitza esanguratsuan murgilduz, hiru esperientzia-eremuetan proposatzen diren edukietako asko lan ditzakegu.

2.3.4.5. “Jangelako” jarduera

Horrela deitzen diegu eguerdiko otorduak direlako jarduerarik garrantzitsuenak, nahiz eta horiek ez izan elikaduraren inguruan egiten ditugun jarduerak bakarrik.

Garrantzitsuak diren jarduerak txiki eta osagarri horiek ere aipatu aipatuko ditugu:

- Esnea edaten ikastea.
- Jai garrantzitsuak ospatzen ikastea, adibidez, urtebetetzeak, hainbat gauza elkarbanatuz: gailetak, bizkotxoak, gozokiak (noizbehinka).

- Gainerako neska-mutilen hornitzaile izaten ere ikastea: goiz erdian jateko etxetik ekarritako zerbait elkarbanatzea, hezitzaileari banatzen laguntzea (ogi pixka bat, fruta).
- Meriendatzea
- Noizbehinka kanpoan egindako txangoetarako beren janaria.

2.3.4.6. *Bazkariak: antolamendua*

Jardueraz arduratzen diren pertsonak

Tutoreak, beharrezkoa denean hezitzaile laguntzaileak eta zuzendaria lagun dituztela:

- Mahaikideen kopuru handia dela eta.
- Neska-mutil batzuek dituzten zailtasunak direla eta.
- Dietak oso desberdinak direla eta sehaskakoen gelako ordutegien maiztasuna dela eta (biberoia, purea eta abar).

Bada beste pertsona bat, jangelako langilea, janaria banatzen laguntzen duena. Pertsona hori ere garrantzitsua da haurrentzat eta haurrek pertsona hori pixkanaka ezagutu dezaten eta ez jateko garaian bakarrik ahaleginduko gara.

Gure planteamenduen arabera, jarduera honetan gako-pertsonak tutoreak izango dira, izan ere, jarduera hori harremanen eta hezkuntzaren eremuan kokatzea beharrezkoa dela uste dugu. Hori dela eta, jarduera horien ardura beste pertsona batzuen gain egotea akats larria litzatekeela uste dugu. Horrek zentroko gainerako jardueretatik kanpo dagoela adieraziko luke, ez genuke hezkuntzaren testuinguru orokorraren barruan kokatuko. Gainera, uste dugu adin horretan haur batek errazago pasako duela jolaserako eta jarduerarako aldi bat —puntualki— ezagutzen ez duen pertsona batekin eta ez duela hain erraz bazkalduko pertsona horrekin.

Horrenbestez, tutoreak direnez haurrekin lotura afektibo egonkorrak dituzten erreferentzia-pertsonak horien erantzukizuna izango da ikasleen bazkaria.

Familiekin egindako lana

Jarduera hau malgua da eta ez da derrigorrezkoa izango. Ahal den neurrian seme-alabei gurasoek jaten ematea hobe dela uste dugu.

Hori dela eta hautatzea errazten duen ordainketa-sistema bat dugu, familiekin erabakitzen duten unean jangelara joateko beharra planteatzea eragozten ez duena. Ezartzen den baldintza bakarra haurra lasai eta zentroko jarduerara eta tutorera egokituta egotea da.

Familiekin honako alderdiak landuko ditugu:

- Ikasleak zentrorra joan baino lehen haurraren elikadura-ohiturei buruzko datuak jasoko ditugu:
- Elikadura-aukera. Bularra, biberoia.
- Egun duen elikadura-mota.

- Zer eskaintzen dioten.
 - Nola onartzen duen.
- Kantitateak. Ordutegiak.
 - Zeinek ematen dion jaten (amak, aidak, aiton-amonek eta abar)
 - Aldaketak nola onartu dituen orain arte.
 - Familiak jaten emateko ekintza nola bizi duen.
 - Sehaskako mailakoetan pediatrek familiei emandako jarraibideak biltzen eta errespetatzen dira, haiek ezarritakoaren arabera aldaketak egiteko.
 - Familien protagonismoa landuko dugu: aldaketak beraiek egingo dituzte eta guk horiei jarraituko diegu. Arazoak sortzen badira beraiek gidari izan daitezzen saiatuko gara eta erantzukizuna pasiboki tutoreen gain utz ez dezaten saiatuko gara.
 - Berariazko zailtasunak dituztelako edo esperientziarik ez dutelako galduta dabilzan familiei jarraibideak eta jarduteko ereduak eskainiko dizkiegu (beharrezkoa bada ikus-entzunezkoetara joko dugu zentroan beren seme-alabek duten errealitatea islatzeko).
 - Hilabetero familiei menua jakinaraziko zaie dieta afarrietan edo asteburuetan osatzeko eta aldatzeko aukera izan dezaten. Menu horiek zenbaitetan dietak prestatzeko jarraibide edo eredu izan daitezke.
 - Familiekin elikaduraren prestakuntza-alderdia landuko da, tutoreekin, zuzendariarekin eta beste profesional batzuekin koordinatuz.

Jarduera zehatzaren funtzionamendua eta antolamendua mailaren arabera

Honako puntu hauek aipatuko ditugu:

- a) Inplikaturako pertsona helduen kopurua.
- b) Erabilitako espazioak.
- c) Jarrerak-lekuak, non ematen zaien jaten.
- d) Jarduera zenbat ikaslerekin elkarbanatzen duten.
- e) Autonomia-ohiturak eta -jarraibideak. Ikasleen partehartze aktiboa.
- f) Menu-motak, proposaturakoa.

1. *Sehaskakoak*

- a) Sehaskakoen tutoreak izango dira haur horien elikaduraren erantzukizuna bere gain hartuko dutenak. Zenbaitetan zeregin hori laguntza-hezitzaileek edo zuzendariak osatuko dute. Hori gelako mahaikideen edo eman beharreko biberioien kopuruaren araberakoa izango da.
- b) Hurrek “sehaskakoen jangela” izeneko eremuan, helburu horretarako bereizi eta egokitutako lekuan, jango dute. Zenbaitetan, ikasturte amaieran eta eguraldiak hala ahalbidetzen badu, lorategian bazkaldu ahal izango dute. (Gelatik bertatik lorategirako irteera bat dute.)
- c) Haurren adina, autonomia-maila eta lehentasunak kontuan izan behar ditugu bazkaltzeko “lekua” eskaintzeko orduan.
 - Besoak.

- Magala.
- Etzaulkia.
- Trona.
- Aulkia. Mahaia (handitxoena eta ikasturte amaieran bakarrik).

Leku horiek pixkanaka eskaini eta gaindituko dira ahalik eta modurik autonomoenean jateko gai izatera iristeko helburuarekin, baina beti ere, onartutakoa bada, ez ezarritakoa bada.

- d) Sehaskako haurrek ikasturte osoan zehar “sehaskakoen jangela” izeneko espazioan bazkalduko dute eta ez ditugu besteekin nahastuko. Horrenbestez, mahaikideen gehienezko kopurua hamar izango da.
- e) *Elikadura-aldaketak* landuko dira autonomia-jarraibide gisa, izan ere, aldaketa horiek honakoa adierazten dute:
- Zenbaitetan helduaren lekua eta berekiko distantzia aldatzea (oro har pureak ez dira besotan hartzen).
 - Elikatzeko modua aldatzea: biberotik koilarara.
 - Elikagai, zapora eta abar berriak onartzea.
 - Hainbat ehundura onartzea: likidotik birrindura, erdi-birrindura, solido zati txiki-tara.

Horrek hazteko ahalegina eta helduarekiko harremana aldatzea dakar.

Tresnak erabiltzen hastea landuko da.

- Koilara.
- Eskuekin zatitxoak jatea (elikagaiei beraiek eutsiz).
- Edalontzitik edatea.

Zikintzeagatik ez zaie errietarik egingo eta koilara erabil dezaten probatzeko eta jolasteko eta serio jateko denbora eta kantitatea negoziatu beharko dira.

Erritmoak eta ordutegiak pixkanaka *onartzea* landuko dugu (hartualdi bakanagoak, talde guztiarekin batera bazkaltzea eta abar).

Txanda errespetatzea landuko dugu —beti lehena edo azkena ez izatea—. Errespetu horrek ez du adierazten txanda zurrinak izango direnik, baina begi bistakoa da bi pertsonak ezin diotela jaten eman 10 haurrialdi berean. Hori dela eta gosarien ordutegiak, itxarotearen tolerantzia, apetitumaila eta erritmoen zailtasuna kontuan hartzen saiatuko dira. Baina hori guztia aldatuz joango dira eta txandatu egingo dira alderdi horiek guztiak lantzeko. Bide horretatik azkenean *bakarra* ez dela eta elkarbanatu eta itxaron egin daitekeela barneratuko du (bere adinak ahalbidetzen dion heinean).

- f) Ditutzen hilabeteen eta pediatria bakoitzak proposatutako elikadura-erritmo eta -jarraibideen arabera:
- Biberotia: esnea edo/eta ahiak.
 - Fruta (birrindua).
 - Barazki-pureak.
 - Barazki-pureak + haragia edo/eta oilaskoa.
 - Barazki-pureak + haragia, oilaskoa edo/eta arraina.
 - Egoskari-purea + barazkiak + zatia...
 - Dieta lehorgarriak.

2. Txikiak

2.1. Lehenengo hiru hilekoa

- a) Taldeko tutorea.
- b) Beren gelan bazkalduko dute, horretara zuzendutako gunean.
- c) Ikasturte hasieran honakoa negoziatu eta eskainiko da:
 - Magala (hasieran bakarrik eta beharrezkoa bada).
 - Trona.
 - Aulkia-farra-mahaia.
- d) Lehenengo hiru hilekoan jarduera hori gelako 8 neska-mutilek elkarbanatuko dute.
- e) Elikadura-aldaketak landuko dira, sehaskako gelakoen antzera. Baina gela honetakoen adina dela eta ez da biberoirik, ezta zatirik gabeko barazki-purerik izango. Gainerako aldaketak proposatuko dira.

Tresnak erabiltzea landuko da.

- Koilara.
- Eskuekin zatitxoak jatea (elikagaiei beraiek eutsiz).
- Edalontzitik edatea.

Bakarrik eta beren kabuz jaten hastea landuko da.

Jan baino lehenago edo ondoren garbitzea landuko da.

Janariarekiko errespetua landuko dugu (aurretik pentsatuta ez botatzea), baina zikintzea edo batzuetan janariarekin jolastea (eskuak purean sartzea eta abar) errespetatuko da. Jaterakoan txukunak izatea pixkanaka negoziatuko da, izan ere, zikintzea eta elikagaiak ukitzea autonomia lortu eta arauak modu aktiboan eta ez ezarrian onartu baino lehenagoko pausoa da.

Jaten ari diren bitartean eserita egotea pixkanaka negoziatuko da.

Taldeko erritmoak onartzea eta banaketaren garaian txandak (aldatuz joango dira) errespetatzea landuko dugu.

Aktiboki parte hartzen hastea landuko dugu (hezitzaileari erabili dituzten objektuak ematea). Halaber, hezitzaileari arreta eskaintzea zer bazkalduko duten adierazten duenean, larde-zapiak bilatzen laguntzea (ikasturte amaieran) eta abar.

- f) Honako dietak eskainiko zaizkie:
 - Barazki-pureak + haragia edo/eta oilaskoa.
 - Barazki-pureak + arraina.
 - Egoskari-purea + barazkiak + zatia.

— Solidoak jaten hastea (gauza bigunen zatitxoak, york urdaiazpikoa, fruta-zatiak, krocketak...).

2.2. Bigarren hiru hilekotik aurrera

- a) Bi taldeetako tutoreak –nahiz eta bakoitza talde bateko arduradun izan elkarri lagun diezaiokete–. Haurrak beste pertsona batzuek gertuagotik ezagutzen hasiko dira.
- b) Bi taldeek haurren 2. taldekoen gelan bazkalduko dute.
- c) Ferra-mahaia eta aulkia eskainiko dizkiegu bazkaltzeko. Talde bakoitzak bere mahaia izango du, salbuespenetan trona eskainiko da.
- d) Jarduera 2 taldeetako 16 ikasleek elkarbanatuko dute. Gisa horretan beren arteko harreman-taldea zabaltzen hasiko dira.
- e) eta f) ataletan adierazitako alderdiei bere horretan eutsiko zaie.

2.3. Hirugarren hiru hilekoaren amaieran

Taldearen martxak eta heldutasunak hala ahalbidetzen dutenean txikien mailako haurrak handien jangelara joango dira eta maila horretako gainerako ikasleekin elkarbanatuko dute jarduera.

Jangelako gune lasai eta zabal batean bi ferra-mahaia prestatuko dira bi talde horientzat.

Egoera horietan gainerako tutoreak, hezitzaile laguntzailea eta jangelako langilea ere bertan egongo dira.

Autonomia-jarraibideei dagokienez, lankidetzak aktiboagoa lantzea eta plater hutsak, jogurtontziak eta abar langileari eramatea gehi ditzakegu. Izan ere, gisa horretan biltzen lagunduko dute eta erabiltzen dituzten objektuez arduratuko dira. Halaber, laguntza eskatuko diegu batak eta larde-zapiak biltzerakoan.

*Handiak*¹⁰

- a) Talde bakoitzeko tutoreak, hezitzaile laguntzailea eta jangelako langilea.
- b) Erabilitako espazioa zentroko jangela izango da.
- c) Taldeko mahaietan bazkalduko dute (gelako bana) eta jada beti eserita bazkalduko dute; berariazko zailtasunen bat duten eta trona erabiltzeko beharra duten haurren kasuan izan ezik.
- d) Neska-mutilen kopurua 3 taldeetako mahaikideek osatuko dute eta gehienez berrogeita lau izango dira (oro har 30-35 artean izan ohi dira).

¹⁰ Erdikoen taldea ere hauekin batera sartu dugu.

e) Batez ere elikagai solidoak –zatitxotan– onartzea landuko dugu (hasieran beharrezkoa bada birrinduta eskainiko zaizkie).

Tresnak hobeto erabil ditzaten landuko dugu:

- edalontzia
- koilara
- sardea (txikia)

Beren kabuz jan dezaten bereziki landuko dugu.

Janaria errespetatzea landuko dugu (ez alferrik galtzea, ez botatzea, nahita).

Berriz ere nabarmendu nahi genuke ez dela errietary egingo zikintzeagatik edo janariarekin jolasteagatik (muga batzuen barruan), izan ere, arauak onartzeko eta behar bezala jan ahal izateko aurretiko urratsa izango da. Garbitasuna onartzea eta kontzienteki jatea negoziatuko da.

Banaketa-txanda errespetatzea landuko da.

Pixkanaka elikagai berriak sartzea landuko dugu (entsaladak, elikagaiak prestatzeko hainbat modu eta abar).

Jaten amaitu arte eserita egotearekiko errespetua landuko dugu. Garrantzitsua da gorputz-jarrerara eroso izatea baina egokia.

Jan baino lehen eta ondoren garbitzea landuko dugu.

Lankidetzak aktiboa jorratuko dugu: hezitzaileak jateko zer dagoen adierazten duenean arreta eskaintzea. Lerde-zapiak bilatzen laguntzea, amaitutakoan batak eta lerd-zapiak biltzen laguntzea –beren artean lagunduz–. Erabilitako objektuak jasotzerakoan laguntzea jangelako langileari zer eman behar zaion (platerak, edalontziak, mahai-tresnak) eta zakarrontzira zer bota behar den (hondakinak, papera, jogurt-ontziak eta abar) bereiziz.

f) Honako dieta hauek eskainiko zaizkie:

- Barazkien pure eta kremak.
- Arroza. Pasta. Zopa.
- Egokariak osorik eta purean.
- Haragi errea, birrindua, arrautzeztatua (txekorra, hegaztiak, arraina).
- Entsaladak
- Fruta osorik, mazedoniak, jogurtak, esnezko postreak.

2.3.5. JARDUERA/ATSEDEN ERRITMOETARA EGOKITZEA ETA OHIKO JARDUERA OROKORRA

Antolamendu egitura: espazioa/denbora/jarduera

Funtzionamendu-ordutegiak	Hezitzaileen kopurua		Ateratzeko eta sartzeko aukerak	Jarduera-markoa
	Irteera	Metatua		
Ireki	1	1		– Pertzepzioa:
7:30	1	2		• Familiak.
8:00	3	5		• Ikasleak.
8:30	2	7		
9:00	1	8	Pixkanakako irteera eta malgua.	– Jolas askea.
9:30				– Jarduera irekia.
9:45				
Itxi	1	9	Irteerarik ez.	
10:00		9	Sarrerarik ez.	– Berriazko lana.
11:00		9	(Premia eta aurretiko oharririk ez bada.)	
11:30				– Garbiketa.
Ireki		9		– Berriazko lana.
12:00			Pixkanakako irteera	– Garbiketa.
		9		– Jangela.
12:30				– Jarduera irekia.
		9		– Agurra:
13:00				• Ikasleak.
		9		• Familiak.
13:30				
Itxi 14:00	Irteera	Pixkanakakoa	Irteerarik ez.	– Garbiketa.
			Sarrerarik ez.	– Siesta.
Ireki			(Premia eta aurretiko oharririk ez bada.)	– Jarduera irekia.
15:00				
15:30	1	8	Pixkanaka irteera edo/eta sarrera	– Jarduera irekia.
16:00	1	7		– Jolasa.
16:30	3	4		– Agurra:
17:00	2	2		• Ikasleak.
Itxi 17:20	1	1		• Familiak.
	1	—		

Egitura hori osatzen duten ezaugarrietako batzuk:

— *Sarreraren/irteeren malgutasuna*, honako irizpide hauen arabera ezarritakoa:

- Sartzeko ordutegietan mugaren bat jartzea gela naturaletan talde txikietan lan egitea eta funtzionatzea ahalbidetzeko.
- Banakako harreraren garrantzia –ahal den neurrian.
- Egonaldiko orduen kopurua egokitzea luzeegiak izan ez daitezen.
- Asistentzia-ordutegiak *uniformeak* izan ez daitezen ahalbidetzea, premiak eta aukerak errespetatzeko. Horretarako honakoa aztertuko dugu:
 - Haur bakoitzaren onartze ate aukerak.
 - Taldeen osaketa.
 - Gurasoen premia errealak.

— *Jangela erabiltzeko aukera*

— *Hezitzaileen ordutegiak antolatzea*, taldeek urtero dituzten funtzionamendu-koordinaden arabera. Horri dagokionean beti izango ditugu gogoan honakoak:

- Erreferentzia-pertsona finkoa eta talde egonkorra izateko garrantzia.
- Pixkanaka egoera hauek zabaltzeko garrantzia:
 - Haur gazteagoekin eta zaharragoekin harremanak izatea.
 - Pixkanaka zentroko heldu guztiekin (tutorearekin, maila bereko pertsonekin, laguntzaileekin eta bestelakoekin) harremanak izatea.

— *Espazioaren eta denboraren banaketa* egin beharreko jardueren eta lanaren arabera.

ESPAZIOA		JARDUERA MOTA	HELDUEN/BERDINEN HARREMANAK	
<i>Barruko jolastokiak eta lorategia</i>		Irekia Askea Gidatua	Programazio orokorra	– Talde heterogeneoa. – Hainbat helduren presentzia.
<i>Gela naturala</i>		Irekia Askea Gidatua	Berriazko programazioa	– Talde homogeneo. – <i>Tutoreen</i> presentzia (eta laguntzailea zenbat jardueratan).
	<i>Gela naturala ikasturte guztian (berriazko espazioan) Jangela-sehaska</i>	Irekia Gidatua	Berriazko programazioa	– Talde homogeneoa. – <i>Tutoreen eta laguntzaileen presentzia.</i>
	<i>Gela naturala-letako bat 1. eta 2. hiru hilekoak</i>	Irekia Gidatua	Berriazko programazioa	– Talde homogeneoa (biak batera) – <i>Tutoreen eta laguntzaileen presentzia.</i>
	<i>Jangela 3. hiru hilekoa</i>	Irekia Gidatua	Berriazko programazioa	– Talde heterogeneoa (mahai eta talde natural egonkorra). – Hainbat heldu (<i>tutorea</i> talde bakoitzarekin).
	<i>Jangela (Ikasturte guztian)</i>	Irekia Gidatua	Berriazko programazioa	– Talde heterogeneoa (mahai eta talde natural egonkorra). – Hainbat heldu (<i>tutorea</i> talde bakoitzarekin).
<i>Psikomotrizitateko gela</i>		Bat-batekoa	Berriazko programazioa	– Talde heterogeneoa (mahai eta alde natural egonkorra). – Hainbat heldu (<i>Tutorea</i> talde bakoitzarekin).
<i>Kalea</i>		Gidatua eta askea	Programazio orokorra	– Talde homogeneoa Talde bat baino gehiago egon daitezke alde berean. – <i>Tutoreak eta laguntzailea.</i>

2.3.6. GORPUTZ-ZAINTZA ETA -ONGIZATEA

Gorputzaren zaintzarekin eta ongizatearekin zerikusia duten hainbat jarduera garatuko ditugu, eta horien artean izango dugu garbiketa.

0/3 arteko adinetan jarduera horiei garrantzi handia eman ohi diegu, izan ere, adin horretan gorputzaren aurkikuntzak –horrek dakarren guztiarekin (pixkanaka ezagutzea eta erabiltzea; gozatzea; sentsazioak, pertzepzioak eta emozioak, plazerezkoak nahiz desplazerezkoak, bizitzia; bestearekin eta inguratzen gaituen ingurunearekin kontaktua, harremana eta komunikazioa izateko aukera; eskaintzen dituen mugak eta aukerak eta abar)– leku pribilegiatua du haurren garapen psiko-ebolutiboan.

Elementu preziatu horrek, “gorputzak”, hainbat ekoizpen biologiko, emozional, afektibo eta komunikatibo dituenak, alderdi fisiko, psikiko nahiz sozialari dagokienean ongizate eta osasun orekatua eskainiko dion zaintza osoa behar du.

Nahiz eta haur bat garbitzeko ekintza haurrak autonomia pertsonalik ez duela eta egin beharreko ekintza puntuala irudi dakigukeen, guk ekintza hori harantzago doala eta guztiok behar dugun zaintza oso horretan kokatzen dela uste dugu.

Haur bat garbitzeko ekintzaren bidez beste arreta-mota batzuk transmititzen dira: segurtasuna, afektua, kontaktua, maitasuna eta abar, modu egoki eta orekatuan hazteko beharrezkoak direnak.

0-3 urte arteko haurrek beren buruak zaintzeko duten autonomia-eza dela eta, haur horiek zaintzen eta maitatzen ditugun helduok gara erantzukizun hori beren ordeztatu behar dugunak. Zaintza horri heltzeko moduaren arabera, esanahi desberdinak izango ditu.

Kultura eta gizarte bakoitzak bere garbiketa-ohiturak ditu, osasuna eta gaixotasuna ulertzeko bere moduak. Gorputz-ongizateak duen esanahia ere desberdina da. Horrenbestez, gureak ere izango ditu.

- Garbitasuna eta zikintasuna hitzekin zer ulertzen dugun.
- Zaintzari, garbiketari eta abarri dagokienean zein ohitura eta jarraibide transmititzen diren: (sekuentziarioa, maiztasuna, modua, tresnak eta abar).
- Gorputza zaintzeari zenbaterainoko garrantzia ematen diogun.
- Gure gorputzaren ekoizpen biologikoei (genuari, gorozkiei, mukiei, izerdiari, lerdeari eta abar) zenbaterainoko garrantzia ematen diegun.
- Gorputz-gozamenari ematen zaion garrantzia.

Zalantzarik gabe, mendebaldeko kulturak eta zehatzago gure herrialdekoak gai horien inguruko ereduak, jarraibideak eta erantzunak ematen ditu, baina ez genituzke aplikatu behar zeri zor zaizkion geure buruei galdetu gabe. Gutxienez horien inguruan ikuspegi kritikoa izan behar dugula eta hausnartu egin behar dugula uste dugu.

Ondoren taldean adostu ditugun jarraibide-motak eta gorago planteatutako galderen inguruko erantzunak azalduko ditugu.

2.3.6.1. Gorputza zaintzeko eta garbitzeko jarraibideak eta ohiturak

Garbi egoteak ez du esan nahi ezin dugula eta ez dugula zikindu behar. Gure ustez itxura zaindua eta garbia baloratzen ikasteak ez du nahitaez *zikintzea* dela eta errudun sentitzearekin eta muga zorrotzak ezartzearekin loturarik izan behar. Hori baimentzea garrantzitsua eta beharrezkoa delakoan gaude, zikinduz eta nahaspilatuz ordena eta garbitasuna barneratzen eta onartzen saiatu ahal izateko. Hori une ebolutibo horretako premiari dagokiola uste dugu. Garbitasuna eta zikintasuna bizi behar dituzte, bereizi egin behar dituzte eta biek plazer- eta baztertze-sentsazioak eragin ditzaketela egiaztatu behar dute. Gure zentroan gorputzaren garbitasuna lantzeko garbiketarako nahiz zikintzeko uneak izango ditugu.

Gorputzaren garbiketak, leku eta objektuenak bezalaxe, prebentzioarekin eta gaixotasunak hartzeko aukerak murriztearekin du zerikusia. Gaixotasunak, infekzioak eta abar sortzen dituzten agenteekiko kontaktuan defentsak hartzen joan behar dugu, baina ez guztiak batera. Gainera, oso gogoan izan behar dugu haurrak zenbat eta txikiagoak izan orduan eta zailagoa dela horiei aurre egitea sistema immunologikoa oraindik garatzen ari delako. Hori dela eta, jaioberri batek eta bi urteko haur batek ez dituzte muga berdinak behar gaixotasunetatik eta osasunarentzat kaltegarriak diren agenteetatik babesteko. Horrenbestez, sehaskakoen gelan arreta berezia izan behar dugu eta bereziki arduratsuak izan behar dugu.

Horri dagokionez, garrantzitsua izango da oro har espazioak garbi, zainduta eta behar bezala klimatizatuta ($18^{\circ}/20^{\circ}$), aireztatuta eta argituta egotea. Halaber, jostailuak eta hurrek erabiltzen dituzten objektu guztiak egunero garbitu beharko ditugu, izan ere, hurrek horiek ahora eramaten dituzte, elkarbanatu egiten dituzte, arrastaka erabiltzen dituzte eta abar. Bestalde, zentroak etengabe hausnartu eta aztertu beharko ditu ahalik eta istripu gehien ekidingo duen segurtasun-maila izanik, espazio horiek mugitzeko autonomia eta aukera eskain dezaten. Neurri horiek haur eskolaren eremu guztien, altzarien, objektuen, jolasen eta oro har material didaktikoen, ontziteriaren eta hainbat tresnaren eta instalazioren (berogailuarena, elektrikoa, ikus-entzunezkoena eta abar) egokitzearen ingurukoak izango dira.

Gorputzaren ongizateari bagagozkio kontuan hartu beharreko beste alderdi bat haurrak gaxorik daudenean (gaixotasun kutsagarriaren bat badute, haur-eskolan egoteak eskatzen duen erritmoa jarraitzeko egoeran ez badaude, min handia badute edo 38.5° baino gehiagoko sukarra baldin badute) zentrorra ez joatearen ingurukoak dugu. Haurren batek zentroan istripuren bat izaten badu edo bertan gaixotzen bada, berehala familiari jakinaraziko zaio haiek egokien iritzitako neurriak har ditzaten. Dena dela, egoerak eskatzen badu (oso larria bada edo familiarekin ezin izan badugu hitz egin) zentroko langileek zaindu beharko dute haurra eta beharrezkoa balitz hurbilen dagoen osasun-entrora edo ospitalera eraman beharko lukete. Egoera berezi horietan tutoreek eta zuzendariak zainduko dituzte haurrak segurtasuna, lasaitasuna eta kontsolamendua eskaintzen saiatuz.

Bestalde, garrantzitsua izango da arropa bertako klimatizaziora egokitzea gehiegizko transpirazioa eta tenperatura-aldaketa bortitzak saihesteko.

Garbitzeko une horiek nola ezarri ditugun

- Kaka egiten duten bakoitzean haur-oihala aldatuko zaie, narritadurak eta arazo dermatologikoak saihesteko eta usain txarra kentzeko. Aldaketa baino lehen eta ondoren sentitzen dena hauteman dezaten ahaleginduko gara.

Nahiz eta kakik ez egin haur-oihala busti samarra dagoen bakoitzean aldatuko zaie, guxtienez goizean behin bazkaltzera joan baino lehen eta bazkaldu ondoren. Halaber, siesta egin ondoren ere haur-oihala aldatuko zaie. Aldaketa horiek pixkanaka eguneko une jakinekin lotuko ditugu jarraibideak eskaintzeko eta gernu- eta kaka-egiteen erritmoak behatzeko (bazkaldu baino lehen eta ondoren, lo egin baino lehen eta ondoren).

- Eskuak, aurpegia eta beharrezkoa balitz gorputzeko beste edozein atal garbituko zaie bazkaldu baino lehen eta ondoren eta siesta egin baino lehen eta ondoren. Osasunaren inguruko arazoak direla eta garrantzitsua da elikagaiak eskuak garbi dituztela irenstea. Halaber, garbi sentitzeak erlaxatzen eta atsedean hartzen laguntzen duela uste dugu. Es-

kuak eta beharrezko bada beste atalen bat garbituko zaie plastikako jarduerak egin ondoren, lokatzarekin, arearekin edo urarekin jolastu ondoren.

- Haurrak mukirik eta lerderik gabe egon daitezen ahaleginak egingo ditugu, baina haiek nazkatu gabe eta guk obsesiorik hartu gabe (ez da ezer larririk gertatuko noizbait mukiekin ibiltzen badira).
- Gorputz guztia bainatzea beharrezkoa balitz (oka egin duelako, kaka asko egin duelako edo beste arrazoiren batengatik), jakina, bainatu egingo lirateke. Hala ere, hori oso kasu puntualetan egin behar dugulakoan gaude, izan ere, bainuaren erantzukizuna familiek izan behar dute. Haiek erabaki behar dute zein maiztasunarekin, zein ordutan eta nola bainatu nahi duten.
- Nahiko zikinak daudenean ura eta xaboi neutroekin garbituko ditugu, baina, hala ez bada, urarekin bakarrik garbituko ditugu, izan ere, dermatologoek, nahiz eta neutroak izan, xaboi eta gel gehiegi ez erabiltzea aholkatzen dute, gehiegi erabiltzeak arazoak sor baititzake.
- Min hartzen dutenean (zauriak eta antzekoak) garbitu eta behar bezala desinfektatuko dira. Egoera puntualen inguruko jarraibideak transmititzeko modua izan liteke. Mina dutenean lasaitasuna eta segurtasuna transmititzen saiatuko gara. Halaber, mina jasan dezaten lagunduko diegu.

Garbiketa-jarraibide eta -ekintza horiek gauzatzeko modua

- Haur-oihalak beti banaka aldatuko dizkiegu eta aurpegia eta eskuak ere beti bakarrik garbituko dizkiegu. Aldatzeko eta garbitzeko une horiek banakako harremanak eta pertsonalak indartzeko eta lantzeko erabiliko ditugu. Aldaketa horiek lasai eta merezi duten arretarekin egiteko adinako denbora hartzen saiatuko gara. Hori haurraren eta helduaren arteko gorputz-harremanerako eta hitzezko harremanetarako une egokia da.
- Haurren beldurrak, erritmoak eta ematen diguten konfidantza-maila, lotura-maila eta ezarritako harremanak errespetatuko ditugu.
- Hasieratik zeregin horietan parte har dezaten eta lagun dezaten saiatuko gara, izan ere, horrek norberaren gorputzaz, bere aukerez eta mugez, kontzienteago izaten lagunduko digu eta autonomiaren inguruko ohiturak eta jarraibideak pixkanaka lantzea ahalbidetuko digu.

Zeregin horiek gauzatzeko tresnak edo objektuak

- Garbitasunaren inguruko arrazoiak direla eta objektu hauek beti pertsonalak izango dira, ikasle bakoitzarenak (toailak, esponja, orrazia, krema eta abar).
- Ura eta xaboi neutroak.
- Haur-oihalak aldatzeko saio bakoitzean hezitzaileek botatzeko eskularruak erabiliko dituzte. Hori prebentziorako neurri bat da gorozkiekiko eta gernuarekiko kontaktuan kutsatzeko arriskurik izan ez dadin. Halaber, eskularru horiek erabiliko ditugu okak jaso behar diren bakoitzean, zauriak sendatzerakoan eta abarretan.

- Zentroan eskuak lehertzeko eta mukiak kentzeko papera, gel neutroa eta lehen larrialdiak sendatzeko behar adinako produktuak –gasak, betadine, tiritak, H₂O₂, antipiretikoa eta abar– egongo dira.

2.3.6.2. Gorputzaren zaintzari, bere ekoizpenei eta gorputzaren gozamenari ematen diegun garrantzia

Curriculum-proiektu honen hainbat ataletan, baita eskuhartze honen hasieran ere, jada adierazi dugu nola ulertzen dugun gorputzaren kontzeptua eta zenbaterainoko garrantzia ematen diogun.

Gorputz horren ikuspegi orokorra da, bere ekoizpen ugari eta anitzekin (biologikoekin, emozionalekin, afektiboekin, komunikatiboekin; kontzienteekin nahiz inkontzienteekin) batera, gutako bakoitza, gure bizipenen eta egiteen bidez, gizaki berezi eta bakar egiten gaituena. gorputz hori, gure izate guztiaren euskarri eta edukitzaile dena, *besteekin*, *objektuekin* eta *errealitatearekin* kontaktua izateko eta *norbera* materializatzeko ezinbesteko tresna pribilegiatua, da *gure ikasleen gorputzak* zaintzen edo zaintzen irakasten edo laguntzen dugunean gogoan hartzen ahalegintzen garena.

Ildo horretatik oso garrantzitsu irizten diogu hezkuntza-taldeko langile guztiak beren gorputza nola zaintzen eta horrezaz nola arduratzen diren lantzen eta hausnartzen saiatzeari, izan ere, horrek giltzarri, jarraibide eta pista asko eskainiko dizkigu beren adina eta autonomia-eza dela eta gure mende dauden haurrak nola zaindu jakiteko.

Ekoizpenei dagokienez, jada adierazi dugu hainbat motatakoak direla. Ekoizpen ugari horiek elkarri eragiten diote eta elkarrekiko harremanak dituzte (neurri handi batean) horiek zuzentzen, kontrolatzen, lotzen eta garatzen dituen nerbio-sistemaren bidez. Hori dela eta, komenigarria izango da ekoizpen bakoitza sistema isolatu gisa, zerikusirik izango ez balute bezala ez hartzea.

Garbiketarekin zerikusi estua duen alderdi bat aipatzearen, haurren zaintzari dagokionean egunerokoak diren ekoizpen biologikoen arteko bat aipatuko dugu, hau da, gorozkiak, gernua, lerdea, izerdia eta abar. Gehienetan ekoizpen horiek *zikintasunarekin*, *atsegina ez denarekin* eta abarrekin lotu ohi dugu. Egia da, alde batetik gisa horretako konnotazioak dituztela, baina horiek ez dira bakarrik, izan ere, guztiz beharrezkoak diren barne-ekoizpenak dira, gure ongizaterako eta oreka orokorrerako funtzio garrantzitsuak betetzen dituztenak. Gure kulturaren, agian, ikuspegi negatiboegia dugu.

Horri dagokionez kontuan izan behar dugu garbitasunerako gizarte-jarraibideak transmititu behar ditugula, baina horiek ezin ditugula konnotazio negatiboekin bakarrik mugatu. Adin hauetan mintzagai ditugu ekoizpenek, batez ere gorozkiak eta gernua, esanahi berezia dute eta haurrek —naturala den gisan— zerbait oso pertsonala, norberarena eta garrantzitsua dela ulertzen dute. Ondo ezagutu, kontrolatu eta erabili behar duten zerbait dela uste dute, izan ere, erakitzen ari diren NIaren zati dira eta, gainera, garapen psiko-ebolutiboaren eta sexualaren etapa garrantzitsuekin dute lotura.

Ekoizpen horiek duten garrantzia dela eta berariazko atal bat eskainiko diegu eta Esfintereak kontrolatzea izenburupean landuko ditugu, izan ere, 0-3 arteko aldiaren kontrol hori giltzarri izango da.

Esfintereak kontrolatzea oro har haurraren inguruko helduak kezkatzen dituen lorpena da, bertan hainbat faktorek esku hartzen dutelako eta ahalegin handia eskatzen duelako. Batzuetan adin honetako neska-mutilak zaintzen eta hezten ditugun helduok haur bakoitzarentzat zein une izango den egokiena, ondoren gizartearen eta motibazioaren inguruko arazorik izan ez dezan epe egoki batzuetan kontrol hori lortuko ote duen balioesteko eta urrats hori emateko proposatutako moduari dagokionean asmatzeko erronka izan ohi dugu.

Zeregin horretan haurra zaintzen eta hezten duten heldu guztiek lagundu behar dute eta hori dela eta funtsezkoa izango da guztien artean adostea haurrei kontrol hori lortzeko bidea errazteko.

Lehenago ere aipatu dugunez, esfinterrak kontrolatzea berariazko esku-hartze bat izango da. Une honetan taldea esku-hartze hori sakontzen ari da eta hori dela eta, berrikusi eta guztion artean adostu arte, ez zaio curriculum-proiektuari erantsiko.

2.3.7. IKASLE BAKOITZAREN HISTORIA (ALBUM) PERTSONALA

Jarduera honekin familiako eremua nahiz eskolako barne hartuko dituen eta gutxienez haur bakoitzaren *historia-ibilbidearen* zati bat, zentroan eman duen aldikoa, islatuko duen espazioa –grafikoa eta sinbolikoa– sortu nahi dugu.

Elkarbanatutako espazio hori sortzeak honakoa ahalbidetuko dio:

- Familiako eremuari merezi duen garrantzia ematea.
- Ikasle bakoitza osoago eta gehiago ezagutzea.
- Elkarrekin zentroan eta familian garrantzitsua eta esanguratsua dena biltzeko, islatzeko eta erasota uzteko leku komun bat sortzea.
- Eskuratzei, une garrantzitsuei, ikasle bakoitzaren martxari, prozesu ebolutiboari eta abarri buruzko informazioa zentroaren eta familiaren artean sistematikoki eta egunero elkarbanatzea eta transmititzea.
- Modu sinple batean eta erraz erabiltzeko moduan (bai zentrorako bai familiarentzat) ikaslearen bizitzako lehen urteetako ibilbidea grafikoki adieraztea.
- Ikaslearentzat garrantzitsuak eta esanguratsuak diren pertsonak (gurasoak, anai-arrebak, izeba-osabak, aiton-amonak, lagunak) zentroran eramatea eta gainerako ikaskideei eta hezitzaileei ezagutaraztea.
- Protagonista gisa haurrak berak izango dituen euskarri grafiko bat, honakoen arteko ahozko komunikazioa erraztuko duena, izatea:
 - Ikaslea/ikaslea.
 - Ikaslea/hezitzailea-k.
 - Ikaslea/familia.
 - Familia/hezitzaileak, hezkuntza-taldea.

2.3.7.1. Nola garatuko dugu jarduera?

Ikasle bakoitzaren historia osatuko duen informazio osoa biltzeko uztai-albuma.

Egunerokoa koadernotxoa: zentroak koadernotxo bat izango du egunero zentroaren eta familiaren artean informazioa trukatzeko eta transmititzeko.

Koadernotxo horren egitura dela eta egunero familiek idatzi ahal izateko berariazko espazio bat eta zentroak egunero bi motatako informazioa erregistratzeko berariazko beste espazio bat aurreikusi dira. Bata informazio orokorraren, garrantzitsuak izan daitezkeen gertakarien eta beste hainbat oharren ingurukoa eta bestea janariaren, osasunaren, atsedenen eta garbiketaren alderdiei, adin honetan garrantzitsuak direnei, dagokiena.

Hilabetea amaitu ondoren familiak eta tutoreak haurren album pertsonalean sartzeko hautatu dituzten orriak aterako dira koadernotxo horretatik.

Argazkiak . Zentroak hiru hilero albumei jardueren inguruko argazkiak, banakakoak nahiz taldekakoak, eta haur bakoitzaren gertakari edo une garrantzitsuen ingurukoak erantsiko dizkio.

Familiei, ahal duten neurrian, hiru hilero beren seme-alaben argazkiak, garrantzitsutzat edo esanguratsutan jo dituzten egoera eta uneenak, emateko eskatuko zaie.

Argazki horiek, zentroak nahiz familiak emandakoak, horretarako prestatutako kartulinetan itsatsiko dira gertatzen ari denari buruzko hainbat alderdi, zeri egiten dioten erreferentzia, idatzi ahal izateko, ondoren kontakizuna testuinguru batean kokatzeko aukera izan dezagun. Ahal den neurrian data, ordena kronologikoa izan dezaten, eta bertan agertzen diren pertsonak zein diren adieraziko dugu.

2.3.7.2. *Historia/album horren erabilera*

Ikasleak zentroan egiten duen edo dituen ikasturteetan zehar albuma bere gela naturalean egongo da erabili eta prestatu ahal izateko. Dena dela, familiek album hori nahi dutenean erabili ahal izango dute eta beharrezko irizten diotenean etxera eraman ahal izango dute. Hala era, familiari album hori zentrorra itzultzeko eskatuko zaio tutoreak gainerako baliabide didaktikoen artean erabili ahal izateko eta ikasleak ere hori bere ikaskideekin batera erabili ahal izateko.

Ikasleak protagonista gisa dituzten ipuin-historia pertsonalei dagokienez, tutoreak erabakitako moduan erabiliko dira ikasturtean zehar (haur bakoitzaren bizitzako une garrantzitsuak lantzeko, taldeko elkarrizketak egiten hasteko, nor bere familiako kideen berri ikaskideei emateko, ipuin bat baliran erabiltzeko eta abarretarako erabiltzea erabaki dezake).

Haur bakoitzak, bere zentroko egonaldia amaitzen denean, idatzitako eta irudiz (argazkiz) apaindutako album-historia pertsonal bat izango du, bere bizitzako lehenengo urteetako ibilbidea kontatuko duena.

Album hori familiek haurren adinak eta heldutasunak hala ahalbidetzen dietenean beren seme-alabei beren historia pertsonala, oso txikiak zirenetik hasita, (modu kontzienteagoan) bererraitzen laguntzeko –ez dugu ahaztu behar alderdi hori oso garrantzitsua dena guztiontzat– aurrerago erabili ahal izango duten baliabide bat da.

Halaber, album horren bidez “oso ipuin berezia” kontatzeko aukera sortzen ari gara, familiek irakurketa gisa erabil dezaten eta beren heldutasunak eta gaitasunak irakurtzea ahalbidetzen dietenean protagonistek berek irakurgai gisa erabil dezaten.

Idatzizko, ahozko hizkuntza nahiz grafikoa barne hartuko dituen eta bilduko dituen eta norbanakoarentzat esanguratsu bihurtuko den espazioa sortzen lagunduko dugu.

2.4. EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

Ebaluazioa izaera orientatzailea eta autozuzentzailea izan behar duen behaketarako, jarraipenerako (erregistrarako) eta hausnarketako etengabeko prozesua da.

Horrek esan nahi du nola behatuko dugun eta behaketa hori zeren inguruan egingo dugun aurreikusi behar dugula. Bestalde, garrantzitsua izango da behaketa hori erregistratzea, informazioa trukitzea eta hausnarketaren eta esku hartzen dugun agenteon trukearen ondoriok transmititzea, behaketa hori orientatzailea eta autozuzentzailea izan dadin.

Horretarako honakoa aurreikusi dugu:

— *Ebaluazioa hiru mailatan lantzea*

- Lehenengo maila: ikasleak.
 - Banaka.
 - Taldeka.
- Bigarren maila: zentroa eta hezkuntza-taldea.
- Hirugarren maila: hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua.

1. mailari dagokionean:

— Honetarako erabiliko ditugun baliabideak zein izango diren definitzea:

- Behaketarako.
- Erregistrarako.
- Bateratze-lanerako (eztabaida, hausnarketa).
- Transmisorako.

— Aldizkakotasuna definitzea:

- Erregistroa.
- Bateratze-lana.
- Transmisioa.

— Zein agentek esku hartuko duten:

- Erregistroa.
- Transmisioa.

2.4.1. IKASLEAK

2.4.1.1. Banaka

BALIABIDEAK	MAIZTASUNA	ZEINTZUK ERREGISTRATUKO DUTEN	MAIZTASUNA	ZEINTZUK INFORMATUKO DUTEN
<p><i>Hasierako historia</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Familiako datu orokorrak – Ikaslearen anamnesi-a – Familiaren eta ikaslearen igurikapenak eta premiak 	<i>Urtekoa</i>	Zuzendaria	Zentroan sartzea	Familia. Zuzendaria. Hezkuntza-taldea.
<p><i>Jarraipen-protokoloak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Egokitzealdiak. – Ordutegiak. – Aldaketak. – Haurren eta familien jarrerak. – Arazoak. – Eremukako edukiei dagozkien adierazleak. <ul style="list-style-type: none"> • aurretiko ezagutza. • jabetzeak, lorpenak. • atzerapenak, arazoak. – Datuen erregistroa. <ul style="list-style-type: none"> • zentroko egunaldi guztian zehar. • hilabetekako erregistroa jabetzearen arabera. • mailaka ez estandarizatzea, banakako erritmoak errespetatzea, eremukako desberdintasunak. 	<i>Hiruhilekoa</i>	Tutorea	Sei hilekoa edo familiaren eskaeraren arabera	Tutorea Familia
<p><i>Koadernoak, eguneroko erregistroak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Alderdirik esanguratsuenak: <ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak. • Lorpen garrantzitsuak. • Arazoak. • Gertakariak. • Alderdi bereziak. – Honakoen inguruko alderdiak: <ul style="list-style-type: none"> • Osasuna. • Elikadura. • Atsedena. • Garbiketa. 	<i>Egunerokoa</i>	Tutorea + Familia	Egunerokoa	Tutorea Familia
<p><i>Bideoko grabazioak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Kasuak: <ul style="list-style-type: none"> • premia bereziak, • jarraipen xehea, • familiarekin lantzeko zailak. 	<i>Premiaren arabera</i>	Tutorea Laguntzailea Zuzendaria	Premiaren arabera	Tutorea edo/eta zuzendaria Familia
<p><i>Banakako elkarriketak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Esku-hartze azkarra eskatzen duten alderdiak edo arazoak. <ul style="list-style-type: none"> • Errepikatzen diren arazoak. • Familiei aholkuak emateko beharra. 	<i>Premiaren arabera</i>	Tutorea edo/eta zuzendaria	Premiaren arabera	Tutorea edo/eta zuzendaria Familia

2.4.1.2. Taldeka

1. Ikasle talde naturalak

BALIABIDEAK	MAIZTASUNA	ZEINTZUK ERREGISTRATZEN DUTEN	MAIZTASUNA	ZEINTZUK INFORMATZEN DUTEN
<p><i>Jarraipen-protokoloa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Taldekoen banakako datu esanguratsuenen laburpena. <ul style="list-style-type: none"> • Jabetzea. Lorpenak. • Zailtasunak. Arazoak. – Honakoak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Maiztasuna. • Eremurik landuenak. • Gutxien landutako eremuak. 	<i>Hiruhilekoa</i>	Tutorea	<i>Hiruhilekoa</i>	Tutorea Familiak
<p><i>Bideoko grabazioak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Marko-jarduerak. – Egunekoko martxa. – Aurrerapenak. – Taldeko une ebolutiboak. – Zailtasunak. 	<i>Hiruhilekoa</i>	Tutorea edo/eta laguntzailea edo/eta zuzendaria	<i>Hiruhilekoa</i>	Tutorea Familiak
<p><i>Bilerak: tutorea+laguntzailea+zuzendaria</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Kezka sortzen duten ikasleak (zergatik?). – Taldearen ezaugarriak. – Taldearen premiak. – Taldekideen integrazioa eta partehartze-maila proposatutako jardueretan eta eguneroko martxan. 	<i>Hiruhilekoa</i>	Zuzendaria + laguntzailea	<i>Hiru hilekoa edo premiaren arabera</i>	Zuzendaria + laguntzailea Hezkuntza-taldea

2. Ikasle taldeak mailaka

BALIABIDEAK	MAIZTASUNA	ZEINTZUK ERREGISTRATZEN DUTEN	MAIZTASUNA	ZEINTZUK INFORMATZEN DUTEN
<p><i>Hezkuntza-taldearen bilerak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Taldeko kide guztiak: <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle eta talde guztien alderdirik esanguratsuenak ezagutzea. • Jardunbideak zehaztea. • Premiak asetzeko hitzarmenak. • Taldeen funtzionamendua hobetzeko proposamenak. 	<i>Hilerokoa</i>	Zuzendaria	<i>Hilerokoa</i>	Zuzendaria + tutorea Hezkuntza-taldea

BALIABIDEAK	MAIZTASUNA	ZEINTZUK ERREGISTRATZEN DUTEN	MAIZTASUNA	ZEINTZUK INFORMATZEN DUTEN
<p><i>Bideoko grabazioak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Mailakako jarduerak. – Taldeen arteko harremanen alderdirik garrantzitsuenak. – *Jarduera berri edo bereziak. 	<i>Hiruhilekoa</i>	Tutoreak + zuzendaria	<i>Noizbehinkakoa</i>	Tutorea Familiak
<p><i>Mailakako tutoreen + zuzendariaren bilerak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Proposatutako jarduerak: <ul style="list-style-type: none"> • Lortzea. • Koordinatzea. • Zailtasunak. • Premiak. – Taldeen arteko harremanak <ul style="list-style-type: none"> • Aukerak. • Bat datozen espazioak. • Arazoak. • Premiak. 	<i>Hiruhilekoa</i>	Zuzendaria	<i>Hiruhilekoa</i>	Zuzendaria + mailakako tutoreak Hezkuntza-taldea

2.4.2. ZENTROA ETA HEZKUNTZA-TALDEA

Baliabideak

- Klaustroa (hilerokoa).
 - Mailakakoen+ zuzendariaren bilerak (hiruhilekoak).
 - Tutoreen+laguntzaileen+zuzendariaren bilerak (hiruhilekoak).
 - Aldagaiak kontrolatzea eta aztertzea:
 - Asistentziaren erregulartasuna (ikasleak).
 - Zerbitzuen erabilpen-maila:
 - Jangela.
 - Aholkularitza.
 - Tutoretzak.
 - Ikasturtean izandako ikasleen bajak.
 - Familientzako inkesta anonimoak (iritzi-azterketa):
 - Programa.
 - Funtzionamendua.
 - Profesionaltasuna.
 - Instalazioak.
 - Prezio publikoak.
 - Familiaren eta zentroaren arteko harremanak.
 - Familiekin egindako asanbladak eta bilerak. Behaketa, analisia eta hausnarketa honako alderdien inguruan egingo da:
 - Egin diren jarduerak:
 - Antolamendua.
 - Baliabideak.
 - Arazoak.
 - Gauzatze-maila.
 - Taldeko kideek hezitzaileekin eta zuzendaritzarekin izandako jarduketak:
 - Familiak.
 - Ikasleak.
 - Taldeak.
 - Taldeko beste kide batzuk.
 - Programak izan duten kohesio- edo/eta inplikazio-maila.
 - Programa abian jartzeko edo gauzatzeko zailtasunak.
 - Programa abian jartzetik sortutako premiak.
- Beste eremu batean (hau ere ebaluatzeko modukoa da):*
- Zerbitzuen funtzionamendua
 - Jangela (hornitzaileak).
 - Eraikinaren garbiketa.
 - Garbitegia.
 - Eraikinaren eta instalazioen mantenimendua.
 - Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gaztedia Saileko Bulego Teknikoarekiko harremanak.

2.4.3. HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA CURRICULUM-PROIEKTUA

Baliabideak:

Hezkuntza-taldearen bilerak, gai hauen ingurukoak:

— Zentroaren helburuak eta filosofia:

- Berrikustea.
- Balioa.
- Errespetua eta koherentzia.
- Horiek lortzeko jarduerak.

— Programatutako hezkuntza-esku-hartzeak:

- Kritika.
- Hausnarketa.
- Egokitzea.
- Adostea.

— Jarduera-irizpideak:

- Aniztasunaren tratamendua.
- Hizkuntza tratamendua.
- Zentroaren eta familien arteko harremanak. Tutoretzak.

Egokitzea.
Erabiltzea.
Egin daitezken hobekuntzak.

— Ebaluaziorako irizpideak:

- Nahikoak.
- Arinak.
- Egokituak.
- Erabilera.

— Antolamendu-irizpideak

- Ordutegiak.
- Egutegiak.
- Taldekatzeak.
- Ratioak.
- Langileen betebeharrak.
- Funtzionamendu-arauak.

— Koordinazio-irizpideak:

- Implikazioa.
- Hitzarmenak errespetatzea.

Nahikoak.
Arinak.

2.5. METODOLOGIA

Hezkuntza-zeregina gizabanakoak bere ingurunean –familiako ingurunean nahiz gizarte-ingurunean– garapen osoa eta harmonikoa izatea helburu duen prozesu dinamikoa da.

Gisa horretako filosofiak hainbat alderdiren inguruan hausnartu behar dela eta hainbat alderdi planteatu behar direla pentsarazten digu. Besteak beste: haurren desioak eta interesak, beren maila ebolutiboa, beren erritmoa, aurretiko ezagutza, beren familia-egoera (interesak, motibazioak, zailtasunak), beren kultura... Hori dela eta, gure zeregina metodologia aktibo batean, haurra izaki sozial gisa protagonista izango duenean, kokatuko dugu.

Protagonista izango dela diogunean, haurrak bere interesen, desioen, aukeren eta premien berri emango digula eta gure zeregina ez dela informazio hori iritsi arte pasiboki egotea adierazi nahi dugu. Aitzitik, erabili behar dugun koordinatu garrantzitsuenetarikoa bat entzuteko gaitasuna izango da, entzute hori zorrotz behatzeko, hainbat kanal komunikatiboren bidez (ahozko hizkuntza, gorputzarena, bisuala, ukimenarena, tonuarena, entzumenarena eta abar) mezuak jasotzeko eta harremanak izateko, egoerak interpretatzeko, ondoren estimuluak, erantzunak eta ikaskuntza esanguratsuak eskaini ahal izateko adierazteko eta sortzeko uneak sustatzeko gaitasun gisa ulertuta.

Ildo horretatik, entzuteak funtsezkoa dirudi bat-bateko jolasari¹¹ edo/eta sinbolikoari, adin horretan haurrek dituzten sortzeko eta adierazteko alderdi guztiei leku egiteko.

Bestalde, ekintzaren, manipulazioaren, esperimentatzearen, mugitzearen, imitatzearen eta abarren garrantzia izango da erabili beharreko metodologiaren giltzarrietako bat.

2.6. HIZKUNTZ TRATAMENDUA

Zentroaren helburuen artean “euskararen erabilera berreskuratzeko eta normalizatzeko” beharra dugu.

Zentroaren helburu orokor hori ez zaio hezkuntza-taldearen barruan egindako hausnarketei bakarrik zor, aitzitik, Irungo Euskararen Erabileraren Udal Ordenantzaren, 1990eko irailaren 26ko Udal Osoko Bilkuran onartutakoaren, oihartzuna ere bada.

Hezkuntza-helburuak, zalantzarik gabe udalerriarekin bat etorri behar dutenak, zein aipatutako ordenantzaren 28. artikuluan planteatutakoak koordinatu behar dira eta horiei erantzun behar zaie:

¹¹ *Bat-bateko jolasa*: oso garrantzitsua dirudi entzuteko testuinguru honetan eta lan-tresna gisa bat-bateko jolasa aipatzen dugunean zer adierazi nahi dugun definitzeak.

Ez gara ari haur bakoitzak hainbat egoeratan sor dezakeen bat-bateko jolasari, heldua ikusle gisa ere agertzen ez denari, buruz (nahiz eta hori oso garrantzitsua izan). Aitzitik, bat-bateko jolas sortzaileari egiten diogu erreferentzia, baina egoera jakin batean kokatuta dagoenari. Bertan helduaren presentziak hainbat inplikazio eta rol izan ditzake (ikusle, zaintzaile, parte-hartzaile, entzule, euskarri, gertatzen denaren adierazi eta abar).

Horrek ez du esan nahi zentzoko haurrek ezin dutenik beren kasa, beren ekintza marko batean kokatu gabe, jolastu, baina, gure ustez, helduaren presentzia gertakari erreala denez, helduari dagokio kokatzea eta gailu dinamiko, lantze- eta gaitzite-motore gisa baliagarri izango diren hainbat aukera eta rol eskaintzea. horrek esan nahi du prozesu elkarreragile bati buruz ari garela eta prozesu horretan haurrak nahiz helduak daudela inplikaturik. ikuspegi eta aukera desberdinak izango dituzte, baina zeregina komuna.

1. Euskaldunen kopurua handitzea.
2. Eguneroko bizitzan euskara erabiltzea sendotzea.
3. Euskararen gehiago erabiltzeko sustatzea.

Ordenantzaren Xedapen Orokorrek koofizialtasun-estatusa, euskararena nahiz gaztelaniarena, biltzen dute eta aldi berean gizartean bi hizkuntza horien arteko berdintasunetik oso urrun gaudela jasotzen dute. Hori dela eta Udalak tratu berezia eta lehentasuna emango dizkio euskarari.

Zentroak, bere hezkuntza-ezaugarriak eta udal-zentro gisa dituen betebeharrak batuz, bere jarduera-eremuan euskara berreskuratzeko eta normaltzeko erantzukizuna beretu behar du eta horretan inplikatu behar du.

Planteamendu horiei jarraiki “D” hizkuntz ereduaren antzekoaren, beste hezkuntza-etapetan erabilitakoaren, alde egin dugu, izan ere, 0-3 urte arteko aldiak bigarren hizkuntzaz jabetzeko edo ama-hizkuntza indartzeko baldintza ezin hobeak ditu, aldi honetan agertzen baita ahozko hizkuntza.

Gainera, gisa honetako zentro batean sortzen diren lotura afektiboen, kanalen eta harremanetarako eta komunikaziorako estrategien motak hizkuntza asimilatzen eta egokitzen laguntzen du.

Horrenbestez, euskara izango da irakas-tresna eta hezkuntzaren eremuko tresna, “Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek bertan ofizialak diren bi hizkuntzetan hizkuntz gaitasun egokia izateko” azken helburua lortzeko. Horretarako eskuhartze goiztiarrak planteatu behar dira eta 0 urte dituztenetik lehentasunezko tratamendua eman behar zaio euskarari.

Itunen euskaldunen portzentaia gaztelaniaz mintzatzen direnena baino nabarmen txikiagoa da (nahiz eta portzentaia horiek mantso bada ere handitu egin diren, batez ere haurren adin-multzuan). Horrek esan nahi du zentroak egoera zail eta korapilatsu bati egin behar diola aurre eta horretarako formulatutako helburua lortzea ahalbidetuko diguten programak eta jarduerak diseinatu beharko dira. Ildo horretatik, oso garrantzitsua izango da planteatutako eskuhartzeen inguruko etengabeko hausnarketa eta ebaluazioa egitea, izan ere, adin eta eremu horietan oraindik ere zalantzak ugariak dira eta jarduerarako jarraibide eta irizpide argiak eskainiko dizkiguten ikerketa-alorrak zabalak. Nola nahi ere den, jarraibide horiek, programak eta jarduerak diseinatzerakoan, honakoak izango dituzte kontuan:

- Gurasoen ama-hizkuntza zein den. Horietakoren batek euskaraz hitz egiten duen eta zein gaitasun-maila duten.
- Familiako zein kidek edo haurrentzat esanguratsuak diren beste zein pertsonak hitz egiten duten euskaraz eta horiekin zein maiztasunez izaten duen kontaktua.
- Gaztelaniaz mintzatzen diren familiek zein jarrera duten euskararekiko.
- Haurren adina eta euskaraz edo/eta gaztelaniaz duten hizkuntz gaitasuna.
- Ustez zentroan emango dituen urteen kopurua.
- Taldeen osaketa gurasoen eta haurren euskara-ezagutzaren arabera.

Gure zentroko hizkuntz eredia “D” da eta bertako ikasle gehienak (batzuetan baita %80 baino gehiago ere) gaztelaniaz mintzatzen diren familietako haurrak dira. Hori dela eta, ikasle

gehienak beren lehen hizkuntzaz jabetzeko prozesuan egongo dira eta gehienak baita 2. hizkuntzaz jabetzekoan ere.

2.7. ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA

Zentroaren eremuaren deskribapena egin dugunean, argi adierazi dugu gure zentroko ikasleen taldea hainbat maila sozioekonomiko eta kulturaletatik datozen ikasleek osatzen dutela eta hori dela eta talde heterogeneoa eta erreferentzia aberatsekoa izango dela.

Irungo haur guztiei Haur Hezkuntzako zentro batera joateko aukera eskaintzeak eta errazteak maila sozioekonomiko baxuenekoen eta (beren familiek nahiz ikasleek berek dituzte minusbaliotasun fisikoak edo/eta psikikoak direla eta) hezkuntza-premia bereziak dituztenen aldeko diskriminazio positiboa eskatzen du.

Dena dela, desberdintasunak goiz estimulatzea eta ulertzea ahalbidetuko duen talde heterogeneoa eta erreferentzia aberatsekoa eskaini ahal izateko maila sozioekonomiko baxuenetatik altuenetara doazen familiak bildu behar dira, izan ere, hala izango ez balitz, ez genuke konpentsatzeko eta aberasteko efektua lortuko.

Horri dagokionean, Irungo Udalak —proiektuaren eremuan adierazi den gisan— ahalegin handia egin du familiek ordaindu beharreko kuotak egokitzeko.

Aniztasuna printzipio dinamiko eta aberasgarri gisa planteatzea gure zentroaren koordinatetako bat da eta hori dela eta honakoa egin beharko dugu:

- Heltze-erritmoak eta garapen pertsonalak errespetatu eta sustatu.
- Sexu-desberdintasuna dela eta bertako kiderik ez diskriminatu.
- Desberdintasuna, edozein motatakoa izanik ere, onartu, errespetatu eta barne hartu eta positiboki baloratu.
- Gabezia fisikoak, psikikoak edo/eta sozio-ekonomikoak direla eta sortutako desberdintasunak konpentsatu.

Gure hezkuntza-zereginen aniztasunaren erantzuna gauzatzeko:

- Funtzionamendu-erritmoak egokituko ditugu, garapen ebolutiborako erritmo pertsonalak nahiz ohiko funtzionamendu-erritmoak kontuan hartuko dituen ikuspegi malgu batetik.
- Espazioak, baliabideak eta hezkuntza-eskuhartzeak egokituko ditugu ikuspegi orokor batetik eta garapen osoaren ikuspegitik:
 - Hezkuntza-eskuhartze bakoitzean hainbat eduki hartuko ditugu aintzat.
 - Espazioak premien arabera erraz eta dinamikoki aldatzeko gaitasuna izango dute.
 - Espazio eta eskuhartze bakoitza hainbat zailtasun- eta gauzatze-maila izango dituzten hainbat jarduera ahalbidetzeko prestatuta egongo dira.
 - Proposamen bakoitzak hainbat erantzun posible izango ditu eta horiek guztiak ikaskuntza-prozesuko pauso gisa baloratu eta ulertuko ditugu.
 - Taldekatzeak –eta horiek egiteko irizpideak– etengabe ebaluatuko dira.

- Bitarteko materialek (jostailuek, eta oro har material didaktiko guztiek) hainbat funtzio izan behar dituzte, ez dute estereotipatuak izan behar eta segurtasun- eta osasun-irizpideen eta sortzeko eta aldatzeko dituzten aukeren arabera hautatuko dira.
- Behaketa eta hausnarketa sustatuko ditu banakako nahiz taldekako jarraipena eta ebaluazioa egitea erraztuko duten tresna gisa.
- Talde guztiak etengabe dinamikoa izango den prestakuntza-maila izango du etengabe birziklatzeko eta sortzen diren auzi berriei erantzun ahal izateko.
- Prima prebentiboekin egingo dugu lan eta ahalik eta goizen atzerapenak, arazoak eta harmonia-gabezia ebolutiboak atzemateko eta irtenbideak eta kontrolerako bideak bilatzen saiatzeko adi egongo gara.
- Hainbat arazo diagnostikatuko dituzten eta hainbat tratamendu eskainiko dituzten beste zerbitzu- edo/eta -erakunde-mota batzuekin harremanak izango ditugu. Hona horietako batzuk:
 - Osakidetzako haur-psikologiako zerbitzua.
 - Foru Aldundiko estimulazio goiztiarreko zerbitzua.
 - ASPACE
 - Gautena
 - Gizarte-zerbitzuak (Udalekoak eta Foru Aldundikoak)
 - Berritzeguneak
 - Udal Osasun Zerbitzua

2.8. GURASOEKIKO HARREMANAK

Guk 0-3 urte arteko hurrekin dugun hezkuntza-zereginen familiako eremuak zenbaterainoko garrantzia duen argitzen eta adierazten saiatu gara. Ildo horri jarraiki, familiekiko harremanak eta koordinazioa gisa honetan gauzatuko dira:

- Eguneroko elkarrizketa ahalbidetuko dugu, zentroan sartzen edo bertatik ateratzen direneko uneaz baliatuz, izan ere, gurasoak beren seme-alabekin sartuko dira haurtzaindegira.
- Eguneko daturik garrantzitsuenen eguneroko erregistro bat egingo dugu, egunero familiei bidaliko diegun koadernoaren bidez jakinarazi nahi dieguna adieraziz. Koaderno horri esker familiek tutoreak adierazitakoari erantzun ahal izango diote edo/eta beren oharrak idatzi ahal izango dituzte.
- Familiaren eta zentroaren arteko harremanak hasten direnetik informazioa emateko eta koordinatzeko bilerak ezarriko dira:
 - Matrikulak banaka egingo dira eta zuzendariak berak egingo die harrera guraso berri guztiei:
 - Zentroa ezagut dezaten (bere koordenadak, aukerak, mugak, instalazioak eta abar).
 - Beren interesak, premiak, zalantzak, beldurra eta igurikapenak proposa, planteatu dituzten.
 - Familietako neska-mutilen lehen datuak biltzeko (horrek aurretiko ezagutza, eragin-eremuak eta gisa bereko beste hainbat koordenatu izatea ahalbidetzen digu).

- Mailako eta gelako bilerak egingo ditugu (ikasturtea hasi aurretik) antolatzeko eta informazioa emateko.
- Gelako bilerak antolatuko ditugu hiru hiletik behin (gela bakoitzeko lana eta programazioa azalduko dugu horiek ulertzeko eta argitzeko baliabideen —ikus-entzunezko materialen eta abarren—bidez).
 - Banakako elkarrizketak egingo ditugu.
 - Gurasoei tutorearekin eta zuzendariarekin elkarrizketak edo bilerak izateko aukera eskainiko diegu.
 - Hausnarketarako eta prestakuntzarako leku komun bat sortzea ahalbidetuko dugu.
 - Hitzaldiak, mintegiak edo lan-talde mistoak (familia-zentroa) izango ditugu.

3. HAUR-ESKOLAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

3.1. AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA

Zentroko plantila zuzendari-lana egiten duen psikologoak eta Maisutzako ikasketak dituzten zortzi pertsonak osatzen dute.

Langileen koalifikazioa dela eta, taldeko kide guztiek duten esperientzian (zortzi urteko esperientzia dute gutxienez) ez ezik, zerbitzuaren helburuetarako egoki den prestakuntzan ere oinarritutako aholkularitza eskain diezaiekegu familiei.

Familiek tutoretzarako berariazko ordu batzuk dituzte beren seme-alaben hezitzaileekin hitz egiteko. Horrezaz gain, agiri honetan jada adierazi ditugun bilerak eta informazio-trukeak izateko antolamendu guztia izango dute eskura.

Halaber, behar den guztietan, zentroko zuzendariaren zerbitzua eskatu ahal izango da.

Bestalde, hezkuntza-taldea, tutorea edo/eta zuzendaria familiarekin bilduko dira egoki irizten duten guztietan.

3.2. FAMILIEN PRESTAKUNTZA

Zentroak azken hiru ikasturteetan familiei prestakuntza-topagune batzuk eskaini dizkie. Horietan, beste aditu batzuen laguntzari eta gure taldekide batzuen ekarriari esker, Haur Hezkuntzaren arretan eragin zuzena duten gaiak landu ditugu elkarrekin.

3.3. JANGELA

Zerbitzu hori familiek malgutasunez eta hala aukeratzen dutenean erabiltzeko moduan antolatu dugu. Horretarako zentroko eta jangelako kuotak bananduta daude eta jangelako kuota hurrak bertan bazkaldu duen egunen kopuruaren arabera izango da.

Ez da beharrezkoa atal hau gehiago jorratzea bere funtzionamendua zabal deskribatu baitugu Curriculum Proiektuan, hezkuntza-eskuhartzeen “elikadura” izenburupean.

3.4. EGUTEGIA

3.4.1. IKASLEAK

Zentroa urtean hamaika hilabetez egongo da zabalik, irailetik, uztaileira. Aldi horretan bi eten izango dira; bata Gabonetan eta bestea Aste Santuan.

Zentroa itxita egongo Irungo Udalaren egutegi ofizialean onartutako jaiegunetan eta zubietan.

Zentroko egutegia honako irizpideen arabera osatzen da:

- Administrazio Publikoen hitzarmena.
- Zerbitzuaren berezitasunak:
 - Neska-mutilen premiak eta aukerak.
 - Erabiltzaileen premiak.
 - Langileen eskubideak eta aukerak.

Ikasturtean zehar bi eten egingo dira, izan ere, haurrek atsedean hartzea eta zentro batera joatean —malguak izateko ahalegina egin arren— ezartzen zaien eguneroko erritmoa aldatzea oso garrantzitsua dela uste dugu.

3.4.2. LANGILEAK

Ikasturtea abuztuaren azken astean hasiko da eta aste horretan zehar abiatuko da ikasturtea, ikasturtea prestatzeko taldeko bilerak eta familiekin egingo diren bilerak aste horretan izango dira.

Horrenbestez, oporrak Gabonetan, Aste Santuan eta abuztuko lehen hiru asteetan izango dira. Halaber, hezitzaileek beraiek hautatutako bost egun izango dituzte libre. Nolanahi ere:

- Ezingo dituzte hartu lehenengo hiru hilekoan.
- Ezingo dituzte hartu bi pertsonak batera, egoera bereziren bat ez bada behintzat.

3.4.3. FUNTZIONAMENDU-ORDUTEGIA

Zentroa 7:30etik 17:30era egongo da zabalik, etenik gabe. Salbuespen gisa irailean eta uztailean ordutegi berezia izango da.

- Irailean egokitzealdia dela eta.
- Uztailean (neska-mutilen kopurua gutxitu egiten da eta zentroan egoteko ordutegia ere bai).

Hezitzaileen eta zuzendariaren egonaldiak 7,30 ordukoak izango dira, ordutegi murriztagoa izango duten hilabeteetan izan ezik. Hezkuntza-taldearen ordutegiak urtero osatuko dira, baina beharrezkoa bada premien arabera berregituratuko dira hilero edo/eta hiru hilero. Printzipio hauek hartuko dira aintzat:

- Gurasoek beharrezko irizten dituzten gelako eta mailako ordutegiak aztertzea, haurrentzat egokiak diren ikustea eta talde bakoitzaren premiei buruz hausnartzea.
- Guztizko egonaldia –ahal bada– maila bakoitzeko hezitzaileen artean banatzea, haurren adina eta aukerak kontuan izanik.
- Lehen mailako premiak asetzea. Horretarako sarrera-irteeretako jende-kopurua eta hezitzaile gehiago egotea eskatzen duten jarduerak (jangela, garbiketa, jolasa eta abar) aztertuko ditugu.
- Banakako eta pixkanakako harrera eta agurra ahalbidetzea.
- Zentroko langileen artean ordutegiak berdintasunez eta txandaka banatzea.

Banaketa, oro har, gisa honetan egin ohi da:

SARRERA-ORDUA

7:30

9:30 Erdikoen eta handien mailakoen artean.

10:00

8:30

9:30 Txikien 1. taldea eta 2. taldea txandaka.

10:00¹²

8:30

Sehaskakoen hezitzaileen artean txandaka.

9:30

Batzuetan beste ordutegi batzuk aukeratu dira taldearen premiak direla eta.

9:00

9:30 Laguntzailea.

10:00

Edo beharrezko besteren bat.

9 Zuzendaria.

Edo beharrezko besteren bat.

9:30 Jangelako langilea.

Laguntzailearen eta zuzendariaren ordutegiak finkoak izango dira baina aldatu ahal izango dira zentroaren premien arabera.

Gisa honetako ordutegiari esker erabiltzaileei honetarako aukera eskaintzen diegu:

- 7:30 eta 9:45 artean beren sartzeko ordua aukeratzekoa.

¹² Ikasturteko azkeneko hilabeteetan bakarrik.

- Nahi izanez gero jangela erabiltzekoa.
- Eguerdian etxera bazkaltzera doazenak eta zentroan bazkaldu eta ondoren siesta egiten dutenak pixkanaka, 11:30 eta 13:15 artean, ateratzekoa.
- Zentroan berriz 15:00 eta 15:30 artean sartzekoa.
- Pixkanaka 15:00etatik aurrera ateratzekoa.

Gisa horretan haur bakoitzak bere gurasoek eta hezitzaileek egoki eta arrazoizko irizten duten banakako ordutegia izateko aukera izango du.

Sarrereren eta irteeren malgutasun hori aintzat hartzea garrantzitsua da, izan ere, adin horietan premiak, aukerak eta heldutasuna, psikikoa nahiz emozionala, aldatu egiten da batzuetatik besteetara.

Bestalde, argi adierazi behar dugu zentroan haurrek “leku” egoki bat dutela, bai estimuluei, aukerei eta sozializazioari dagokienean, bai maila afektiboari dagokionean. baina, hala eta guztiz ere, irudi ordezkaezinak eta funtsezkoak gurasoak izango dira. hori dela eta, nahiz eta beren arteko harremanetan arazoren bat izan, horien protagonismoa eta erantzukizuna landu, lagundu eta ahalbidetu behar dugu eta inoiz ez horiek ordezkatu. Gure zeregina garrantzitsua da, baina beste maila batekoa.

Adin goiztiarretan ordutegiak eta erritmoak zorrotz estandarizatzea ez da inola ere komenigarria. Gaur egun bizitzak berak ezartzen dizkigu guztioi, eta batez ere txikienei, exijentzia eta oztopo handiak eta guk ez ditugu horiek ugaritu edo gaindiezin bihurtu behar.

3.5. ESPAZIOAREN, DENBORAREN ETA BALIABIDEEN EGITURA

	<i>Funtzionamendu- -orduak</i>	<i>Zentroan egongo diren hezitzaileen kopurua</i>	<i>Sartze/ateratzeko aukera talde-mota</i>	<i>Garatzen den jarduera</i>	<i>Erabilitako espazioa</i>
<i>Irekiera</i>	7:30 8:30 9:00 9:30	Sarrera/metatua 1 1 2 3 3 6 2 8	Pixkanakako sarrera	G Haurren harrera A Gurasoak. R Jolas askea. B Jarduera irekia. I K E T A	Jolastoki nagusia. Sehaskakoen gela.
<i>Itxiera</i>	9:45 10:00 11:00 11:30 12:00 13:00 13:00 15:00	1 9 9 9	(Premiazkoa denean eta alde zurretik jakinarazi denean izan ezik.) Pixkanakako irteera	Talde heterogeneoa. Handia. G A R Berariatzko lana. B I K E Talde naturala. T A Bazkaria. Jolasa. GARBIKETA Talde heterogeneoa. Siesta-garbiketa. Talde naturala.	Gela naturala eta motrizitatea lorategia kanporako irteerak. Jangela: txikiak, sehaskakoak. Gela naturala.
<i>Irekiera</i> <i>Itxiera</i>	15:30 16:00 16:30 17:00 17:30	Irteera/metatua 1 8 2 6 3 3 2 1 1 -	Pixkanakako sarrera Pixkanakako Irteera	Agurra edo harrera Merienda Garbiketa Jarduera irekia Talde heterogeneoa. Ez oso handia.	Jolastoki nagusia Lorategia

Egitura honen ezaugarrietako batzuk:

— Sarreraren/irteeren malgutasuna. Honako irizpideak hartu dira kontuan:

- Sartzeko ordutegiei muga bat jartzea gela naturaletan talde txikietan jardutea eta lan egitea ahalbidetzeko.
- Banakako harreraren –ahal den neurrian– garrantzia.
- Egonaldien iraupena egokitzea luzeegiak izan ez daitezten.
- Ordutegien uniformetasun-eza ahalbidetzea premiak eta aukerak errespetatzeko. Horretarako honakoak aztertuko ditugu:
 - Haur bakoitzaren onarpena eta aukera.
 - Taldeen osaketa.
 - Gurasoen premia errealak.

— Jangela nahi izanez gero erabiltzeko aukera.

— Hezitzaileen ordutegiak ikasturte bakoitzean taldeek dituzten funtzionamendu-koordenaden arabera antolatzea. beti honakoak kontuan izanik:

- Erreferentzia irudi finkoa eta talde egonkorra izatearen garrantzia.
- Talde hori pixkanaka zabaltzearen garrantzia:
 - Haur gazteagoekin edo zaharragoekin harremanak izatea.
 - Pixkanaka zentroko heldu guztiekin (tutorearekin, maila bereko pertsonekin, laguntzailearekin eta gainerakoekin) harremanak izatea.

— Espazioa eta denbora banatzea jardueren eta egin beharreko lanaren arabera.

3.6. ESPAZIOA – JARDUERA: HELDUEKIKO/BERDINEKIKO HARREMANAK

BARRUKO JOLASTOKIA ETA LORATEGIA	<i>Jarduera:</i>	– Irekia. – Askea. – Gidatua	
	<i>Harremana</i>	– Adinen nahasketa. – Hainbat heldu.	
GELA NATURALA	<i>Jarduera:</i>	– Programatua.	
	<i>Harremana:</i>	– Talde egonkorra. Homogeneoa. – Tutorea.	
	<i>Jarduera:</i> bazkaria	<i>Sehaskakoak</i> – Ikasturte guztian. <i>Txikiak</i> – Ikasturte hasieran, 2. hiru hilekoa arte.	– Talde egonkorra. – Beren gelan beren tutoreekin bazkalduko dute. – Bi gelek elkarrekin bazkalduko dute <i>gela natural batean</i> . – Talde egonkorra baina handiagoa. – 2 tutore.
JANGELA	<i>Presentzia:</i> – Hainbat talde. – Hainbat heldu	H Ikasturte amaiera A R R E M A N A	– <i>Jangelan</i> bazkalduko dute. – <i>Lekua: mahai finkoak</i> – Talde egonkorra. – <i>Tutore finkoa</i> .
	– Tutorea. – Laguntzailea. – Langilea. – Zuzendaria.	<i>Erdikoak eta handiak</i>	– <i>Jangelan</i> bazkalduko dute. – Lekua, mahai finkoak. – Talde natural egonkorra. – Tutore finkoak.

BILDUMA: "CURRICULUM-MATERIALAK"

COLECCIÓN "MATERIALES CURRICULARES"

- 1** Baloreetan heztea gorputz hezkuntzan
Educar en valores en educación física
- 2** Dealing with primary mixed ability groups
o qué hacer en clase
- 3** 0-3 zikloa 2. urtekoen gelak
El ciclo 0-3 las aulas de 2 años
- 4** Euskara ikasteko unitate didaktikoak
- 5** Txikitatik idazle eta irakurle
- 6** Gorputz-hezkuntza: lanerako proposamenak
- 7** Educación física: propuestas prácticas
- 8** Matematika eta jolasak
- 9** Haur hezkuntza gelarako proposamenak (3-6 urte)
- 10** Haur hezkuntzarako ikastetxe curriculum proiektuak (0-3 urte)

84-457-1985-8



9 788445 719855